ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-04-18
ASTELEHENA
318. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



## Itxiera festa jendetsua Gurian

Herri bazkaria, trikitien txaranga eta musika kontzertuak, Oñatiko tabernaren agurrean | 13

Antzuolako eliza berritua zabalik gotzainak bedeinkatuta | 11



Arrasate Lehiaketako sariak banatu ditu AEDk | 11



Banako berdinketa, txantxiku eta mahoizkoen arteko futbol derbian | 22

# Jendetza Bergaran, abere eta artisau artean

Eguraldia lagun, herritarrek hartu zuten kalea, Erramu-zapatuko ferian | 12



Herriko trikitilari taldea, jendez eta postuz beteriko Ibargarai kalean barrena. | JOSETXO ARANTZABAL

## Ibarreko alkategaiak aurkeztu ditu EAJk

Antzuolan ez dute zerrendarik aurkeztuko | 4

## Gaur irekitzen da errenta aitorpena egiteko epea

Astelehenetik zapatura goizez, Bergaran | 2-3

## Mailari eutsiko dio Bergarako eskubaloi talde nagusiak

Ford Mugarri Arrasateri irabazi dio derbian (42-30) | 24



Nerea Martiartu. | MIRIAN BITERI

## "Posible izan behar da lana eta bizitza pertsonala kontziliatzea"

Nerea Martiartu | Aholkularia | 7

## Euskal Ligarako txartela lortu dute Arizmendiko neskek

Hondarribiari 4-0 nagusituta, mailaz igotzea lortu zuten zapatuan ibarreko futbolariek | 23



Gola ospatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

SARRERAK



KORRIKA-KO ARROPA



ETA ZURETAKO BADIRA?

► Zoaz 3. orrialdera



Bergarako haziendako bulegoa astelehenetik zapatura dago zabalik, 08:30etik 09:30era. | ARGAZKILARIAXXX

# Errenta: aitorpenak aurkezteko epea gaurtik ekainaren 25era arte zabalik

- Ogasun departamentuak atal berezia jarri du abian Interneten
- Aurreikuspenen arabera, 395.000 aitorpen osatuko dituzte aurten



Iaz 8.000 errenta aitorpen mekanizatu aurkeztu

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Gaur, astelehena, hasiko da errenta aitorpenak egiteko epea. Aurtengo kanpainak ekainaren 25era arte iraungo du eta tarte horretan Gipuzkoako Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuak 395.000 aitorpen espero ditu; horietatik 309.000 *itzultzera* irtengo dira (batez beste, 1.151 euro), gehienez hiru egunetan itzuliko direnak. Aurreikuspenen arabera, 355,6 milioi euro inguru itzuliko ditu Diputazioak (iaz iaz baino 20,5 milioi gutxiago) eta, bestetik, 86.000 aitorpen bidez 118,7 milioi euro inguru jasoko ditu Ogasun eta Finantza departamentuak. Ordaintzera ateratzen zaien herritarrek, batez beste, 1.381 euro itzuliko dituzte.

### Inoiz baino gehiago

Pello Gonzalez Ogasun diputatuak, Pedro Mari Ruiz de Azua departamentuko zuzendariak eta Yolanda Dominguez Zuzeneko zergako zerbitzu buruak aurreko astean emandako datuak dira goian aipatutako horiek. Ekainaren 25era bitartean 395.000 aitorpen (inoiz baino gehiago) osatzea espero dute. Gonzalezen arabera, "enpleguaren bilakaera ona" adierazten dute datuok.

### Arreta telefonoa

Azken urteotan ohikoa denez, Ogasun eta Finantza departamentuak atal berezia martxan jarri du dagoeneko bere webgunean. *Errenta 2010 Renta* dioen tokian klikatzea baino ez da egin behar. Era berean, edozein kontsultarako telefono zenbakia eskuragarri dago herritar guztiendako: 902 100 040. Aste barruan, astelehenetik egubakoitzera, dago telefonoa martxan, 08:00etatik 15:00etara. Duela urte batzuetatik hona arreta telefonikoko zerbitzu zentralizatua eskaintzen du Diputazioak, herritarrendako zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera. Erabiltzaileak, orokorrean, pozik azaldu dira zerbitzuaren kalitatearekin. Zerga informazioa eskuratzea errazten duen tresna da eta azkarra eta eraginkorra dela azpimarratzen dute erabiltzaile gehienek.

### Tramiteak erraztu

Zergekin erlazionaturiko edozein kontsulta egin daiteke aipatutako telefonoan. Bestalde, egoitza elektronikoa izeneko atalak foru zerbitzu publikoei buruzko informazioa jartzen du eskura, eta Internet bidezko tramitazioa erabiltzeko aukera dago. Eta errenta aitorpena egiteko beharrezkoa den zerga informazioa etxera bidaltzeko eskaera ere egin dezakete interesatuek. Errenta aitorpena egiteko unean, tramiteak errazte aldera, datu fiskalak (sarrerak, gastuak, atxikipenak..., eta abar) bidaltzen dizkizute posta arruntez, Foru Ogasunean azken zerga ekitaldiari buruz dagoen informazioaren arabera.

### Debagoiendarrak, Bergarara

Debagoieneko kasuan, Bergarako bulegorako txanda eskatzeko orduan, aipatutako telefonora deitu beharra dago aurretik. Gipuzkoako Ogasunak 2004ko apirilean inauguratu zuen egoitza berria, Toki Eder plazako 5. zenbakian. Aurretik gertuan, Mintegi kalean egon zen urtetan. Toki Eder plazako bulegoa San Antoniotik Espoloira bidean dago eta bertan egongo dira errenta aitorpenak tramitatzeaz arduratuko diren bederatzi teknikariak; hara hurbiltzen direnei txanda ematen beste pertsona bat izango da datozen asteotan. Astelehenetik zapatura goizez jardungo dute lanean, 08:00etatik 13:30era.

Errenta kanpainarako ez ezik, urte osoan zabalik dago Foru Ogasuneko Bergarako egoitza. Fiskalitatearekin zerikusia duen edozein kontsulta edo gestio burutu daiteke han. Errekurtsoa aurkeztu dutenen aitorpenak ere errepasatzen dituzte. Zerga-bulegoa da urte osoan zabalik dagoena.

### Aitorpena, euskaraz

Debagoieneko udalek aitorpena euskaraz egitera gonbidatzen dituzte herritarrak. *Nora begira zaude?* lelopean, triptikoak banatu dituzte etxez etxe aurreko

---

**ESANAK**

> **"Aurreikuspenen arabera, 355,6 milioi euro itzuli eta 118,7 milioi jasoko ditu Diputazioak"**
>
> PELLO GONZALEZ
> OGAZUN DIPUTATUA

> **"Inoiz baino aitorpen gehiago osatzea espero dugu, enplegu bilakaera onaren adierazle"**
>
> PELLO GONZALEZ
> OGAZUN DIPUTATUA



...zituzten Bergaran. | GOIENA

## Kontuan hartu beharrekoak

- Aitorpenak aurkezteko epea gaurtik, apirilaren 18tik, ekainaren 25era arte izango da.
- Txanda eskatzeko telefono zenbakia, hauxe: 902 100 040.
- Autolikidazio proposamenak onartzeko epea maiatzaren 6ra dago zabalik. Itzulketa hiru egun baliodunetan egiten ditu Diputazioak.
- Aurten 224.066 proposamen bidali ditu Gipuzkoako Ogasun eta Finantza departamentuak.
- Bergarako Haziendako bulegoaren (Toki Eder plaza, 5) ordutegia, hauxe: astelehenetik zapatura bitartean dago zabalik, 08:00etatik 13:30era. Apirilaren 23an, maiatzaren 21ean eta ekainaren 11n itxita izango da Bergarako bulegoa.
- Argibide guztiak, aurreko urteotan bezala, Interneten ere eskuragarri daude: *http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta*
- *Nora begira zaude?* lelopean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute abian Debagoieneko udalek.
- Gipuzkoako eta Arabako foru aldundien datuen arabera, 2007ko errentaren kasuan, Debagoienean, %9ak egin zuen aitorpena euskaraz eta 2009koan, %16ak. Herriei dagokienez, tarte horretan Elgetak izan zuen hazkunderik handiena, 11 puntukoa. Arrasaten eta Bergarak hiru puntuko hazkundea izan zuten aipatutako tartean.



Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abian jarri dute aurten ere. | GOIENA

## APIRILEKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

### Tamariz ikuskizunerako sarrerak



**Andoni Zubia Madinabeitia**
Eskoriatza

### Korrika-ko arropa

| Izen-abizenak | Herria |
|---|---|
| Naiara Urzelai Sologaistoa | Oñati |
| Juan Ramon Irizar Zubizarreta | Bergara |
| Espe Lizarralde Gallastegi | Arrasate |
| Miguel Angel Guridi Urzelai | Oñati |
| Izar Ijurra Goñi | Arraste |
| Mila Kerejeta Urtaza | Oñati |
| Ramon Ugalde Arrieta | Elgeta |
| J.Angel Oianguren Arana | Aretxabaleta |
| Pilar Calvo Sodupe | Arrasate |
| Amaia Gorosabel Pagaldai | Bergara |
| Iñigo Garitano Larrañaga | Bergara |

ZORIONAK, GUZTIOI !

### DATUAK

**%16**
EUSKARAZ
Gipuzkoako eta Arabako foru aldundien arabera, 2009ko errentaren kasuan, %16ak euskaraz egin zuen.

**8.000**
AITORPEN
Bergarako bulegoan 8.000 bat aitorpen mekanizatu aurkeztu zituzten joan den urtean ; aurten antzeko zenbakiak espero dituzte haziendako arduradunek.

astean. Bertan gogoratzen dutenez, "gaur egun errenta egiteko lau modu daude eta guztietan erabili daiteke euskara: mekanizatua, autolikidazio proposamena, telematikoa (batez ere aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dutena) eta inprimakia (estankoetan erosi edo Interneten eskuragarri daudenak) euskaraz betetzeko gonbidapena luzatu dute aurten ere. Gero eta gehiago dira aitorpena euskaraz egiten duten herritarrak. *Buzoneatutako* triptikoan oinarrizko hiztegia jaso dute. Helburua, horixe: "kenkaria", "sortzapena", "ondasun higiezina", "gardentasun fiskaleko erregimena" edota "hobaria" bezalako hitzekin, ohitzen joatea jendea poliki-poliki. Azken datuen arabera, Debagoienean, %16ak aukeratu zuen euskara errenta aitorpena egiteko orduan. Kopurua hobetzea da helburua. Erraztasun guztiak eskura jarri dituzte Haziendako arduradunek ere bai. Esan bezala, aitorpenak egiteko aukera dago gaurtik ogasuneko bulegoetan.

**MIREN POZUETA** | BERGARAKO BULEGOKO ARDURADUNA

## "Bergarako bulegoan 8.000 aitorpen inguru jaso genituen joan zen urteko kanpainan"

Bergarako haziendako bulegoak Debagoieneko herriei eskaintzen die zerbitzuak. 2004ko apirilean inauguratu zuten egoitza berria Toki Eder plazako 5. zenbakian. Miren Pozueta da bertako arduraduna eta zortzi teknikari ari dira harekin lanean.

**Zenbat aitorpen jaso zenituzten iaz Bergarako bulegoan?**
Guztira, 8.000 aitorpen mekanizatu inguru izan ziren. Aurtengorako antzeko kopurua espero dugu. Astelehenean (apirilak 18) hasiko da aitorpenak aurkezteko epea.

**Nobedaderik aurten?**
Ez, ez dago aparteko nobedaderik. Aldaketa bakarra agian zera da: banketxeek eta kutxek ez dituztela aitorpenak aurkeztuko.

**Aurrez txanda eskatu beharra dago...**
Bai, autolikidazio proposamenarekin ados ez daudenek eta proposamena jaso ez dutenek telefonoz txanda eskatu beharra daukate. 902 100 400 zenbakian eskaintzen da aipatutako zerbitzua. Gogoratu bestalde aurtengo kanpaina ekainaren 25ean bukatuko dela eta ez dela komeni azken orduan ibiltzea...


Ogasuneko bulegoan izango da Miren Pozueta. | GOIENA

# Alkategaiak aurkeztu, eta abertzaleen bat egitea eta elkarbizitza aldarrikatu ditu EAJk

Olanok dio Debagoiena ezagutzan, berrikuntzan edo euskarazko hedabideetan eredu dela

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

EAJk Debagoieneko alkategaiak aurkeztu zituen atzo Kulturaten. Alkategaiekin batera izan ziren Markel Olano Diputatu nagusigaia eta Eider Mendoza Batzar Nagusietakoa, eta baita Joseba Egibar GBBko burua ere.

Han ikusi genituen, era berean, Rafa Uribarren, Arantza Tapia eta Carlos Ormazabal diputatuak; Lore Leanizbarrutia EAJko senataria Madrilen; ibarreko EAJko hainbat alkate ohi, zinegotzi eta zinegotzigai, eta alderdikide. Guztiek berretsi zuten lurraldearekin, eskualdearekin, herriekin eta herritarrekin duten konpromisoa eta nabarmendu zuten abertzaletasunak batu beharra daukala, popularren eta sozialisten "fronteari aurre egiteko". Aurkezle aritu zen Ainhoa Galdos Batzar Nagusietarako EAJren hautagaia Deba-Urola barrutitik eta Oñatin zinegotzi izatez gain, datozen hauteskundeetarako zinegotzigai izango dena.

Hauek dira EAJren alkategaiak Debagoienean: Juan Karlos Garitano, Arrasaten; Aintzane Oiarbide, Bergaran; Lourdes Idoiaga, Oñatin; Mikel Uribetxebarria, Aretxabaletan; Aitor Urrutia, Eskoriatzan, eta Patxi Basauri Elgetan. Antzuolan erabaki dute ez aurkeztea.

**Debagoiena eredu**

Krisitik ateratzeko Zapatero eta sozialisten politika "populista eta inposatzailearen" aurrean, planifikazioan eta agenteekin elkarlanean egindakoa aldarrikatu zuen Olanok. Debagoiena ezagutzaren, berrikuntzaren eta ikerketaren eredu jarri zuen. Eta hemengo euskarazko hedabideak eta kultur ekimenak ere eredugarri jarri zituen. Egibarrek, politikoen zein herritarren arteko elkarbizitza aldarrikatu zuen.



Ibarreko EAJren alkategaiak Markel Olano, Eider Mendoza eta Joseba Egibarrekin . | JOSETXO ARANTZABAL



**JUAN KARLOS GARITANO**
ARRASATEKO ALKATEGAIA

"Elkarbizitza nabarmenduko nuke, eta krisia gainditzeko kudeaketa egokia: errekurtsoak optimizatu eta gastu arruntei eutsi, inbertsioak egiteko. Eta hurrengo urteetarako denon artean herriko plan estrategikoa egin".



**LOURDES IDOIAGA**
OÑATIKO ALKATEGAIA

"Pertsonekin eta pertsonendako lan egin gura dut, zementuari horrenbesteko garrantzia eman barik, gizarte politikak bultzatuz. Oñati, bizigarriagoa, irisgarriagoa... Eta gazteen eta kulturako ekimenak lagunduko ditut".



**PATXI BASAURI**
ELGETAKO ALKATEGAIA

"Industria bultzatu. Elgeta 21 berrindartu, azken lau urteotan moteldu egin da–eta, herrira enpresak ekartzeko; kirol instalazioak hobetu; gas faktura murrizteko, birnegoziatu eta gas naturala ekartzen ahalegindu".




Bilduren zerrendagaien aurkezpenean, Oñatiko plazan. | IRATI GOITIA

# Mikel Biain, Bilduko alkategaia, Oñatin

Herriaren parte hartzea eta Udalaren gertutasuna izango dira herri programaren ildo nagusiak

**AMAIA TXINTXURRETA** | OÑATI

Oñatiko Bilduko alkategaia Mikel Biain da. Beste zerrendakideak hauek dira (ez daude hurrenez hurren): Leire Egaña, Conrado Kernstock, Beatriz Gereka, Iosu Lizarralde, Kontxi Etxeberria, Manu Egaña, Naiara Arregi, Xabier Pico, Eli Ordorika, Esteban Igartua, Maialen Urzelai, Roberto Zugasti, Ainhoa Martin, Gorka Lazkano, Jasone Rubio, Joseba Elortondo, Rosa Mari Anduaga, Oier Irizar Nerea Zubia.

Bilduren Oñatirako asmoak dira, besteak beste: herri parte hartzaile eta bizia eratzea, lan eta bizi kalitate duina eskaintzea eta euskal nortasuna indartzea.

**Banketxetik politikara**

Biainek 34 urte ditu. Enpresa gestioko ikasketak burutu zituen Elgoibarko Gestio Eskolan eta MUn eta egun banka sektorean dihardu; lehendabizi Banco Guipuzcoanon eta orain CANeko zuzendaria da Arrasaten.

# Juanje Amasorrain, Aralarren alkategaia

**E.A.** | BERGARA

Aralarrek gertu dauka Bergaran aurkeztuko duen zerrenda, eta Juanje Amasorrain izango da alkategaia. Amasorrain, argazkilaria da eta argazki denda dauka Bergaran. Zerrendako bigarrena Justina Elexpuru da, eta hirugarrena, Rafa Santxez. Aralarrek zerrendak aurkeztuko ditu Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaleten eta Elgetan.

## Jesus Elortza eta Inaxio Azkarraga-Urizar Bilduren alkategai

Apurka-apurka bagoaz Bilduren alkategaiak ezagutzen. Arrasaten, Inaxio Azkarraga-Urizar LABeko liberatua (Bergaran udaltzain) eta, Bergaran, Jesus Elortza izango dira. Azken honen atzetik, Jaione Isazelaia eta Lauri Askargorta (EA). Elgetan, berriz, Koldo Goenaga. Eibartarra, LABeko afiliatu izandakoa eta kirolzalea.

# Krisia "berritzeko aukera" dela dio Munillak Arantzazun, 4.000 eliztarren aurrean

**E.A.** | OÑATI

Ekonomia krisia, jendartearen eta norberaren "eraldaketarako aukera" dela esan zuen Jose Inazio Munilla Donostiako gotzainak zapatuan Arantzazun, 4.000 eliztarren aurrean. Era berean, "aurrerapena, bihotzik barik, gizateriaren hondamena" dela esan zuen. Erramu-zapatuz, azkeneko urteotan ohitura bihurtu den ibilaldian hartu zuten parte gotzainak. Goizeko 9:30ean hasi eta ordu bi geroago bukatu zen Arantzazuko basilikan. Munillarekin batera, oholtza gainean izan ziren Juan Kruz Mendizabal pastoraltza bikarioa eta Iñaki Beristain Arantzazuko frantziskotarra.




JOSETXO ARANTZABAL

# Presoen aldeko elkarretaratzeak

Oñatin 100 bat lagun elkartu ziren presoen aldeko eskubideak aldarrikatzeko egubakoitzeroko hitzorduan. Bergaran, berriz, Aitziber Plazaolaren aldeko giza-katea egin zuten Irala kalea eta herriko plaza bitartean, Bergarako gazteari berotasuna eta animoak emateko. Istilu gabeko ekitaldia izan zen Ertzantzak gertutik jarraitu bazuen ere.

# Ekintzailetasuna bultzatu gura du Kimu Berrik

## Kimu Berri 2011 egitasmoa aurkeztu dute MU, Saiolan, Athlon, Isea eta Mankomunikateak

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Kimu Berri egitasmoaren 2011ko aurkezpena egin zuten joan zen eguaztenean. Ekimenarekin lortu nahi dute gazteengan ekintzailetasuna hedatzea. Izan ere, gaur egun gazteen arazo nabarmenenetako bat da langabezia eta horri aurre egiteko eurek proposatzen dutena da gazteek euren enpresa propioak sortzea eta sustatzea. Gazteen artean ekintzailetasuna bultzatzeko eskualdeko zenbait eragileen proposamen bateratua da Kimu Berri proiektua. Sustapen batzordean Mondragon Unibertsitatea, Saiolan, Athlon, Isea eta Debagoieneko Mankomunikatea daude.

**Enpresa berriak hemen**

Kimu Berrikoak kontziente dira hemengo enpresak ez daudela lanpostu berriak sortzeko garai onenean, baina eurek proposatzen dutena da gazteak lana bilatzerako orduan atzerrira joateko begira egon beharrean, enpresa berriak hemen sustatzea.




Koldo Azkoitia eta Mikel Orobengoa prentsaurrekoan. | A.T.

**ESANAK**

**"Gazteak gauza dira enpresak hemen sortzeko"**

MIKEL OROBENGOA | ISEA-KO ZUZ.

**Proiektuak eta materiala**

Ekintzailetasunari buruzko sentsibilizazio prozesuan lan egiteko materiala prestatuko dute Lanbide Heziketa, DBH eta Unibertsitateko ikasleentzat eta EKITEN lehiaketa ere egingo dute. Gainera, urrian Arrasaten eta Oñatin urteko Kimu Berriko gaietan garatutako proiektuen erakustaldia egingo dute.



2011ko ekoliderrak diren gazteak. | EKOLIDERRAK

# Lau oñatiar gazte ekoliderren artean daude

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

2011ko gazte ekoliderren artean lau oñatiar gazte daude. Oihana Agirre, Unai Telleria, Jone Ugarte eta Iñigo Ruiz dira gazte ekoliderrak.

Gazte ekoliderren helburu nagusia Gipuzkoan jasangarritasunaren alde gogoz arituko den gazte sare formatu eta aktiboa sortzea da. Proiektu hau Kutxak garapen jasangarriaren alde eta gazte lidergoaren alde egiten duen apustuaren ondorioetako bat da. Horrez gain, Eusko Ikaskuntza eta Cristina Enea Fundazioaren laguntza ere badu proiektuak. Trebakuntza eskaintzan esparru anitzetako unibertsitateko irakasleak, erakundeetako ordezkariak, profesionalak, elkarteak, adituak, aktibistak, mendizaleak eta bestelakoek parte hartzen dute, garapen jasangarria eta lidergoa ikuspuntu ezberdinetatik landu ahal izateko.

**Gazteen proiektuak**

Planetak urtero sortzen dituen baliabide natural eta zerbitzu ekologikoak baino %30 erabiltzen dugu munduan. Planetaren baliabide naturalak gizakion "kapitala" badira, horien "interes"-ez bizi beharrean, kapitala bera ari gara gastatzen. Hortaz, geroz eta pobreagoak gara. Horregatik garapen jasangarriak erronka itzela suposatzen du.

# Titanioaren mekanizazioaren gaineko jardunaldia arrakastaz egin dute

## Joan zen eguenean egin zuten jardunaldia Garaia Berrikuntza gunean

**A.E.** | ARRASATE

Ehun lagun inguru batu ziren joan zen eguaztenean egin zuten Titanioaren mekanizazioaren gaineko jardunaldian. Garaia Berrikuntza gunean ospatu zuten jardunaldia, eta arrakastaz egin zuten antolatzaileen arabera. Nazioarte mailan titanioaren mekanizazioan adituak direnak etorri ziren, tartean Airbus St. Eloiko I+G fabrikazioko zuzendari David Gaudillere.

Jardunaldiok antolatzeko arrazoi nagusia titanioaren kontsumoak izan duen gorakada izan da. Hala, automozioan, medikuntzan, elektronikan, bioteknologian eta batez ere aeronautikan gorakada nabarmena izan du titanioak. Hala, gaiaren inguruan ikertzea beharrezkoa ikusi dute.

**Enpresen arteko harremanak**

Jardunaldiak antolatzeko helburu nagusia enpresen arteko harremanak sendotu eta foro bat sortzea izan da.

Egueneko jardunaldian titanioaren mekanizazioaren ikuspegi zabala egin zuten; hala, kontsumo joerak, mekanizazio estrategiak, titainioaren maneiagarritasuna eta egonkortasuna landu zuten.Gainera, bertatik bertara ikusi ahal izan ziren titanioaren hainbat mekanizazio teknika.

**Antolatzaileak gustura**

Pedro Arrazola Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta jardunaldietako arduradunetako bat pozik zegoen egitasmoak izan zuen erantzunarekin: "Orokorrean arrakastatsua izan da", azaldu zuen. Jardunaldietan parte hartu zutenen %70 Euskal Herritarrak izan ziren, eta gainerakoak Ingalaterra, Alemania eta Frantziakoak. Arrazolak gaineratu zuen MUk gogor dihardurela titanioaren mekanizazioaren gainean lanean eta enpresendako erantzunak bilatzen.



Ikusgai jarri zituzten produktuak. | GORKA ETXABE

### 35 urteko motorzale bergararra hil zen Sopuertan, istripuz

Zapatuan gertatu zen istripua Sopuertan (Bizkaia). Audi A3 batek eta Suzuki markako moto batek aurrez aurre talka egin zuten eta motorzalea autoaren azpian harrapatuta geratu zen. Suhiltzaileek eta osasun zerbitzuek ezin izan zuten biktimaren bizia (35 urteko gizonezko bergararra) salbatzeko ezer egin.

### Usurbilgo Ituna sinatu dute Oñatin

Usurbilgo Ituna sinatu dute Oñati Zero Zabor taldeak eta Oñatiko alderdi politiko eta sindikatuek. Aralar, Bildu, Ezker Abertzalea, Alternatiba, EB-Berdeak, Zutik, LAB, ELA, ESK, EHNE eta EILAS taldeek sinatu zuten ituna. Atez-atekoaren alde egin zuten.



A.E.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

**Amagoia Lasagabaster** | ELA sindikatuko ordezkaria

# "Hitzarmen kolektiboaren erreforman, oso neurri larriak hartu nahi dituzte"

▸ Euskal gehiengo sindikalak Madrilen protestatu zuen

▸ Hitzarmen kolektiboaren erreforma laster itxiko da



Amagoia Lasagabaster, ELAren Bergarako egoitzan. | LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Espainiako Gobernua, CEOE enpresaburuen elkartea eta UGT eta CCOO sindikatuak hitzarmen kolektiboaren erreformaren hitzarmena egitekoak ziren martxoaren 19rako, baina oraindik negoziazioak ez dira bukatu. Apirilaren 5ean, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta HIRU sindikatuek protesta agerraldia egin zuten Madrilen. ELAko Amagoia Lasagabaster elkarrizketatu zuten Goiena telebistan.

**Lehenengo aldiz, euskal gehiengo sindikalak Madrilen deitu zuen protesta agerraldia. Hain larria da gertatzen ari dena?**

Bai, oso larria da. Espainiako Gobernuak aurrera eraman nahi duen hirugarren erreforma mardula da, lan-erreformaren eta erretiroen erreformaren ondoren. Joerak lehengo berberak dira, norabide beretik doaz. Horregatik, erabaki genuen gure protesta eramatea erabakiak hartzen diren muinera bertara.

Lan-erreformaren espiritua zen, egileen esanetan, langabezia bukatzea, baina ikusi da ez dela horrela gertatu, eta urte askoan ez dela gertatuko. Gero, pentsioen erreforma etorri zen, langileen aurkako historiako erasorik gogorrena.

**Kataluniako, Galiziako, Kanariar uharteetako, Aragoiko eta Madrilgo sindikatu batzuk ere han izan ziren.**

Bai. Gure haserrea Madrilen erakutsi nahi izan genuen, eta, bestetik, gure erabaki esparrua defendatu; gure kasuan, esparru hori Euskal Herria da. Eta alternatibak ere aldarrikatu nahi izan genituen, alternatibak badaudelako.

**Martxoaren 19a jarri zuten egileek hitzarmena lortzeko mugaegun gisa, baina oraindik negoziazioak ez dira bukatu...**

Bai. Negoziazioko aldeak oso urrunduta zeuden, baina mahai gainean badituzte puntu nagusiak, eta ñabardura batzuk falta dituzte. Hitzarmenak estatalak izan daitezen nahi dute, eta hitzarmen probintzialak kendu; bestetik, ultraaktibitatea kendu nahi dute, hau da, hitzarmen baten indarraldia bukatzen denean berririk lortu ez bada, zerora bueltatu… Abstentzioa, flexibilizazioa eta soldaten deskarga sartu nahi dituztela ere entzun dugu.

Bi ildo nagusiak dira hitzarmenak zentralizatzea eta ultraaktibitatea kentzea, eta biak oso neurri larriak dira.

> **"Hitzarmenak zentralizatu eta ultraaktibitatea kendu gura dituzte"**

**Zer ekarriko luke hitzarmen kolektiboak estatalak izatea?**

Esaten dute hitzarmenak oso atomizatuta daudela eta berdindu egin gura dituztela. Baina zelan? Hori da garrantzitsuena. Debagoienean, adibidez, metalaren sektorea pisu handikoa da. Bada, Madrilen, metaleko peoi batek kategoria bereko Debagoieneko batek baino 60 ordu gehiago lan egiten du, eta urtean 7.000 euro inguru gutxiago irabazten du, batez beste. Behera tiratuko dute berdintzerako orduan; hortaz, hemengo peoi batek urte askoan eta askoan soldata izoztuta izango luke.

**Entzun izan da ere soldatak produktibitateari lotu gura dituztela. Hori proposatu du, adibidez, Alemaniako kantziler Merkelek...**

Bai; Angela Merkelek esan du soldata KPIari lotzeak dagoeneko ez duela balio. Hemengo enpresaburu gehienek galdetzen dute zelan neurtu daitekeen produktibitatea, eta zelan egin daitekeen lotura hori. Izan ere, Euskal Herriko produktibitatea oso handia da; gutxienez, Alemaniarenaren parekoa.

Modu batera edo bestera, helburua da soldatak ez daitezela handitu. Badirudi, orain soldatak direla krisiaren errudunak. Baina nik ez dut ezagutzen soldata handiegiak izateagatik itxi den enpresarik; ixtekotan, gestio txarragatik-edo izan da.

> **"Behera tiratuko dute hitzarmenak berdintzerako orduan"**



AMAYA DÍAZ EMPARANZA-EJ GV

## Unda, euskal enpresekin Txinan

Industria sailburu Bernabe Undak (argazkian) Txinan bira txikia egin du, euskal enpresekin egoteko, batik bat makina–erreminta sektorekoekin. Tartean, Mondragon Korporazioko Danobat Group–ekin egon da; enpresa horrek 30 milioiko kontratuak itxi berri ditu Txinan. Fagor Automationekin ere izan da sailburua. Argazkian, Bernabe Unda Tianjin hiriko Espainiar–Txinatar Makina–Erremintako Lanbide Heziketa Erakundeko ordezkariekin.

# Euskal garraiolari autonomoek diote etziko hitzarmenak ez diela krisia konponduko

Hiruk ez du bat egingo Sustapenak eta Fetransak egingo duten akordioarekin

**L.K.** | ARRASATE

Espainiako garraiolari autonomoen Fetransa sindikatua, Espainiako Sustapen Ministerioa eta kargatzaileak (garraiolarien bezeroak) akordioa sinatzekoak dira bihar, martitzena, garraiolarien krisia konpondu asmoz. Hiru sindikatuak, Euskal Herriko garraiolari autonomoen ordezkariak, ez du bat egin, eta akordio asmo hori kritikatu egin du.

Fetransa sindikatuko ordezkariek joan den egubakoitzerako zuten deituta greba mugagabea, baina esan dute, egitekotan, etzi, eguaztena, hasiko dutela lanuztea; Eguen Santu bezperan, alegia, Hego Euskal Herrian eta Espainian langile gehienok Aste Santuko oporrak hasten dituzten eguna.

Hitzarmen horren bidez, Sustapen Ministerioa konprometituko da Fetransak eskatzen dituen lege-erreformak hastera, arau-hausteek ondorio administratiboak izan ditzaten. Fetransak aipatzen ditu honako puntuak: eurek egindako zerbitzua 30 eguneko epean ordain diezaieten; eta gasolioaren prezioa isla dadila euren kontratuetan.

Hiru sindikatuak esan du hitzarmen horretan ez dela batzen kargatzaileendako betebeharrik, eta ez dela sektoreak behar duen irtenbidea.

**DATUA**

**12.000**

EUROKO GAINKARGA

Aurten 12.000 eurotan handituko zaizkie laneko kostuak, diote garraiolariek.

**DATUA**

**30**

EGUN

Garraiolariek eskatzen dute lana ordain diezaieten 30 egunen barruan.

**DATUA**

**1,237**

EURO

Urteko lehen hiruhilekoan, gasolio litroa 1,237 eurotan saldu da EAEn.

**Nerea Martiartu** | Deloitte aholkularitza enpresako kudeatzailea

# "Posible izan behar da lana eta bizitza pertsonala kontziliatzea"

▸ Aisialdia eta formazioa bultzatzeko ere balio duela nabarmendu nahi izan du Martiartuk

▸ Frantzia, Portugal eta Italiako ereduak aztertu dituzte; bestelako ereduak dituzte han

**MIRIAN BITERI** | BERGARA

Joan den eguenean, *Lana eta bizitza pertsonala kontziliatu, nola?* izeneko jardunaldia egin zuten Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hizlarien artean, Bilboko Deloitte aholkularitza enpresako kudeatzaile Nerea Martiartu izan zen. Besteak beste, gaur egun Europan erabiltzen diren ereduen gainean egin zuen berba.

**Posible da lana eta bizitza pertsonala kontziliatzea?**

Posible izan behar du. Gizartean pertsonalak eta ekonomikoak diren hainbat erronka ditugu emakumeok eta gizonok; tartean, jaiotza-tasa eta enplegua mantentzea. Lehengo Lisboako Estrategia 2010 eta oraingo Europa 2020: hainbat helburu aurreikusi dituzte enpleguari dagokionez. Horren arabera, 2020ra bitartean, biztanleen %75ek aktibo egon behar dute. Horrek eskatzen du gizonez gain emakumeek ere lan egin behar dutela.

**Horren harira, askotan, kontziliazioa emakumeei zuzenduta dagoela ematen du...**

Hala da. Kontziliazioa hasten da arduren banaketarekin. Gai hori gainditua izan beharko genuke. Europarrak garela esaten dugu, baina gai askotan azkenak gara. Seme-alabendako ez ezik, kontziliazioa aisialdirako eta formaziorako ere egokia da. Kontziliazioa umeekin lotzen dugu, baina bizitza pertsonala askoz gehiago da. Gauza garrantzitsu asko dago jokoan.

**Lana eta bizitza pertsonala kontziliatu, nola?**

Ez dago eredu bakarra. Lana da eguna egituratzen duena, eta, horren arabera, beste bizitza guztia antolatzen duzu. Jaurlaritzak eskatuta horren gaineko ikerketa egin genuen, eta Europako ondoko herrialdeak aztertu genituen. Frantzia, Portugal eta Italian antzeko ereduak izango zituztela uste genuen; oker geunden. Uste genuena baino urrunago gaude; zer esanik ez Danimarka, Suedia eta Finlandiako ereduez.

**Nolako ereduak dituzte han?**

Esan bezala, ez dago eredu bakarra. Baina toki askotan goiz sartzen dira lanera; eguerdi partean, ordu erdiko tartea hartzen dute zerbait hartzeko, eta 17:00 aldera lanetik irteten dira. 22:00ak arte nahi dutena egiteko denbora daukate. Aisialdiari dagokionez, askotariko gauzak egiteko aprobetxatzen dute.

Gurean, normalean, beranduago sartzen gara lanera, eta eguerdian oso luzea den atsedena izaten dugu. Joan-etorri asko egiten dira ostera ere jateko, horrek dakarren kutsadurarekin. Atseden hori ez da batere eraginkorra. Arratsaldean, 20:00etan irteten gara lanetik; denbora aurrera doa eta gauerdira arte ez goaz ohera.

Horrek guztiak eragiten du azken ordu horietan telebistari begira egoteko ohitura dugula. Aisialdiaren kalitatea bermatu egin daiteke gaur egun daukagun ordutegiarekin.



Nerea Martiartu, eguenean, Bergaran, hitzaldia egin aurretik. | MIRIAN BITERI

> **"Umeekin lotzen dugu, baina bizitza pertsonala askoz gehiago da"**

> **"Eguerdian ordu erdiko atsedena duena da ondoen ikusita dagoena"**

**Egoera horri buelta emateko, Jaurlaritzak horren gaineko proba pilotua jarri du martxan hainbat enpresaren laguntzekin; tartean, Bergarako Lazpiur dago. Emaitzarik bai?**

Ez, ez dago emaitzarik. Egoera ez da egun batetik bestera aldatzen, eta horretan gabiltza. Prozesu parte-hartzailea egin nahi dugu, eta horretan gaude murgilduta. Igarri duguna da aldez aurretiko oso jarrera ona dutela enpresa parte-hartzaileek. Dena dela, kontziliazioak ez die enpresei bakarrik eragiten. Kontuan izan behar da komunikabideetan gaueko albistegiak aurreratu beharko liratekeela eta garraio publikoen ordutegia moldatu. Bestalde, lan-hitzarmen kolektiboan ez da askorik tratatu den gai bat, eta sindikatuek ere kontuan hartuko beharko lukete.

Jaurlaritzak badaki horrek ez diela enpresei bakarrik eragiten, baina zeresan handia dutela uste du, eta, hori dela-eta, interesatuta dauden enpresek laguntza izateko gida bat ondoan izatea ondo egongo litzatekeela, eta metodologia zabala duen proiektua egitea eskatu zigun. Metodologia hori hainbat enpresaren laguntzarekin muntatzea egokia izango litzatekeela bururatu zitzaion, eta horretan dihardugu.

**Ordutegi-malgutasuna, telelana, lanaldi jarraitua... Eredu bakarra ez badago ere, hainbat irtenbide egon daitezke enpresa bakoitzaren egoerara egokituta, ezta?**

Hori da. Baliabideen optimizazioan dago gakoa; langile eta lana ematen dutenen artean ematen den baliabideen optimizazioan. Ez dago eredu bakarra. Euskaltelen, esaterako, lanaldi jarraitua ezarri dute kolektiboaren zati handi batean.

Azken horren harira, kontuan hartu behar da enpresa bakoitzean kolektibo ezberdinak daudela eta guztiei ez zaiela eredu bera aplikatzen. Tailer batean gauez daudenek agian ez dute aldatu nahi, bestelako ordainsariak dituztelako. Euskatelek aukeratutako eredua, dena dela, ez da zabalduena. Baina ordu erdiko atsedena aurreikusten duena da ondoen ikusita dagoena.

**Behin baino gehiagotan entzun dut horrelako eredu bat jarraituz gero produktibitatea handitzen dela. Horrela da?**

Zalantza daukat. Enpresa batean gauza asko egin behar dira. Denboraren optimizazioa lortu behar dugu. Txipa aldatu beharra dago, eta, agian, ebaluazio eredua ere aldatu beharko litzateke. Presente egoteari agur esan behar diogu; ez goaz lanera aulkia berotzera, ondo lan egitera baizik. Esan beharra dago azken urteotan asko aldatu dela egoera; baina oraindik asko dago egiteke.

## ZABALIK



**ANDONI URZELAI**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Hooliganak eta beste

Esperantza. Askoren iritziz, EAk eta Alternatibak ez daukate egiten ari direna egitea baino beste aukerarik. Moldatu edo hil, hain zuzen. Baliteke. Edozelan ere, bi alderdi hauen azken garaiotako ibilbidea ausarta eta txalogarria iruditzen zait. Esperantza sorrarazi dute abertzale eta ezkertiarrengan, eta hori, orain eta hemen, ez da gutxi. Beste kontu bat da nola gorpuztuko den "Bildu" Euskal herriko herri eta hirietan, urte askotako ezinikusi eta mesfidantzak ez baitira egun batetik bestera leuntzen...

Hooliganak. Kazetaritzari kiratsa dario. Kiroletako eta "bihotzeko" kazetarien lan egiteko modu basati eta erabat narras hori kazetaritza politikora ere zabaldu da erabat. Eta ez naiz iritzi-emailez mintzo –are jendilaje maltzurragoa hau oraindik ere–, baizik eta egunkari, telebista eta irratietako albistegietako editore eta esatariez. Hooliganak dira guztiak. "Bildu" ezker abertzalearen marka berri moduan aurkezten dute inolako lotsa izpi barik (marka kontzeptua bera zein iraingarria den, jesus!), albisteak komenientzien arabera ezkutatu edo argitarazten dituzte... en fin. Noski, norbaitek esango du: hau bai leloa, oraintxe konturatu al da ba horretaz? Ez ba, baina kontua zera da: hori horrela dela jakinda jendeak nola demonio segitzen duen betiko medio gezurti eta desinformatzaileak kontsumitzen... masokistak ote gara?

> **"Esperantza sorrarazi dute abertzale eta ezkertiarrengan"**

Perla. Bruselako politikariek beraien bidaien inguruan onartutakoak zalaparta ekarri du Interneteko sareetara. Hemen, horren harira, bestean Cuatroko esatariak informatiboan zioena: Internet bezalako tresna eskura edukita, protesta eta eragiteko zein baliagarria den ikusita, kalean manifestatzeak ez du jada zentzurik, hori beste garai bateko anakronismoa da... Ez, gainera putre hauek kaleetatik atera nahi gaituzte, Twitterreko 120 karaktere nahikoa direlakoan gure haserrea erakusteko...

## USTEAK USTE

**MIRIAN BITERI** | 'mbiteri@goiena.com'

# Lau gaztetik bat lan barik

Eustatek eskainitako datuen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 113.100 lagun inguru daude beharrik gabe; aurreko hiruhilekoan baino 8.900 langabe gehiago. Igoera bera harritzeko modukoa bada ere, gehien harritu nauena da gazteen langabezia tasa %26,3 dela; hain justu, 16 eta 24 urte bitarteko lau gaztetik bat dago lan barik. Kontuan izanda %100 kobratu ahal izateko 38,5 urte kotizatu beharko dituztela, zenbat urterekin erretiratu ahal izango dira horiek? Errealista izatea hobe: indarrean dagoen sistema aldatu ezean, ez dut uste gazte horien edo zaharragoak garenen pentsioa ordaintzeko dirurik geratuko denik.

## KALE INKESTA

# Gustura al zaude daukazun lan orduekin?



**IGNACIO PAGALDAI**
ARRASATE

"Bi errelebotara egiten dut lan eta gustura nago. Horrela, goiz edo arratsaldea aprobetxatu dezaket."



**ARANTZA ARANZABAL**
ARRASATE

"Nire lan orduak aldatuko nituzke. Arratsaldetan berandu irteten naiz eta ezin izaten dut umeekin eta familiarekin gozatu."



**AMPARO BARRENO**
ARRASATE

"Lan jardun zatituan egiten dut lan eta ez nuke aldatuko. Gustura nago horrela. Erreleboak ez zaizkit gustatzen."



**SEGUNDO SAJERAS**
ARRASATE

"Autonomoa naiz eta ez dut lan ordu zehatzik. Baina enpresa batean lan egiteko aukera banu, joango nintzateke."

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Gagarin eta Armstrong baino zenbat urrunago iritsi gaitezke?

**Unai Brea**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

50 urte Iuri Gagarinek espaziora bidaia egin zuela, 42 Ilargira iritsi ginela... Eta hortik aurrera zer? Ikus dezakegun unibertsoaren tamaina kontuan hartuta, esan daiteke Gagarinek etxeko atea ireki eta oin-punta atera besterik ez zuela egin, eta hori oso eskuzabalak izanda. Ilargira iristea, agian, oin osoa ateratzearekin konpara genezake. Benetan izango gara gai, noizbait, etxetik irten eta auzotik paseoan ibiltzeko?

Martera joatea da orain erronka. Horretaz hitz egin nuen erreportaje honetan, otsailean. Astronauten prestakuntzaz jardun nuen gehienbat, baina bidaia hori egiteko egon daitezkeen bestelako oztopo batzuk ere aipatu nituen, eguzkiaren erradiazioaren arriskua besteak beste. Beti, hori bai, ontzat emanda erronka teknologikoa gainditituko dugula. Haatik, hori ez dago hain argi. Marte gure aldameneko planeta da, hurbil dagoela eman dezake, baina lekutan dago. Giza-tripulazio bat ganorazko ontzi batean bertara bidaltzeko eta itzularazteko behar den energia kopurua oso handia da, eta ez gaude energia alferrik gastatzeko tenorean preseski.

Demagun, dena den, Martera iristen garela. Eta gero? Gagarinen balentriaren urtemugaren bezperan (*Aldapeko sagarraren* kantuaren doinuarekin irakur dezakezue aurreko esaldia, nahi baduzue), Alan Finkel ingeniariak artikulu interesgarria argitaratu zuen *Cosmos* aldizkarian. Zioenez, fisika eta kimikaren arteko talkak ezinezko bihurtzen du gure espeziea Eguzki Sisteman barrena hedatzea. Are urrunago joatea, ezta amestu ere. Alde batetik, fisikaren legeek diote ontzi batek Lurraren grabitatea gainditu, espaziora bidali eta atzera etxera ekartzeko izugarrizko energia kopurua behar dela. Bestetik, kimikak diosku kohete baten erregaiak eman dezakeen energia kopuruak muga bat duela, eta teknologia hobetzeak ez du hori eragotziko.

Gizateria galaxia osoan zehar barreiatuta dagoen obrak ez dira falta zientzia-fikzioan. Momentuz igarri ezin dugun iraultza teknologiko handi bat gertatu ezean, horixe bera da hain urrun eta sistematikoki bidaiatzeko asmoa: zientzia-fikzioa. Askoz gutxiago lortzeko ere, planeta honetako baliabide guztiak ustiatu beharko genituzke. Eta hala balitz, hemendik alde egitera behartuta egongo ginateke noski. Nahikoa gurpil-zoro ergela.

Ni neu behintzat pozten nau Finkelek esandakoak.

Zientziaren legeek gehienez etxe atarira ateratzera kondenatzen bagaituzte, beste munduetako balizko biztanleek, adimenduak ala ez, lasai hartu dezakete arnasa, baldin eta arnasa hartzen badute. Baina erne: alternatiba modura joaneko bidaiak besterik ez egitea proposatzen dute zientzialari batzuek, itzulerarik gabekoak, eta seguru erronka onartzeko prest dagoen boluntariorik ez litzatekeela faltako. Batez ere planeta honek daraman martxan.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Leire Kortabarria
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale.
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Txomin Azpitarte** | Zinegotzi independentea (1987-1991)

▶ Eskoriatzara bizi izatera joan eta handik gutxira Udalean "herriaren alde" lan egiten hasi zen

▶ Hirigintza zinegotzia izan zen; plan partzial berria egin zuten agintaldi hartan

▶ Isabel Guridiren lanari esker, Ibarraundi baserria mantentzea lortu zuten garai hartan

# "Eskoriatzako nortasuna eta aurrera begirako bideak zehaztu genituen plan partzial berrian"

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Eusko Alkartasuneko zerrendan baina independente moduan aurkeztu zen Txomin Azpitarte 1987-ko udaberrian egindako hauteskundeetan. Hirigintzaz arduratu zen; aspaldiko oroitzapen horiek eta agintaldian egindako proiektuez egin du berba datozen lerroetan.

**Zelatan animatu zinen politikan sartzera?**

Jaiotzez ez naiz eskoriatzarra, eta bizi izatera etorri nintzenean gaztea nintzen eta neskato-mutiko txikitxoak nituen. Ikastola martxan jartzeko lan egiten hasi nintzen; gustuko izan dut beti herriaren alde zerbait egitea, eta gogoz sartu nintzen Udalean. Familiari agindu nion herriaren alde egingo nuela lan, baina alderdi batera afiliatu barik.

**Nola gogoratzen duzu hasiera?**

Gogorra izan zen. Julian Urtzelai alkate zela, urte nahasiak bizi izan zituzten udal barruan. Sartu ginenean, pertsonal sailean, gure gustukoa ez zen Udala topatu genuen. Hirigintza arduradun izendatu ninduten, eta bulegora sartu nintzenean planoak lurrean aurkitu nituen. Lehenengo, udaletxea ordenatu behar izan genuen; artxibo eta planoez gain, langileak ere ordenatu genituen. Orduan ez zegoen orduen kontrolik, eta gogoratzen naiz hasieran ondo hartu ez bazuten ere jarraian ohitu egin zirela.

**Ze oroitzapen dauzkazu?**

Askotan gogoratzen dut Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko saihesbideko lurrak bota zirela Torrebaso gainean, eta 1988ko martxoaren 19an izango zen, zabortegia oraindik asentatu barik zegoela eta lurrak mugitzen hasi zirela. Almengo kiroldegia presioarekin apurtu egin zen; zorionez, ez zen ezer gertatu. Horren ondotik, zabortegi gainean aurreikusita zegoen kiroldegiaren proiektua bertan behar utzi genuen.

Bestalde, denbora hartan, alderdi guztietako ordezkariak elkartzen hasi ginen eta denon artean proiektuak adosten hasi ginen. Egunero lanera joaten ginen, eta arratsaldean udaletxera etortzen ginen. Batzuetan, etxera gauerdian iristen baginen ere, gazteak ginen eta gustura geunden.



Txomin Azpitarte, kultura etxeko atzealdean dagoen parketxoan. | MIRIAN BITERI

**"Autobidea Bolibartik joatea aurreikusita zegoen hasieran"**

**"Asteburuan lokal publikoak itxita daude; nik zabalik izango nituzke"**

**Zein izan zen agintaldiko proiektu esanguratsuena?**

Plan partzial berria egin genuen; hegoaldeko sarreratik Aingeru Guardaraino. Eskoriatzako nortasuna eta aurrera begirako bideak zehaztu ziren. Intxaurtxuetako etxebizitzak lortu genituen. Bestalde, aurreko proiektu batean Ibarraundi baserria botatzea aurreikusita zegoen, etxebizitzak egiteko. Hori berritu genuen. Isabel Guridik paper garrantzitsua izan zuen horretan. Horretaz gain, alde zaharra eta gune industrialak garatu genituen;. Ederlan parekoa eta Aingeru Guardakoa.

Garai hartan autobidearen gainean ere jardun genuen. Lehenengo proiektuak aurreikusten zuen Bolibartik joatea; ingurune polita mantendu nahian, Aretxabaletakoekin egin genuen berba eta negoziazioei esker aldatzea lortu genuen. Hirigintzari dagokionez, agintaldi garrantzitsua izan zen.

**Nolakoa zen garai hartako Eskoriatza?**

Helburua zen biztanle kopurua 4.000ra igotzea. 1986an 3.900 pasatxo zeuden eta 1991n, 3.800 pasatxo. Lantokiak lortu eta etxebizitzak egin genituen horretarako, baina, hala eta guztiz ere, ez genuen lortu. Egun ere, antzera dabil.

Zerbait egin genuen txarto, Eskoriatzan eta Debagoien osoan porlan gehiegi dago. Gure proiektua izan bazen ere, penagarria da erreka porlanarekin bideratzea. Errekaz ezin dugu gozatu.

**Ze behar zituen herriak?**

Gasa behar genuen; borroka handiarekin, baina lortu egin genuen sartzea. Bestalde, txikitxoekin, ikastola eta eskola publikoa elkartu nahi genituen, munizipala bezala. Soziologikoki bi nukleo zeuden. Azken momentuan, baina, atzera egin zuten. Bestalde, Iberduero eta Telefonicarekin hitzarmena sinatu genuen kable guztiak lur azpitik joateko.

**Amaitu aurretik: zelan ikusten duzu gaur egungo Eskoriatza?**

Gustatzen zait, herri lasaia da. Eskoriatzak nortasun propioa du. Baina asteburuan ez dago bizitzarik. Lokal publikoak, esaterako, itxita daude; nik zabalik izango nituzke.

DERBIA

GOENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ALOÑA MENDI VS BERGARA DERBIA

APIRILAK 18, 20:45, 22:30 | XABIER URTZELAIK AURKEZTUA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK



Jose Inazio Munilla gotzaina, bedeinkapenaren une batean, Jon Molina parrokoa ondoan duela. | JOSETXO ARANTZABAL



Elizkizunaren ostean eliza berritua bisitatu zuten herritarrek. | USOA AGIRRE

ANTZUOLA

# Eliza berritua zabalik, gotzainak bedeinkatuta

▸ Eskerrak eman zizkien gotzainak antzuolarrei, egindako lanagatik

▸ Lau urteren ostean, parrokian egingo dituzte mezak berriz ere

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

2007an hasitako zaharberritze lanak bukatuta, zapatuan egin zuten Errukizko Amaren parrokia berrituan lehen meza. Jose Inazio Munilla Donostiako gotzainak eman zuen meza eta lagun izan zituen parrokiako oraingo eta lehengo abadeak.

Eliza berritua bedeinkatu eta aldarea kontsakratu zituen Munillak. Izan ere, aldarea kontsakratzeko eskumena gotzainak bakarrik dauka. Munillak sermoian eskerrak eman nahi izan zizkien antzuolarrei eliza berritzen egindako lanagatik: "Gaurko inaugurazioa herriaren bihotzaren berritzerako izan dadila", esan zuen.

### Lau urte berritzen

Zalantzarik gabe, elizkizun berezia izan zen zapatukoa, ia lau urtez elizan lanean aritu ostean, herriko kristau fededunek "biltzeko leku dotorea" baitute orain. Halaxe aitortu zigun herritar batek.

Elizkizunaren ostean herritarrek eliza bisitatzeko aukera izan zuten, egin diren berritzelanak ikus ahal izateko eta, elizako arkupetan, merienda prestatu zuten bertaratutako guztiei eskaintzeko.

### 1.473.000 euroko lanak

Lanen lehen fasean egiturako zaharberritzea egin zen. Bigarrenean, barruko lanak egin dituzte: aroztegia, pintaketa, korua...

Lehen faseko lanek, 760.000 euroko gastua izan zuten eta bigarrenekoek 713.000koa. 314.000 euro falta dira 2011n ordaintzeko eta 200.000ko mailegua eskatu dute. Kontu korronteak dituzte zabalik, diru-laguntza emateko.



Aldarea konsagratu zuen gotzainak, elizkizun berezian. | USOA AGIRRE



Bergarako San Joxepe abesbatzakoak eta Antzuolakoak, koruan. | J. ARANTZABAL

## Pietatearen erretaula

Eliza berrituan ikus daitekeen artelanetako bat da XVI. mende bukaerako Pietatearen erretaula, errenazimendu garaikoa. Duela 25 bat urte eraman zuten Donostiako Elizbarrutiko museora eta 1993an zaharberritu zuen Ramon Gudiolek. Polikromiak finkatu zizkion, berniz zaharrak garbitu eta desinfektatu egin zuen.

Mende laurden pasata, beraz, berriz ere Antzuolan da erretaula. Beste lau zati ere baditu erretaulak, ebanjelistenak, eta horiek pulpituan ikus daitezke: San Marcos, San Juan, San Lucas eta San Mateo.

Erretaularekin batera ekarri dute museoan zegoen San Frantziskoren margoa, XVIII. mendekoa. Aldarearen ondoko horman jarri dute hori.



XVI. mendeko erretaula. | U.A.


Saiheskia jateko aukera izan zen San Martin plazan, Magaliren alde. | JOSETXO ARANTZABAL


Artisauek euren lana erakutsi zuten, irudiko saskigileak moduan. | J. ARANTZABAL

BERGARA

# Jai-giro ederra, abere, artisau eta saiheski artean

## Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen Erramu-zapatu egunez eta jai-giroa izan zen nagusi egun osoan

**USOA AGIRRE** | BERGARA

Herriko ia txoko guztietan jende ugari bildu zen Erramu-zapatu egunez. Azokak ikusi -artisauena San Martin plazan; abereena Seminarioko patioan eta Ibargarain; jakiena Fraiskozurin...- eta, eguraldi ona lagun, kalean bildu ziren herritar zein kanpokoak tradizio handiko jaian parte hartzeko.

Udalak egin zuen mahoi jantzeko deiari kasu eginda, herritar batzuk ere bazebiltzan kolore hori soinean zutela. Horrelako egunetan jan eta edanak ere arrakasta izaten dute. Horren lekuko izan ziren, besteak beste, talo eta saiheski postuen inguruak. Salmenta-postuetakoek esan zigutenez, begiratu bai, baina jendeak ez zuen asko erosi. Festarako gogoz ibili zen jendea Bergaran.

**Txorimalo lehiaketa**

Txorimalo lehiaketako lanak ere ikusgai izan ziren Ibargarain; 26 taldek parte hartu zuten. Hauek jaso zituzten sariak: Peña karabina, Mizpirualde, Txorimalota, Espazioko neskak, Angiozarko eskola eta Tipirri taparra.


Ibargarai jendez beteta. | J. ARANTZABAL


Artisaua lana erakusten. | J. ARANTZABAL


Herriko emakume batzuk plazan, ehoziri-lanetan. | JOSETXO ARANTZABAL



**MARGA G. DE LA IGLESIA**
ARTISAUA

"Lihozko eta artilezko haria egiten dut. Jendeak interes handia erakusten du. Umeek ez dute ezagutzen, ez landareak ezta hari hau ere."



**JULEN ETA IÑAKI**
HERRITARRAK

"Oso itxura ona dauka feriak. Jendea giro onean dabil eta eguraldia ere ederra da. Erramu-zapatua ganoraz ospatu behar izaten dugu bergararrok."



**EKAITZ ALKORTA**
TXOZNAN ARITU ZEN LANEAN

"Magaliren aldeko txoznan egon naiz lanean, saiheski goxo-goxoa ateratzen. Jende asko etorri da eta oso pozik gaude. Eguraldia ederra eta aprobetxatu behar da eguna."



**IBON GABILONDO**
HERRITARRA

"Herri bazkarira joango gara eta arratsaldean juerga egingo dugu. Mahoiez jantzita etortzeko esan dute eta gaur Erramu-zapatua izanda egoki etorri naiz jantzita."



**AITZIBER ETA MADDI**
TXORIMALO LEHIAKETAKOAK

"Gure txorimaloa obreroa da. Egunkaria eta kola erabili ditugu egiteko eta eginda ekarri dugu hona. Aurten parte hartzen dugun bigarren aldia da."

ARETXABALETA

# Jantziz eta edertasunez bete zen Durana kalea

## Belar-Meta dendak antolatuta, Durana Fashion Week desfilea egon zen egubakoitzean

**LEIRE KORTABARRIA** | ARETXABALETA

Belar-meta dendaren ekimenez, Durana Fashion Week delako desfile koloretsuak jantzi zuen Aretxabaletako egubakoitz arratsaldea. Ezohiko modeloak izan ziren bertan: UDAko kirolari gaztetxoak eta Ainhoa Sanchez, Miss Euskadi. Esatari lanak egiten Imanol Gallego kazetari aritu zen, eta hark ere gatza eta piperra gehitu zizkion saioari.

Jende piloa batu zen Durana kaleko Belar-meta jantzi dendaren inguruan, hango musika martxosoak eta jantzi koloretsuek erakarrita. Aurpegi ezagunak ere bai: UDAko jokalariak eta Miss Euskadi, Ainhoa Sanchez, "amaponteko" gisa, DJ gazte baten disko aukeraketekin.

Dendakoen hainbat lagun ere animatu ziren dendako jantziak soinean eramanda desfilatzera.


Modeloak, Miss Euskadi eta aurkezlea, desfilea hasi aurretik. | LEIRE KORTABARRIA



Goizeko kalejiran dantza taldeek kaleetan barrena eskaini zituzten dantzak. | MIREN ARREGI

ARRASATE

# Beste dantzari egun bat; berriz ere, alaitasuna kaleetan

- Herritar asko batu zen plazan, dantzarien lana ikustera
- Guztira bost dantza talde aritu ziren

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

Dantzaz bete zen zapatuan Arrasate. Dantzaz eta txistu eta dultzaina doinuz, noski. Zer dela eta? Arrasateko Dantzari Egunaren harira. Bertako Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeek izan zuten eguna antolatzeko ardura, eta gonbidatu gisa etorri ziren Antzuolako Oinarin, Oñatiko Oñatz eta Soraluzeko Urrats dantza taldeak. Goizeko 10:30erako zerien dantza usaina kaleei; dantzari taldeek kalejiran zeharkatu baitzituzten herriko karrikak. 12:30ean guztiek batera egin zituzten kaleetan barrena dantza erakustaldiak, eta ondoren etorri zen plazako hitzordua; lehenik eta behin, agurra. Gero etorri ziren Bizkaiko mutil dantzak, Oñatiko Oñatz dantza taldeak eskaini zituen Markina Xemein eta gorulari, neska guztiek batera egin zuten Gipuzkoako zinta dantza, mutilen Lesakako dantzak, Antzuolako Oinarin taldearen eskutik itai-dantza eta Arabako poupourria.

Sara Merenderuen bazkaldu ostean jarraitu zuten dantzekin; giro ederra izan zen herrian, egun guztian zehar.



Gipuzkoako zinta-dantza, neska guztien eskutik. | MIREN ARREGI



Bazkarian, Guria tabernarengatik topa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



*Trikitxaranga* lagun, giro ezin hobea jarri zuten bertaratutakoek; asko kapela jantzita eta guzti ibili ziren. | J.A.

OÑATI

# Guriari agur gazi-gozoa eman zion haren familiak

Hilaren 30ean itxiko dute, baina agurtzeko zapatuan itxiera festa jendetsua ospatu zuten

**A. TXINTXURRETA / A. ARANBURUZABALA**
OÑATI

Zer da Guria taberna zuretzako? galdetu genien zapatuan han zeudenei. Erantzuna: "neria". Hainbat belaunalditako oñatiarren bigarren etxea izan da urte askoan Guria; horrela erakutsi zuten azken festan bezero huts sentitzen ez diren bertaratutakoek eta bakarrik zerbitzariak ez diren jabeek ere.

**Salda eta txorizoa denentzako**

Eguerdian, motorrak berotzen hasteko, salda eta txorizoa banatu zituzten Atzeko Kalean. *Trikitxaranga* ere ez zen falta izan, eta musika lagun, dantzarako gogoa eta alaiatasuna nagusitu ziren. Asko eta asko mozorrotuta ere ibili ziren kapela eta paper -txori edo pajaritak jantzita.

**Giro ezinhobea**

Bazkarian, 200 lagun elkartu ziren eta menuan paella izan zuten.

Arratsaldean, jaiarekin jarraitzeko, kontzertuak egon ziren Guria kanpoaldean, Kale Barrian. Taularen gainean: garai bateko Saz Le Bolo; Joxe Mari Anduaga; Kepa eta Ander; Drakes; CC627 eta Hertzainak taldearen bertsioak egiten dituen taldea eta JaviSound DJa. Jaia espero moduan luzatu egin zen; taberna kanpoan lehenengo eta barruan gero.

**Ziklo baten amaiera**

Guriako itxieraren bezperatan barraren bi aldetan barrea eta negarra nahasten dira. "Bizitzan aldaketak gertatzen dira eta horietako bat ari gara ospatzen. Gero zer? Guztion galdera da hori" zioen Fermin Etxegoien bezeroak. Klementx Azpiazu tabernariak: "Ateak itxi bitartean gozatu... eta gero? Ikusiko dugu! Eta betiko bezeroei esango nieke pertsonek egiten dutela aterpea goxoa izatea". Betira arte, Guria.

# Iaz baino 40.000 euro gutxiago pasa, dirulaguntzetarako

## Aurtengo dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 20an bukatuko da

**UBANE MADERA** | ARRASATE
Egubakoitzean onartu zuen udal gobernuak 2011ko jardunari dagokion dirulaguntza deialdia. 701.823 euro ditu poltsan herriko elkarteen artean banatzeko; iaz baino 41.744 euro gutxiago.

Eskaerak aurkeztu ahal dira BAZen, Udal Gazte Bulegoan, Emakume Txokoan edo Musakolako kiroldegian. Baita Udalaren webgunean ere: *www.arrasate.mondragon.org*.

Epea, berriz, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu ostean hasi eta maiatzaren 20an amaituko da.

Oro har, 25 programatarako laguntzak banatuko ditu Udalak, hamar sailekin lotura dutenak.

**Kultura, euskara eta beste**

Labur esanda, Udalak dirua emango du kultura ekitaldiak egiteko, gobernuz kanpoko erakundeei euren proiektuetan laguntzeko, erretiratuen elkarteen mantenurako eta elkarteen jarduueretarako, euskara bultzatzen duten elkarteendako, herriko musika taldeendako, kirol elkarteendako, proiektu solidarioak lantzen dituztenendako, hirugarren adinekoen ekintzak egiten laguntzeko, droga-mendekotasunen tratamenduren bat dutenendako edo ikastetxeen ekintzetarako.

Hori bai, dirulaguntzak eskatzeko baldintzetako bat izango da "Arrasaten egoitza eta jardun eremua" izatea. Edo "salbuespen gisa, nahiz eta Arrasaten egoitza ez izan, bere jardun eremua edo jardun eremuaren zati bat Arrasaten garatzea", besteak beste.

**Bi hilabete**

Behin dirulaguntzetarako eskariak jasota, "erabakiak eman eta jakinarazteko gehieneko epea izango da bi hilekoa", udal iturrien arabera.

Bestalde, "dirulaguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu" egin beharko du Udalak.

**DATUA**

**701.000**

EURO

**701.823 euro. Horixe da Arrasateko Udal Gobernuak aurtengo dirulaguntzetarako aurreikusi duen kopurua.**

# Zerrenda berri-berria eta gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituena

## EAJk aurreneko hamar hautagaiak aurkeztu eta programaren nondik norakoak azaldu ditu

**UBANE MADERA** | ARRASATE
Udaleko diru kontuak, herriko aparkaleku arazoa, ospitale berriaren gabeziak eta erakundeen arteko elkarlanaren beharra azpimarratu zituen Juan Karlos Garitano alkategaiak udal hauteskundeetarako hautagaien aurkezpen ekitaldian, joan den eguenean. Herriko politikari begira, esaterako, Udalaren "ideia falta" salatu zuen, aurrekontua 42 milioi eurotik 30era jaitsi dutela eta inbertsioak ere nabarmen jaitsi dituztela: 14 milioitik bi milioi eskasera.

**Aparkalekuak eta ospitalea**

Aparkaleku arazoari dagokionez, berriz, zera salatu zuen: "Laubideko parkinga itxita dago. Zergatik?Aparkalekua ez dagoelako kontrolatua. Jendeak edonon uzten du kotxea,. Hori arautu beharra dago. Ospitale inguruan ere, arazo larria daukagu. Problema aspaldikoa eta asko ari da luzatzen. Aparkaleku probisionala antolatu daiteke baina udalak ez du ezer egiten".

Ospitalean segituz, berriz, salatu zuen esanak esan, azkenean Arrasateko ospitale berriak ez duela UCIrik izango, eta ez dituela, ezta ere, izango aurreikusitako espezialitate guztiak.

Eta bestelakoen artean, elkarlanaren beharra aipatu zuen.

**Aparkalekuak eta ospitalea**

Joseba Egibarrek, GBBko presidenteak, berriz, adierazi zuen, besteak beste,"eskualde honi jauzia eman behar" zaiola, eta EAJren garaia dela.



EAJren aurrenengo hamar hautagaiak, Kulturaten. | UBANE MADERA

### Berrikuntza eta gaztetasuna zerrendan

Hautagai bi izan ezik (Rafa Uribarren eta Amaia Zeziaga), gainerako guztiak berriak dira EAJren udal hauteskundeetarako zerrendan. Hona hemen izen abizenak: Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe, Juan Ramon Mendieta, Amaia Zeziaga, Rafa Uribarren, Amaia Azpiazu, Sara Sagasta, Rafa Garai eta Josune Urresti.

# Arrasateko PPk: elkarbizitzaren aldeko apustua

**U.M.** | ARRASATE
Gaur, apirilaren 18a astelehena da, legez udal hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko azkeneko eguna.

Bada, Arrasateko alderdi popularrak aurreratu ditu Itziar Lamarain Zenitagoia alkategaiari laguntzen joan diren lau hautagaien izenak: bigarren lekuan Gemma Fernandez Muñoz gasteiztarra izendatu dute; hirugarren Javier Cortes Lucena gasteiztarra; Igancio Ansaldo Arbiaenses dator laugarren eta Manuel Arrospide Lopez, berriz, bosgarren.

Data zehaztu barik, baina hautagaien aurkezpena egiteko asmoa duela ere iragarri du Lamarainek.

Eta alderdi popularraren ardatz nagusiei dagokienez, berriz, Itziar Lamarain alkategaiarendako garrantzitsuena herritarren artean "elkarbizitza ona" izatea da.

# Abendutik martxora, 77 langabe gehiago

## Emakumeen artean hazi da gehien: 2010eko abenduan baino 55 gehiago

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE
Urteko lehen hiruhilekoaren langabezia datua eman du Udal Enplegu zerbitzuak: 2011ko martxoan 2010eko abenduan baino 77 langabe gehiago dago Arrasaten (%12,34ko tasa). Datuen jatorria Inemeko Gipuzkoako Zuzendaritza da, eta lan eskatzaile aktiboen datua da. Udalak herriko langabeziaren gaineko txostena ere egin du.

Datuetan eguneraketa bat egon da: orain arte 2001eko zentsoan oinarritutako datuak erabili izan dira, eta orain, 2006ko zentsoan oinarritutakoak darabiltzate. Horrek eragiten du langabezia tasak handiagoak izatea.

**2008ko joerara buelta**

Eustateko datuen arabera, populazio aktiboa 10.735 pertsonakoa da (2001eko zentsoan 11.571) eta horietatik 4.701 emakumezkoak (2001eko zentsoan 4.832) eta 6.034 gizonezkoak dira (2001eko zentsoan 6.739); datu horietan oinarrituta dago langabezia tasa.

Udalak hainbat alderdi nabarmentzen ditu. Hala, sexuen arabera begiratuta, langabeen % 50,33 emakumezkoak dira, eta % 49,66 gizonezkoak; zenbaki absolutuak begiratuta, 2010eko abenduan baino 55 emakume langabe gehiago dago Arrasaten, eta 22 gizonezko langabe gehiago; berriro ere, 2008ko bukaera arteko joerara itzultzen da, hau da, emakumezko langabe kopuru absolutoa gizonezkoa baino handiagoa izatea.

**DBH eta LH1**

Langabezia tasari dagokionez, berriz, orokorra %12,34koa bada, emakumezkoena %14,18koa da, eta gizonezkoena %10,90ekoa.

Adinari dagokionez, 20tik 59 urte arteko tarte guztietan antzeko langabe kopurua erregistratzen da. Eta ikasketen arabera, DBH edo LH1 multzorik handiena izaten jarraitzen dute.

**Zerbitzuak eta industria**

Sektore ekonomikoen arabera, langabe gehien dituztenak zerbitzuen sektorea (712 langabe) eta industria (412 langabe). Udalaren esanetan, "hau ulertzeko kontuan hartu behar da industrian lanean zeuden pertsona asko, lana galdu eta gero, zerbitzu sektorean lana egiteko interesa agertu dutela INEM-en, industrian ez delako kontratazio mugimendurik somatzen".

Maila profesionalari dagokionez, berriz, kualifikaziorik gabeko langileek gehiengoa izaten jarraitzen dute.

**LANGABEZIA**

| SEXUA | TASA |
|---|---|
| **Emakumeak** | %14,18 |
| **Gizonak** | %10,90 |
| **Orokorra** | %12,34 |

*Iturria: Arrasateko Udala

**DATUAK**

**10.735**

LANGABE

**Zerbitzuen sektoreak ditu langabe gehien: 712, guztira. Eta industria sektorea dator ondoren, 412 langabe.**

**712**

UNITATEA

**Zerbitzuen sektoreak ditu langabe gehien: 712, guztira. Eta industria sektorea dator ondoren, 412 langabe.**



Langileendako etxolatxoak eta obretarako bestelako materiala gertu dago, Gazteluondo inguruan. | U.M.

# Gazteluondo inguruko lurrak mugitzen egunotan

## Gazteluondo guneko ikasleen oporrak aprobetxatu gura dituzte lur-mugimendu handienak egiten hasteko

UBANE MADERA | ARRASATE

Kamioiak-eta sartu ahal izateko prestaketa lanak egiten ibili ostean (Telefonicako kablea lur azpian sartzen jardun du Amenabar enpresak), datozen bi asteak aprobetxatuko dituzte Gazteluondotik Arrasate pasealekurainoko gunean lur mugimendurik handienak egiteko. Bestela esanda, Gazteluondo guneko ikastolako umeen oporrak aprobetxatu gura dituzte Gazteluondo eta Arrasate pasealeku arteko pasabide berriari dagozkion lanik handienak ahalik eta eragozpen gutxien eraginda egiteko.

**Zailtasunak eta itoginak**

Behin halako lanak hasita, sei hilabete eta erdian egokituko dituzte Arrasateko pasabide eta parketxo berriak.

120 metro pasako luzera izango du pasabideak, bide bakarra ibilgailuendako eta alde zaharreko kaleen izaera; hau da, ibilgailu zein oinezkoek bat egiten duten gunea izanik, automobilek oso poliki zirkulatu beharko dute, eta errepidearen galtzada berezia izango da.

Parketxoari dagokionez, berriz, abade etxearen ondoan eraikiko dute. Jarlekuak eta iturria izango ditu, besteak beste.

800.000 euro pasako aurrekontua izango du obra horrek. Eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du proiektuaren %65 (463.710,10 euro), Hiriber-Hiriak Berritu izeneko programaren bitartez (E Planaren antzerakoa).

# Bakarkako aitortzak, gurutzebidea-eta, eguenean hasita

## Pazko Hirurena ospatuko dute Arrasateko elizetan eguenetik zapatura

U.M. | ARRASATE

Eguen Santuan hasi eta Zapatu Santura arteko hitzorduak egin dituzte Arrasateko elizetan, kristauendako horren esanguratsuak diren datozen egunei begira.

Eguenean, San Juan parrokian bakarkako aitortzak egingo dituzte, 10:00etatik 12:00ak bitartean. Arratsalde-iluntze partean, berriz, Jaunaren afaria ospatuko dute parrokian (17:00), Kontzezinoko mojetan (18:00), eta San Andres eta Santa Teresako elizetan (19:00). Eta egueneko ekitaldiak bukatzeko, gaueko otoitza egingo dute San Juan parrokian, 22:00etan.

**Gurutze-bide bi**

Egubakoitzari dagokionez, berriz, bi gurutze-bide irudikatuko dituzte. 08:00etan, Portaloitik Santa Barbarainokoa aterako da. Eta 11:00etan, berriz, Uribarrikoa egingo dute.

Goizeko ekitaldiekin segituz, 11:00etarako San Juan parrokian egin dute hitzordua, taldeko aitortza egiteko.

Eta arratsaldeari dagokionez, berriz, Jaunaren nekaldia eta heriotza irudikatuko dute San Juan parrokian eta Kontzezinoko mojetan (17:00etan) eta San Andresko eta Santa Teresako elizetan (19:00etan).

**Pazko gaubeila**

Elizkizunak bukatzeko, Zapatu Santua San Andres elizan hasiko dute, 10:00etan gorespenak eginda. Eta gainontzeko elizetan iluntze-gauerako egin dituzte hitzorduak, Pazkoetako gaubeilak egiteko: Santa Teresako elizan 20:00etan, Kontzezinoko monasterioan 21:00etan eta San Andresko elizan eta San Juan parrokian 22:00etan.

**Garizumaren amaiera**

Datozen egunotako hitzordu horiekin amaituko dute garizuma. Mendebaldeko gizarteak eguzkiari begira egindako egutegia erabiltzen dugu, 12 hilabetekoa. Juduek eta musulmanek, ordea, ilargiaren bueltan egindakoa, 13 hilabetekoa. Horren arabera, udaberriko lehen ilargi betearen hurrengo zapatuak markatzen du Pazko eguna, eta horren aurreko 40 egunak dira garizuma.

**Gillermo Ruiz de Erentxun** | Sendo enpresako teknikaria

# "Nahastu egin da kontua eta nahiko tentsio egon da"

- Inbentarioa ikusteko azken egunak gaur, apirilaren 18a eta apirilaren 20a dira
- Zolatutako 88 bide eta zolatu bako beste 35en gaineko fitxak daude



Guillermo Ruiz de Erentxun. | U.M.

U.M. | ARRASATE

Guillermo Ruiz de Erentxun Sendo ingeniaritza enpresako teknikaria osoko bilkuren aretoan dago egunotan. Arrasateko bide sarearen gaineko inbentarioa egin du Sendok eta apirilaren 20ra arte, oraingo asteko eguaztenera arte kontsulta dezake eta Ruiz de Erentxunen azalpenak hartu interesa duen edozeinek.

**Urte askotako lanen emaitza?**

2006an hasi ginen. Udalaren partetik dagoen asmoa da herriko ondarea berreskuratzea. Gure metodologian erabili dugu kartografia zaharra, artxiboko dokumentazioa, testigantza asko eta bertan lurrean ikusitakoa. Orain, inbentarioa amaitzen dugunean erreminta juridikoa ere izango da ondare hori edozein gatazka edo erabilpenerako.

**Eta ez da izan horren erraza lurjabeekin erabakitzea zer den publikoa eta zer den pribatua, ezta?**

Hala da. Herriaren asmoa izan da galbidean dagoen ondarea berreskuratzea, baina nahastu egin da kontua eta nahiko tentsio egon da. Gu teknikari moduan kanpotik gatoz, metodologia teknikoarekin, eta saiatu gara ondo azaltzen zer den publiko eta zer ez. Askok interpretatu dute euren kalterako dela, eta ez da horrela. Kasu gehienetan bideek gaur arte moduan segituko dute, baina guk argitu behar dugu jabetasuna ea norena den, eta esandakoa, hau metodologia teknikoa da, guk ez dugu ezer asmatu. Hor sortu edo ikusi dugun bide sarea herritik sortutakoa da eta herriarendako izan behar du.

> **"Bideek araututa egon behar dute, inguruko errepideak bezala"**

**Argitu dira tentsio puntuok?**

Gehienetan. Batzuk geratu dira, geu ere zalantzan gaudelako. Gauza asko aldatu dira, ez dago dokumentazio nabarmenik... Azken batean, mendetan sortutako bide sarea da eta iraultza izan da azken 50 urteotan, eta mentalitateak ez du onartzen lehen pribilegio zena orain kalterako izatea.

**Zein zentzutan?**

Adibide zehatz bat: lehen, baserri atetik bidea pasatzea zen pribilegioa. Hori boteretsuek bakarrik lortzen zuten. Gaur egun, berriz, kalterako da, intimitate kontuengatik. Hor argi ikusten da mentalitatean izan den aldaketa, baina guri hori berdin zaigu. Lehen bidea zegoen eta orain ere bai. Beste kontu bat da bide horiek zela erabiltzen diren. Baina lehenengo jakin beharko dugu zer dagoen. Gero, gainera, posible da permuta bidez bideen jabetza aldatzea.

**Beraz, ez da amaitzen kontua?**

Ez; hemendik aurrera edozeinek du aukera ikerketa espedientea zabaltzeko edozein bideren gainean.

# Teknologia berriak landa eremuan txertatzeko

GOIENA | ARRASATE

Landa eremuan informazio eta komunikazio teknologiak txertatzeko, Dinamiza-TICen barruan ikastaroa antolatu dute Bedoña auzoan.

Hastapen ikastaroa izango da, 60 ordukoa, eta ordenagailuaren oinarrizko ezagupena, Interneten nabigatzea eta Word aplikazioa erabiltzen ikastea izango dira oinarriak. Izena maiatzaren 4a baino lehen eman behar da.

Bedoña auzoko lokalean egingo da, maiatzaren 9an hasi eta ekainaren 16ra bitartean.

Astelehenetik eguenera bi ordu eta erdiko saioak egiteko asmoa dute. Informazio gehiago behar izanez gero, edo izena emateko: 943 76 25 47 telefonoa eta *mkdebagaraia@euskalnet.net*.

# Pazkoak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 2a izango da eta Bergaran erroldatutako edozein pertsonak parte har dezake

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Pazkoetako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Lehiaketan parte har dezake Bergaran erroldatutako edozein pertsonak.

Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izango dute eta formatua, berriz, bertikala. Bestalde, paperean inprimatuta eta kartoizko euskarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala cd informatiko baten ere aurkeztu beharko da.

Kartelaren teknikari dagokionez, librea izango da, baina ondorengo testua eroan beharko dute nahitaez: *Pentekoste jaiak 2011, Bergara*.

Lehiaketara aurkeztutako lanek originalak izan beharko dute, eta beste lehiaketa baten inoiz saritu gabeak. Udalak plagioa egon delako zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari.

Lehiaketaren irabazleak 600 euro eskuratuko ditu, baina saria eman gabe ere geldi daitekeela aurreratu dute, epaimahaiak gutxieneko kalitaterik ez dagoela uste badu.

**Lanak aurkezteko modua**

Lanak aurkezteko orduan, kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer edukiko. Atzeko aldean lelo bat dutela aurkeztuko dira, gutunazal itxi batean eta leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira.

Lanak aurkeztuko dira kultura etxean maiatzaren 2ko 13:00ak baino lehen. Bestalde, epaimahaiak hartutako erabakia aldaezina izango da. Saritutako lanaz Udala jabetuko da eta argitaratzeko, eraldatzeko, zabaltzeko... eskubidea izango du.



GOIENA

## Erabilgarri dago umeen liburutegi berritua

Eguenean inauguratu zuten kultura etxeko behe solairuan egokitu duten umeen liburutegia. Amaia Arriaran ipuin kontalariak inauguratu zuen, hainbat umeren aurrean egindako bi emanaldirekin. 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik umeen liburutegia, orain arte erakusketa areto moduan erabili izan den gelan. Ordutegi horretatik kanpora umeendako ipuinak maileguan hartu eta kontsultak egin nahi izanez gero, liburutegi nagusiko bulegoan emango dute zerbitzu hori.

## Xabalote izena jarri diote gaztelekuari

Udalak lehiaketa egin du gaztelekuaren izena eta irudia erabakitzeko eta David Alcarazek egindako proposamena izan da irabazlea. Hala, Xabalote deituko da gaztelekua eta saguzarra izango da haren irudia. Alcaraz 26 urteko Bergarako gazteak Netbook–a (ordenagailu eramangarri txikia) jaso du sari moduan. Ondoko irudian David Alcaraz Agurne Barruso alkatearekin ageri da, udaletxean, lehiaketako irabazleak marraztutako saguzarraren irudia eskuan dutela.



GOIENA

Pedro Alberdi | EHNEko kidea

# "Maiatzean barazki otarrearekin hasiko gara kontsumo taldean"

Oraingoz, 25 familiak hartuko dute parte taldean, eta bost ekoizlek; baina handituz joango da



Pedro Alberdi. | ARANTZAZU EZKIBEL

M.B. | BERGARA

Udalak azoka dinamizatzeko plangintza martxan dago eta horretan buru-belarri dihardu Pedro Alberdik. Azokari bultzada emateko ekimenaren barruan, inkesta egin berri dute herritarren artean, eta kontsumo taldea sortu dute.

**Nola doa kontsumo taldea?**

Oraingoz, 25 familia ditugu, eta bost ekoizle. Ekoizleetako bi barazkienak dira, beste batek ogia egiten du, beste batek txekor okela eta bosgarrenak sagardo eta fruitu lehorrak ekoizten ditu. Barazkia duenetako batek arkumea ere badu, nahiz eta dagoeneko sasoia bukatzen ari den.

**Eta dagoeneko hasi zarete otarreak saltzen?**

Otsail-martxoan ekin genion kontsumo taldeari eta oraindik ere bi barazki ekoizleak planifikatzen ari dira. Justu orain, apirila eta maiatza, hilabeterik txarrenak dira barazkiendako, negukoa bukatu eta udaberriko heltzeke dagoelako.

Horrekin, ogiarekin hasita gaude, eguenero jasotzen dugu ogia eta asmoa da, maiatz erdi edo bukaera aldera barazki otarrarekin hastea.

**Postua eskatu duzue azokan. Zertarako?**

Gaur egun banaketa egiten dugu azoka kanpoan, baina asmoa da barruan egitea banaketa hori. Erosoago izateaz gain, azokari bultzada ere eman nahi diogulako.

**25 familiak eman du izena, oraingoz. Taldea hazi egingo dela uste duzu?**

Egin berri ditugu inkesta batzuk herrian, eta beste 20 bat familiak interesa erakutsi du. Kontua da, hala ere, orain momentuan ekoizpena mugatuta dagoela eta dauden ekoizleek ezin dutela eskari gehiago hartu. Hori horrela, gure asmoa da ekoizle gehiago animatzea. Beste batek ere eman digu baiezkoa, baina irailera arte ezingo da hasi.

Asmoa da inkestetan kontsumo taldean parte hartzeko interesa erakutsi duen jendearekin, zein bestela ere interesa izan dezaketen guztiekin, batzar bat egitea, maiatzean. Kontsumo taldea zer den, nola funtzionatzen duen... azalduko dugu eta itxaron zerrenda bat ere osatuko dugu.

**Azoka dinamizatzeko ahaleginean ere badiharduzue. Aipatu dituzun inkestak zeregin horren barruan egin dituzue.**

Bai. Proiektuak bi helburu izan ditu hasieratik. Alde batetik kontsumo taldea martxan jartzea. Bestetik, azoka dinamizatu nahi da, azokaren erabilera aztertuz eta hori biziberritzeko proposamenak eratuz.

Zenbait proposamen inkesta bidez jaso nahi izan ditugu eta herritarrek egindako hainbat ekarpen jaso ditugu modu horretan.

Pozik gaude jasotako emaitzarekin; 100 bat inkesta jaso ditugu eta erantzunak askotarikoak izan dira. Batzuek kontsumo taldeen gaineko interesa erakutsi dute; beste batzuek, azokaren gainean...

**Eta ekarpen nagusiak zein izan dira?**

Azokari dagokionez, hura ezagutzera emateko beharraren eta dinamizatzeko beharraren gainekoak, lagata ikusten dutelako. Azokan postu asko libre daudela eta haiek hartzeko diru laguntzak ematea ere iradoki dute. Baserritar gazteei azokara joateko laguntzak ematea ere sujeritu du hainbatek. Batek baino gehiagok azokan esne makina noiz jarriko den ere galdetu du.

Egia esan, oso interesgarriak izan dira jasotako emaitzak.

**Eta zein dira, herritarren ustez, azokaren ahuleziak?**

Inkestak jaso berri ditugu eta oraindik sakon aztertu ez baditut ere, batik bat sumatu dut ohitura falta handia dagoela azokara joateko eta supermerkatu handiek ere ez diotela onik egin.

**"Kontsumo taldean parte hartzeko dei egingo dugu maiatzean"**

**"Azokara joateko ohitura falta handia sumatu dut inkestetan"**



Iazko UEMA egunean egindako herri bazkariko irudi bat, Mallabian.

# UEMAren eguna Bergaran aurten, ekainaren 4an

## Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna Mallabian izan zen iaz; Gipuzkoako 33 herri dira UEMAn

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna Bergaran ospatuko da datorren ekainaren 4an, Pazkoen atarian hain zuzen. Ospakizunetarako eguna izateaz gain, aldarrikapenetarako eguna ere bada, hegoaldean zein iparraldean. Debagoienean Aramaion bakarrik ospatu da orain arte eta azken urteotan, besteak beste, Lizartza, Oiartzun, Arbizu, Bermeo, Lekeitio, Maule, Alegian, Azpeitia edo Berak jaso dute UEMAren eguna. Iaz Mallabian ospatu zuten, ekainaren 12an, eta mahai-inguruak, hizkuntza eskubideen inguruko tailerrak, bazkari herrikoia edota dantzak eta jolasak prestatu zituzten antolatzaileek.

Udalerri euskaldunen mugimendua 1988an abiatu zuten, Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenari erantzunez, hainbat udalek Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Araudia onartu zutenean. Udalerrian euskaraz bizi ahal izateko bitartekoak adostu zituzten.

Gipuzkoari dagokionez, 33 udalerri dira gaur UEMAren barruan. Debagoieneko kasuan, Antzuola, Elgeta eta Bergara eta Aramaio (Arabako herri bakarra hain zuzen). Euskal Herriko zazpi probintzietako udalerriak daude integratuta.

### Prestaketa lanetan

Udaleko euskara batzordea hasi da egitaraua prestatzen eta hain zuzen ere horren gaineko bilera egin zuten joan den martitzenean udaletxean.

# Ander Estella farmazialari bergararraren tesia, 'cum laude'

**E.M.** | BERGARA

Ander Estellaren tesiak *cum laude* izendapena jaso du berri du. Ikertzaile bergararra 2005eko urritik jardun du tesiarekin, eta Maria Blanco doktorea izan du tesi-tutorea. Iruñean Farmazia ikasketak egin ondoren, sei hilabete egin zituen Londresko ospitale baten, eta bueltan, tesia hasi zuen Farmazia Teknologia Departamentuan. Europar doktoretza egin zuenez, ingelesez aurkeztu du tesia, *Nanosystems for the oral administration of alkyl-lysophospholipid anti-tumor agents: Development of lipid nanotransporters and preclinical studies* izenburupean.

Minbiziaren aurkako tratamendu berriei buruzko ikerkuntzatan murgilduta dago Ander Estella: "Estatu mailan ikerkuntza egiteko zailtasun ugari daude; horregatik, AEBetara pare bat urterako joateko asmoa daukat, nanoteknologia eta ehun ingeniaritza teknikak hobetzeko ideiarekin. Gero, ikusiko dut bueltatzen naizen...", diosku.



Ander Estella ikertzailea da Nafarroako Unibertsitatean. | GOIENA

# Abiadura murrizteko eta zirkulazioa erregulatzeko semaforoak Uberan

## Sestra Ingeniaritza enpresak proiektua aurkeztuko du datozen egunotan

**E.M.** | BERGARA

Diputazioko Bide Azpiegiturako Departamentuak semaforoak jarriko ditu Uberan, GI-2632 errepidean, autoen abiadura murriztu eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko helburuarekin. Semaforoen bidez, bide bakarreko zirkulazioa izango da kalean, garai baten Soraluzen egiten zuten moduan. Sestra Ingeniaritza enpresak Aste Santu aurretik proiektua aurkezteko konpromisoa hartu zuen.

### Hoditeria ere bai

Bestetik, ura, gasa eta ur zikinen hoditeria jartzeko asmoa dauka Udalak, eta bi proiektuak uztartu nahi dituzte Diputazioak eta Udalak. Urkuluko ura Uberako kaleraino da, baina etxe guztietara bideratzea falta da. Hala ere, uste baino handiagoa da hoditeria lanen aurrekontua: 400.000 euro inguru.



Uberan oinezkoen segurtasuna bermatzea da helburua. | JOSETXO ARANTZABAL

# Udaleku musikalak gaztetxoendako udan

**E.M.** | BERGARA

Bergarako Musika Eskolak udaleku musikalak iragarri ditu udarako. Hain zuzen, ekainaren 27tik uztailaren 8ra izango dira. Helburuak honako hauek dira: musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizi izatea; jolasen bidez musikaz disfrutatzea; eta giro ludiko eta goxoa sortzea. Erritmoa, melodia, dantza, musika tresnen tailerra, antzerkia eta koreografia landuko dituen metodo dibertigarria landuko dute gaztetxoek. 1998tik 2006ra bitartean jaiotakoei zuzenduta daude eta adinaren arabera taldeak egingo dituzte.

Izenematea Bergarako Musika Eskolan egin daiteke. Argibideak, 943 76 57 80 telefono zenbakian.

## OHARRAK

**BEART: AKUARELA IKASTAROA**

Beart elkarteak akuarela tailerra iragarri du maiatzaren 7rako eta 8rako. 12 orduko ikastaroa eskainiko du Armando Juez San Salvador akuarelistak zapatuan eta domekan: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Bearteko bazkide ez direnendako prezioa 125 euro da. Argibideak: *beart.elkartea@gmail.com*.

**BILDUREN AURKEZPENA**

Bergarako Bilduk udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda eta programaren aurkezpen ekitaldia egingo du bihar, apirilak 19, Irizar jauregian, 19:00etan

**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAKO LANAK**

Maiatzaren 6ra arte dago zabalik Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak entregatzeko epea. Oinarriak eta arlo ezberdinen gaineko xehetasunak *www.bergara.net* webgunean eskuragarri daude.



Fermin Altube, liburuarekin, Arantzazuko fraideen etxean. | JULEN IRIONDO

# Bidaurretaren babesean sortutako kofradia gogoan

## Fermin Altube frantziskotarraren liburua salgai dago bost eurotan

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Fermin Altube frantziskotarrak *Cofradia de la Vera Cruz, Oñati 1541-2010* delako liburua idatzi du. 80 orrialdetan zehar Vera Cruz kofradiaren historia biltzen du. Liburua espainolez idatzi du, kofradiaren dokumentazio guztia hizkuntza horretan zegoelako. Dagoeneko salgai ipini dute bost eurotan: Arantzazun eta herriko liburu-dendetan eros daiteke.

**Presentzia handia Oñatin**

Oñatin ia bost mendetan zehar pisu eta presentzia handia izan zuen Vera Cruz kofradiak. "Hainbat etapa izan zituen kofradiak, eta, horiek guztiak kontutan hartuta, 10.500 bat izen daude. Akta -liburuak begiratuz gero ikusten da zer-nolako garrantzia izan zuen gurean", esan digu Fermin Altubek.

Vera Cruz kofradia Bidaurretako monasterioaren babesean sortu zen 1541eko apirilaren 14an, eta lotura estua izan zuen klaratarren komunitatearekin. "Bidaurretako mojen komunitatearen 500. urteurrena aprobetxatu gura izan dut liburua idazteko. Eurendako oparia izan da", esan digu egileak.

**Eguen Santuko prozesioa**

Vera Cruz kofradia Jesukristo gurutziltzatuaren omenez sortutakoa da. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen zituzten, baina euren jardun nagusia Aste Santuan egiten zuten; batez ere, Eguen Santu eguneko prozesioan.

Kofradiaren jarduna aprobetxatuz XVI. mende hasierako Aste Santuko ospakizunak nolakoak ziren kontatzen du.

# Korrikaren eta euskalakarien omenezko artelanak egin zituzten Elkar Hezikoek

## DBHko eta Batxilergoko ikasleek hiru artelan egin zituzten, eta Korrikaren ibilbidean ipini

**M.B.** | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek omenaldi berezia egin zieten Korrikari eta euskalakariei. Garaion Naturartea elkartekoekin artelanak egin zituzten, eta Korrikak Oñatin egin zuen ibilbidean ipini zituzten.

Hiru artelan egin zituzten, eta guztietan Korrikarekin zerikusia duten elementuak egin zituzten.

Ikastetxe aurrean, Santa Marina plazan ipini zuten lehena. DBHko 4. mailako 16 ikaslek egin zuten. Lurrean lauburu erraldoia egin zuten eta alboan, bolumena zuen txoria. Mokoan Korrikaren lekukoa zeraman.

**"Pausoz, pauso..."**

Bigarren taldean DBH 4. mailako 15 ikasle batu ziren. Ona tabernaren aurreko plazatxoan elkartu eta Korrikaren lekuko erraldoia egin zuten. Lekukoari eusten behatz batzuk ipini zituzten.

Azkenik, hirugarren taldea Otadui zuhaiztian batu zen. Ikasle zaharrenek, Batxilergoko lehenengo mailakoek, Korrikaren kantuaren hitzetako batzuk irudikatu zituzten: *"Pausoz, pauso gelditu barik, pausoz pauso, euskalakari..."*. Bi zapatila handi egin zituzten, pausoak irudikatzeko, eta ondoan euskalakari bat zintzilikatu zuten zuhaitz batean. Korrika egiteko gonbita egin zieten Kasablankan behera joadako korrikalariei.

**Naturarekin jolasean**

Garaion Naturartea ekimenaren helburua da auzolana, sormena, artea eta iraunkortasuna lantzea. Naturak emandako elementuekin artelanak egin daitezkeela erakutsi dute. Artelanak egin aurretik prestaketa saioak egin zituzten eskolan. Emaitzak eguenean, hilaren 14an erakutsi zituzten.

Elkar Hezikoak izan dira Garaion elkartearekin jardun duten herriko azken ikasleak. Aurretik euren artelanak egin zituzten Zuazola institutuko eta Txantxiku ikastolako DBHko eta Batxilergoko ikasleek.



Egindako artelanetako bat: euskalakaria. | MIREIA BIKUÑA

# Udaberriko tenis txapelketarako izenematea

**M.B.** | OÑATI

Maiatzaren 7an hasiko dute udaberriko tenis txapelketa, eta dagoeneko zabalik dute izenematea, hilaren 20ra arte. Interesatuek bi bide dituzte: *zubikoa@oinati.net* helbidean eta 943 71 63 75 telefonoan. Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnak 18 euro.

Txapelketak bi fase izango ditu: lehena ligaxka modura jokatuko da eta bigarrena, kanporaketa moduan. Partiduak zapatuan jokatuko dituzte, hiru setera.

# Erditu ondorenerako formazioa

**M.B.** | OÑATI

Bizikasik erditu ondorenerako formazio ikastaroa egingo du familiendako Oñatiko anbulatorioan. Hiru saio egingo dituzte: maiatzaren 3an eta 17an lehenengo biak; eta hirugarrena familiekin adostuko dute. Ordu eta erdiko saioak egingo dituzte, 11:00etatik 12:30era arte. Interesatuek izena eman beharko dute 943 76 93 93 telefonoan edo *info@bizikasi.com* helbidean, edo Gizarte Zerbitzuetan.

Edonork parte har dezake ikastaroan, baina oñatiarrek lehentasuna izango dute.



MIREIA BIKIUÑA

# Aparkaleku bereziak zapaturako

Plazako aparkalekuan leku batzuk hori kolorez margotu dituzte. Horiek libre utzi beharko dira zapatuetan, merkatu plazara doazen furgoneta eta kamioiendako. Hori horrela, astelehenetik egubakoitzera autoak utzi ahalko dira leku horietan, baina zapatuetan libre egon beharko dute. Laster ipiniko dituzte ordutegien gaineko seinaleak merkatu plazaren inguruan.

ARETXABALETA




Belorrieta auzoan dagoen haur eskola. | M.A.

# Haur eskola zerbitzuaren lehiaketa deia egin du Udalak

Oinarrietan aldaketa batzuk egin dituzte; besteak beste, 12 urtera arte luzatzea kudeaketaren ardura eta diru kopurua 78.000 eurora igotzea

**M.A.** | ARETXABALETA

Haur eskola zerbitzua lehiaketara deitzea erabaki du Udalak, orain arte zerbitzuaz arduratzen den Pausoka kooperatibak hala eskatuta. Joan den asteleheneko osoko bilkuran onartu zituen oinarri berriak udalbatzak, eta egubakoitzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu deia.

**Azken eguna: hilaren 30a**

Orain arte lau urterako sinatu izan du zerbitzuaren kudeaketa Udalak, baina hori aldatu eta beste hobekuntza batzuk eskatuz kontratuari bukaera eman gura izan dio Pausokak. Oinarrietan egin dituzten aldaketarik garrantzitsuenak bi dira: zerbitzua 4 urterako beharrean 12rako izatea eta 29.000 eurotik 78.000 eurora igotzea ardura horregatik jasotzen den diru kopurua.

Baloratzeko orduan puntuazioaren %55 objektiboa izango da, hau da, prezioa; eta gainerako %45a, subjektiboa: memoria, zerbitzuaren hobekuntzak… Irizpide subjektibo horiek erakunde publiko batek baloratuko dituela jakinarazi du Udalak.

Argibide gehiago gura dituenak udaletxera jo dezala edo webgunean begiratu –*www.aretxabaleta.com*–. Eskaintzak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a da.

## Zorione Jausoro berriro bake epailea

**Osoko bilkuran, gainera, datozen lau urteotarako bake epailea proposatu zuen udalbatzak, gero Bilboko Auzitegi Nazionalak izendatzeko. Zorione Jausoro da hura, azken lau urteotan egon dena, eta haren ordezkoa Olatz Bengoa izango da.**

**Hauteskunde mahaietan egon beharko duten herritarren hautaketa, ostera, hilaren 26ko osoko bilkuran egingo dute.**

# Argazkiendako markoak eta taloak egingo dituzte egunotan ludotekan

**M.A.** | ARETXABALETA

Ikastetxeetako umeak oporretan dira dagoeneko, baina Algara ludotekan oraindik ez dute jairik hartu. Hala, ekintza bereziak egingo dituzte bi egunotan.

**Nagusienek, taloak bihar**

Gaur, astelehena, argazkiendako markoak egingo dituzte. Bi taldetan banatuko dira umeak, elkarri trabarik ez egiteko: lehenengo, txikienak, hau da, 3 eta 7 urte bitartekoak (17:00-18:00); eta gero, nagusiak, 8 eta 12 urte artekoak (18:00-19:00). Egingo duten marko horrendako umeek argazkia eroan dezatela eskatu dute antolatzaileek, 10x15 tamainakoa.

Eta bihar, martitzena, taloak egiten ikasiko dute nagusienek, 7 eta 12 urte artekoek. Goizean da talogileen tailerra (11:00-13:00), eta gaztelekura joango dira. Arkupen dagoen Atxagazte gaztelekuko sukaldea erabiliko dute taloak egiteko. Ikasleek ez dute ezer eraman beharrik, "gosea bakarrik", antolatzaileen esanetan.

**Gaztelekukoak Elantxobera**

Atxagazte gaztelekua, ostera, itxita egongo da Aste Santuko jaiegunetan. Eta Pazko astean, hilaren 28an, 29an eta 30ean, Elantxobera (Bizkaia) joateko asmoa daukate.

## Bildu alderdikoak Basotxora doaz bihar galderak erantzutera

Basotxok antolatutako elkarrizketa mahaien barruan, Bildu alderdiko kideak joango dira bihar, martitzena, aurrez bidalitako galderak erantzutera (18:00). Aurretik EAJko arduradunak egon dira Basotxon.

Entzun beharrekoak entzunda elkarrizketa mahaiak osatuko dituzte erretiratuek, eztabaidari tartea eginda.

## Etxean bizi diren adinekoendako udako egonaldiak antolatzen dabiltza eta eskaera epea zabalik dago

Adinekoendako udako egonaldiak antolatzen hasita daude Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak eta eskaerak egiteko epea zabaldu dute. Hiru hilabetetan banatu dituzte aldi baterako egonaldiok eta izena emateko epea ere horren araberakoa da: uztaileko egonaldirako, maiatzaren 16an bukatuko da eskaera epea; abuztuko egonaldirako, maiatzaren 27an; eta iraileko egonaldirako, ekainaren 10ean. Argibide gehiago gura dituztenek, edo izena eman, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara jo dezatela.

Plazak hilabete osorako edo hamabost egunerako izan daitezke eta izendatzeko honako irizpideak erabiliko dituzte: aldi bateko egonaldien gizarte baremoa; eta mendekotasun maila. Aldundiaren asmoa da eskaera guztiak onartzea.

ESKORIATZA

# Palestinako Gazako zerrendako herritarrekin bat egin du udalbatzak 'Rumbo a Gaza' egitasmoaren mozioa onartuta

Hartutako konpromisoen artean dago 40 zaku zementu erostea Gazako zerrendara eramateko

**MIRARI ALTUBE** | ESKORIATZA

Palestinako Gazako lur zerrendari laguntzea helburu duen *Rumbo a Gaza* izeneko egitasmoak aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak, gehiengoz, martxoko ohiko osoko bilkuran. Gazako zerrenda horretako herritarrek bizi duten eguneroko egoera latza salatu eta, era berean, haien aldeko konpromisoak hartu zituzten mozio horrekin.

**Hezkuntzari lagundu**

Alderdi Sozialistako eta Elizateetako zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan; udalbatzako gainerako kideak, ostera, alde agertu ziren. Hala, bada, honako konpromisoak hartu zituen Udalak *Rumbo a Gaza* taldearen bitartez Gazako herritarrei laguntzeko:

Gazan ezarrita duten blokeoa gaitzetsi eta berehala eta behin betiko deuseztatzeko eskatu; 40 zaku zementu erosi, Gaza berreraikitzen laguntzeko; *itsas milia* bat deritzon bonua erosi, *Rumbo a Gaza*-koek itsasontziak erosi eta egokitzeko; abian daukaten *Koaderno bat, lapitz bat eta euro bat* hezkuntzaren aldeko kanpainarekin bat egin, bertako umeei oinarrizko eskola materiala eramateko; eta Espainiako Gobernuari eskatu adierazpen hori Israelgo instituzio eskudunei jakinarazteko.



M.A.

## Arbiñoste kalea zabalik dago

**Deba ibaiaren beste aldean dagoen Arbiñoste kaleko etxebizitzak eraikitzeko lanak bukatu dituzte, eta, azkenean, kalea zabalik dago, bai jendearentzako, bai ibilgailuentzako. Norabide bakarra du kaleak, eta espaloi handia; hala, bada, oso txukun utzi dute Deba ibaiaren ertzetik paseatzeko. Gainera, 21 aparkaleku egin dituzte ibilgailuendako, herriko aparkaleku arazoa arintzeko asmoarekin.**

## Batukada taldea osatu gura dute Eskoriatzan eta eguaztenean da batzarra

**M.A.** | ESKORIATZA

Batukada talde bat eratzeko gogoa dute eskoriatzar batzuek eta egitasmo horretan parte hartzeko gertu dauden gainerako herritarrei batzarrerako dei egin diete. Eguaztenean, hilak 20, elkartuko dira, Herriko Plazan (21:00); argibide gehiago jaso gura dutenak ager daitezela bertan.

**Ezer jakin beharrik ez**

Eskoriatzako batukada taldea sortu gura dutenen asmoa da, hasiera baten behintzat, San Pedro jaietan irtetea herriko bazterrak girotzera.

Era berean, jakinarazi dute ez dagoela aurrez ezer jotzen jakin beharrik; hala, bada, parte hartzeko gogoa besterik ez dute eskatzen deitzaileek.



Eguaztenean egindako ohiko osoko bilkura. | USOA AGIRRE

ANTZUOLA

# 2011rako udal-aurrekontuaren onarpena atzeratua, ezadostasun baten ondorioz

## Foru Aldunditik BEZarekin berreskuratutako dirua (600.000 euro) amortizatu edo inbertsioetarako erabili izan zen eztabaidatu zutena

**U. AGIRRE / T. MADINA** | ANTZUOLA

Joan den eguaztenean Antzuolan egindako oso bilkuran zen onartzekoa 2011rako udal-aurrekontua. Azkenean, baina, zor publikoaren inguruan sortu ziren zalantza eta desadostasunak direla eta, mahai gainean geratu zen aurrekontua eta ez zuten bozkatu. Ezohiko batzar orokorra deituko dute aurrerago aurrekontuei hasierako onarpena emateko.

2.700.000 euroko mailegua eskatu zuen Antzuolako Udalak 2009an, garai hartan egin ziren inbertsioei aurre egiteko (Torresoroa, Lizarraga hiribideko lanak,...). Lan horien BEZa eskuratzeko Torresoroa, gaztetxokoa, gimnasioa... Antzuolako Udal Etxegintzaren izenean jarri ziren eta Foru Aldunditik 600.000 euro berreskuratu dira BEZaren itzulpenarekin. Bi urteko karentzia du mailegu horrek (orain arte interesak ordaintzen bakarrik egon dira), eta uztailean hasiko lirateke interesak eta amortizazioa ordaintzen.

Bada, horixe da erabaki gabe geratu zena: BEZarekin berreskuratutako diru horrekin mailegua amortizatu (2.100.000 eurotan geratuko litzateke) edo inbertsioetarako erabili diru kopuru hori.

### Inbertsio nabarmenik ez

Landutako aurrekontuari berari dagokionez, Pedro Iturbe alkateak azaldu zuen herri eskolan igogailua jartzea dela inbertsio garrantzitsuenetakoa, eta baserriko ur sarearen lanei ere bultzada bat eman gura dietela. Dena den, aurreratu zuen egungo egoera ekonomikoaren ondorioz, ez dela inbertsio nabarmenik egingo aurten.

Beste hainbat puntu ere onartu ziren eguazteneko osoko bilkuran: Antzuolako armarrirako ideia lehiaketa egitea eta baita zaborraren harira Usurbilgo Itunari babesa emateko mozioa ere.

### Armarriaren ideia lehiaketa

Antzuolako etorkizuneko armarria edo sinboloa lantzeko ideia lehiaketan edozeinek parte hartu ahal izango du eta saria 800 eurokoa izango da. Kudeatuz prozesuan lehenetsitako baloreak hartu beharko dira kontuan armarria lantzeko: euskara, antzuolartasuna, alardea, herri sentimendua, elkartasuna, boluntariotza, gertutasuna, ekintzaileetasuna, herriko jaiak, solidaritatea, herri langilea, natura, generazio arteko gertutasuna, sorgin dantza, ohitura zaharrak, makila txiki dantza.

ELGETA

# 'Elgeta berreraikitzen' erakusketa maiatzaren 2ra arte Espaloian

## Eguenean inauguratu zuten argazki berriak eta azken aurkikuntzak jasotzen dituen erakusketa

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultura elkarteko kideek eguenean inauguratu zuten Espaloian *Elgeta berreraikitzen* erakusketa. Hain zuzen ere, Bide Ertzean taldeko hiru kide, herriko musika ikasleak, udal ordezkariak eta aurkikuntzen arduradunak izan ziren irekiera ekitaldian.

Dozena bat paneletan banatuta, gerra aurreko, bonbardaketa egunetako eta Elgetaren berreraikitze lanen inguruko argazkiak eta dokumentuak daude bertan. Elgeta txikituta geldi-tu zen eta eremu suntsitua izendatu zuen Francoren erregimenak. "Bonbardaketa 1937ko apirilean izan zen eta berreraikitze lanak ez ziren 1942ra arte hasi. Erregimenak eliza berreraiki zuen lehenengo eta udaletxea ondoren", adierazi zuen Intxorta 1937 kultura elkarteko kide Juan Ramon Garaik.

### Ozkarbi eguna

Ozkarbi elkartean, bestetik, hasita daude Ozkarbi eguna gertatzen. Apirilaren 30ean ospatuko dute, eta aurten, berrikuntza moduan, afaria egingo dute bazkaria egin ordez.

Elkarteko bazkide guztiak daude ekitaldietan parte hartzera gonbidatuta eta zabalik dago apirilaren 26ra bitartean izena emateko aukera.

ARAMAIO

# Haur gutxi oraindik eta zortzi begirale oraingoz uztaileko udalekuetarako

## Gehienek azken ordura arte itxaroten dute izena emateko; azken eguna maiatzaren 6a da

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Uztailaren 6tik 19ra –bi egunak barne– egingo diren 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako udaleku irekietarako izenematea hil hasieran zabaldu zuen Udalak. Bada, oraindik ume gutxik eman dute izena: "Haurrek eskolatik eraman zuten oharra etxera eta gurasoak jakinaren gainean daude. Hala ere, azken urteetako joera bera da aurten: gehienek azken ordura arte itxaroten dute", adierazi du Rosa Mondragon Udaleko Euskara teknikariak.

Maiatzaren 6a da izena emateko azken eguna, baina epez kanpoko eskaerak ere onartu izan dituzte: "Jendea erlaxatu egiten da, badakielako eskaerak epez kanpo ere onartzen ditugula". Izena emateko, haurraren datuez osatutako izenemate-orria eta Udalak Euskadiko Kutxan edo Vital Kutxan duen kontu korrontean 36 euro sartu izanaren ordainagiria aurkeztu behar dira udaletxean.

### Begiraleek, 17 urte gutxienez

Zortzi begiralek eman dute izena, oraingoz, ludotekako Ana Muñoaren esanetan. Begirale titulua izatea, EGA izatea eta Aramaiokoa izatea hartuko dute kontuan, eta 17 urte izatea derrigorrezkoa da. Gainera, derrigorrez joan behar dute formazio saio berezira maiatzaren 28an. Izena emateko azken eguna maiatzaren 6a da –Ana Muñoa, 945 44 53 74.



San Martin eskolako parkean hainbat ekintza egin zituzten iaz. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

# Aste Santuko jaiegunetan itxita egongo da museoa

## Labidea dendan jaiegunetako ordutegia izango dute Aste Santuan eta ohikoa Pazko astean

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Urtero legez, Aste Santuko jaiegunetan itxita egongo da gatz museoa. Bestalde, Pazko astean, hilaren 26tik 30era bitartean, zabaldu egingo dute, baina aurrez hitzordua eginda duten taldeendako bakarrik. Hala, bada, aurretik zehaztutako orduetan bakarrik egingo dituzte bisita gidatu horiek.

Aitziber Gorosabel museoko arduradunak jakinarazi du oraingoz ez dutela inorekin hitzordurik eginda; hala ere, urtero legez, talderen bat edo beste Gatzagako paraje dotoreak ezagutzera hurreratuko delakoan dago. Gainera, museoko bisitarekin batera Dorletako santutegi inguruak eta herriko txokorik esanguratsuenak ezagutzeko aukera eskaintzen diete bisitariei.

Labidea turismo bulego eta dendan ere ez da egongo aldaketarik egunotan. Aste Santuko jaiegunetako ordutegia domeketakoa izango da; hau da, 10:00etan zabalduko dute. Eta aste egunetan, 09:00etan.

### Jardunaldietan Soran

Aurrez aurre diren jaiegunotan Gatzagara bisitari asko hurbiltzea gurako lukete ostalaritza zerbitzuetako arduradunek. Hain zuzen, ostalaritza bultzatzeko Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako VII. Jardunaldi gastronomikoetan hartu du parte Soran Etxeak. Orain arte egindako jardunaldi guztietan izan da Soran eta halakoetan parte hartzearen alde azaldu da beti. Azken jardunaldiok atzo, domeka, bukatu zitutzten.


Bakearen aldeko kontzertua
ARANTZAZUKO SANTUTEGIA
LARUNBATA, APIRILAREN 30 EAN, 12:00 ETAN
Haurren lau koruk oso abesti ezagunak abestuko dituzte bakearen alde
Easo Eskolania (Donostia)
Donostiako Orfeoi Txikia
Bilboko Kontserbatorioko korua
Amici Musicae haurren korua (Zaragoza)
300 haur kantari
Sarrerak salgai:
· Servikutxa eta Kutxaren kutxazainetan
· Arantzazuko dendan
· Oñatin kultura etxean eta Turismo Bulegoan
Sarreraren prezioa:
15 €
Sarrera salmenta - Venta de entradas
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net
Azken eguna: apirilak 19!
goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
bazkideendako 100 sarrera doan*
Deitu: 943 25 05 05
*Pertsona bakoitzeko bi sarrera.
Sarrerak agortu arte. Sarrerak jasotzeko azken eguna: apirilak 19
Babesleak:
gizarte kutxa
ULMA
SAN SEBASTIAN
FAGOR
FAGOR INDUSTRIAL
IRIZAR
Antolatzailea:
IPD MANAGEMENT
Laguntzailea:
OÑATIKO UDALA
Hedabide laguntzailea:
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

# KIROLA



Txantxikuarrak eta mahoneroak nor baino nor baloiaren jabe izan nahian . | JOSETXO ARANTZABAL

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

## Ezer gutxi jokoan eta gatz bariko derbia Azkoagainen

- Joko berdinduan, emaitza justua zale zein taldekiden iritziz
- Bi taldeetako atezainak fin ibili ziren ateak gogoz defendatzen

**EMAITZA**

ALOÑA MENDI

**1-1**

BERGARA

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Azkoagaingo markagailuan Bergararren aldeko emaitza idatzita bazegoen ere, banakoaz amaitu zen atzoko derbia. Emaitza justua, zale zein taldekideen iritziz, zelaian erakutsitako joko nahiko berdindua oinarri. Eguraldi onak eta akaso Realaren partidua ordu berean izateak harmailatan eragin zuen; derbi bat izateko, espero baino zale gutxiago.

### Derbi parekatua

Aloña Mendik egin zuen tiraka partidua hasi orduko baloiaren jabetzari gogor eutsiz nahiz eta kontraerasoetan bergararrek aukera pare bat izan zituzten markagailuan aurrea hartzeko. 28. minutuan, baina, Endika Ruiz txantxikuarraren eskutik etorri zen lehenengo gola jaurtiketa gurutzatu baten bidez. Mahoneroek segituan erantzun zieten kontraeraso azkarrekin, Julen Iriartek berdinketaren gola eginez 38. minutuan.

Bigarren zatian, Aloñako jokalariak nagusitu ziren zelaian, lehenengo zatian bergararrek egindako defentsa gogorrari aurre egiteko aldaketak egin ostean; hasieran lau defentsarekin hasi ziren txantxikuarrak, baina bergararren baloi luzeen ondorioz, bosgarren defentsa bat jarri zuten atea gehiago zaintzeko asmotan. Hori horrela, Iñigo Arregi eta Unai Moiuaren hanketan aukera bat baino gehiago izan zen garaipenaren gola lortzeko, golik iritsi ez bazen ere.

Beroaren eraginez erritmoa jaitsi egin zen, azkeneko minutuak oso lehiatuak izan baziren ere. Talde biak gogoz saiatu ziren bigarrena sareratzen.

### Kiroltasuna nagusi

Derbia izateak jokoan eragina izaten du sarritan, atzokoan izan zuen moduan talde bietako entrenatzaileei galdetuta, kiroltasuna nabarmendu zuten arren. Epailearen gainean, ez zuten ezer esaterik nahi izan, haren lana epaitzea zaila dela argudiatuz.

Hala ere, izan zen jokaldi eztabaidatsu bat partiduaren azkenetan, non mahoneroek penaltia eskatu zuten txantxikuarren arean epaileak ezer adierazi ez bazuen ere.

Esanguratsua, era berean, bi txartel bakarrik izan zirela; talde bakoitzarentzako bana: Bergarako Andoni Arrutirentzako 65. minutuan eta Aloñako Josu Juaristirentzako 86. minutuan.

### Zaleen iritziz "justua"

Emaitza justutzat zuten arren, joko handi gabeko partidua izan zela zioten zaleek. Azkoagainen bazeuden ere, lehen mailako partiduetan ere belarria jarrita zuten.

### FITXA TEKNIKOA

**Aloña Mendi:** Mikel Aginagalde, Endika Ruiz (G.Bernal, 52. min.) ,Iker Agirre, Jon Igartua (X. Carpintero, 45. min.), Mikel Palacios, Iñigo Arregi (J. Martin, 81. min), Xabi Agirre (A. Garmendia, 65. min.), Josu Juaristi, Ander Mendoza, Julen Palacios (Unai Moiua 56. min.), Iker Olalde.

**Bergara:** Asier Lopez, Mikel Oregi, Andoni Arruti (I. Garitano 87. min), Iker Arazkonaga, Andoni Nafarrate, Julen Iñurreta, Unai Agirre (A. Azpiazu 62. min), Aitor Oregi (E. Crespo 63. min.), Julen Iriarte (I. Cabanillas, 61. min), Jokin Balzategi, Markel Ilzarbe (Iñigo Macho, 77. min.).

**Beste:** Ibañezek zuzendu zuen lehia. Agirre eta Gonzalez izan ziren marazainak.

**Golak:** Endika Ruiz (1-0, 28. min.), Julen Iriarte (1-1, 35. min.)



**AITOR ORUETA**
ENTRENATZAILEA (ALOÑA)

"Bigarren zatia ikusita, aukerak izan ditugu partidua irabazteko; hala ere, emaitza justua izan da bergararrak gogor ibili dira–eta defentsan. Gustura nago jokalariekin eta hori da onena".



**OSKAR MAIZTEGI**
ENTRENATZAILEA (BERGARA)

"Emaitzarekin gustura, partidu borrokatua eta parekatua izan da; aukerak bi aldeetan izan dira, beraz, berdinketarekin gustura. Aloñak eraman du partiduaren kontrola oso nabarmena izan ez bada ere".

EMAKUMEAK IGOERA

# Arizmendiko neskek Euskal Ligarako txartela lortu zuten zapatuan mailaz igota

Partiduaren hasiera borrokatuaren ostean, samur garaitu zuten etxekoek

**EMAITZA**
ARIZMENDI
**4-0**
HONDARRIBIA

**A. ARANBURUZABALA** | ESKORIATZA

Ondo egindako lanaren fruitua lortu zuten Arizmendiko neskek zapatuan: mailaz igotzea. Datorren urtean sortu berri den Euskal Liga kategorian izango dira.

Hurrengo denboraldian, Gipuzkoan jokatzeaz gain, Araba eta Bizkaian ere jokatuko dute. Aritz Elortza entrenatzaileak partidua amaituta, laino baten zegoela zioen hunkituta eta taldekideentzako esker ona besterik ez zuen. Emaitza ezin hobea emateaz gain, txapela eta kamiseta polita oparitu zioten jokoa amaituta. Nesken futbolaren alde egin dutenak ere txalotu zituen Elortzak.

Ane Lur Garin jokalaria ere gustura zen lorpenaz eta zelaian hasitako ospakizunak (xanpaina konfetiak...) afariarekin eta parrandarekin borobiltzeko asmoa zutela kontatu zigun.

**Gogor hasi, samur amaitu**

Garinen esanetan, partiduaren lehenengo zatia borrokatua izan bazen ere, bigarrenean ederto nagusitu ziren Arizmendikoak baloiaren jabe bete-betean bilakatuz.

Lehenengo gola Maialen Zabaletak egin zuen partiduaren lehenengo erdian. Gainontzeko hirurak bigarrenean etorri ziren: Zuriñe Mujika, Susana Santos eta Haizea Arriaran izan ziren golegileak, hurrenez hurren. Bosgarren gola ere gertu ibili zen, penalti bat huts eginda.

**Zaleak taldearekin bat eginda**

Zale asko bildu ziren Almeneko zelaian; horien esanetan, oso hunkigarriak izan ziren partiduko zein osteko minutuak. Entrenatzaileari egindako omenaldiaz gain, Ane Lur Garin eta Susana Santos taldeko jokalari beteranoek ere jaso zuten merezitako oroigarria.

**Datorren urtean talde bera**

Aurpegi berriak izan ahal diren arren, taldearen muina aurtengoa izatea gurako luke Elortzak. Orain merezitako oporrak. Zorionak!



Arizmendikoek gogor eutsi zioten baloiaren jabetzari. | JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak banaTolosaren aurka

Etxeko taldeak gura beste ondo jokatu ez arren, puntua eskuratu zuen zapatuan Mojategin, 40. minutuan Xabi Pavonek, falta baten ostean sartutako golarekin banakoa lortuz. Unai Iglesias, Mondrako 2. entrenatzailearen esanetan, "tolosarrak hobeak izan dira eta, beraz, lortutako puntuarekin konforme gaude. Hurrengoan hobeto jokatzea espero dugu: maiatzaren 8an UDArekin dugun derbian, alegia".

OHOREZKO ERREGIONALA

## UDA taldeak, Real Union liderraren aurka 2-0 galdu arren, itxura oso ona eman zuen Irungo Gal zelaian

Partidu gogorra izan zuten Aretxabaletakoek, kategoriako lider sendoa zuten-eta aurkari. Emaitzak alderantzizkoa adierazi dezakeen arren, entrenatzailea eta jokalariak gustura ziren egindakoarekin. Gogor eutsi zioten lehenengo zatian UDAkoek, 44. minutuan Real Unionek lehenengo gola egin zuen arte. Bigarren erdiaren 10. eminutuan, zalantzazko penalti baten ondorioz, etorri zen Irungoen bigarrena. Hortik aurrera, gura baina ezin ibili zen UDA; sailkapenean bosgarren jarraitzen dute.

Aukerazko IBILGAILUAK salgai



14.500€-tik aurrera

FORD FOCUS
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
  2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
  2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
  2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Kuga TDCI 140 ZP 28.900 €
  2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- Ford Focus STI 225 ZP 14.500 €
  2006 | Diesela | Urdina | 80.000 Km
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT 18.900 €
  2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 105 ZP Sport 11.700 €
  2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- Volkswagen Passat TDI 140 ZP Avant Trend 12.800 €
  2006 | Diesela | Marroia | 98.000 Km
- Mini Couper 1.6I - 115 ZP 8.800 €
  2004 | Gasolina | Urdina | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
  2006 | Diesela | Zuria |110.000 Km



28.700 €

Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT
2010 | Diesela | 29.649 Km

Udalaitz

- Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION 18.400 €
  2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
  2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
  2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
  2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF 26.900 €
  2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
  2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST 20.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea Xl 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
  2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



17.250 €

Citroen C5 Hdi Premier 110
2009 | Diesela | 38.000 Km

CHAPIME
San Andres auzoa 5.
ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22.

CITROËN
Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Citroen C3 Hdi SX PLUS 70 5.250 €
  2004 | Diesela | Gorria | 78.000 Km
- Citroen C3 Hdi Cool 70 9.300 €
  2009 | Diesela | Grisa | 33.800 Km
- Citroen C4 16i Colection110 7.300 €
  2006 | Gasolina | Grisa | 37.700 Km
- Citroen C4 Hdi Sport 110 17.750 €
  2011 | Diesela | Txuria | 1.250 Km
- Citroen Grand C4 Picasso Hdi SX 110 14.750 €
  2008 | Diesela | Beltza | 68.500 Km
- Citroen Grand C4 Picasso EXCL Stop&Start 24.500 €
  2011 | Diesela | Beltza | 500 Km
- Citroen C5 Hdi Premier 110 17.500 €
  2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- Citroen C5 22Hdi EXCL CAS 200 31.750 €
  2010 | Diesela | Grisa | 150 Km
- Peugeot 307 Hdi SW 110 13.250 €
  2008 | Diesela | Beltza | 33.500 Km
- Peugeot 308 Hdi Sport 110 12.500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 58.500 Km

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

EUSKADIKO TXAPELKETA



Bergarako jokalariak garaipena ospatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

# Mailari eustea lortu du Bergarak, Ford Mugarri Arrasateri irabazita

▸ Tentsio handiko partidua izan zen eta akats asko egin zituzten

▸ Denboraldi bukaerako nekea arrasatearrek nabaritu zuten gehienbat

USOA AGIRRE | BERGARA

Euskadiko Txapelketa jokatzeko maila galtzear izan da aurten Soraluce BKE taldea, baina azken jardunaldian mailari eustea lortu dute, Ford Mugarriri irabazita. Arrasatearrek bigarren bukatu dute txapelketa eta bergarararrak bederatzigarren geratu dira, zuzeneko arerio zituzten Deustu eta Basauriren aurretik.

## FITXA TEKNIKOA

**Soraluce BKE:** Uribe (4 gol), Etxeberriarteun (1), Sudupe (4), Larrañaga (2), Ugalde (7), Plazaola (8), Lenisoro (4), Manuel (5), Sevillano (3), Urbina, Unamuno (2), Agirre (2), Kapelastegi, Vaz. Entrenatzailea: Josetxo Muniategi.

**Ford Mugarri:** Salterain, Valle, Altzelai (gol 1), Esquibel (2), Zubiaurre (2), Santos (1), Kruzeta (2), Aldanondo (2), Calleja (12), Isasmendi (4), Aramendia, Zuloaga (4). Entrenatzailea: Edu Orgaz.

**Tentsio handiko hasiera**

Domekan Labegaraietako kiroldegian igarri zen zerbait jokoan zegoela. Urduritasuna nabari zen jokalarien aurpegietan eta zaleen oihuetan.

Lehenengo zatiko lehen hamar minutuetan nahiko berdinduta joan zen partidua, baina minutuak aurrera egin ahala bergararrek gora egin zuten markagailuan. Josetxo Muniategi Bergarako entrenatzailearen arabera, "lehenengo zatian tentsio asko egon da akats asko egin ditugulako: baloia galtzea, jaurtiketekin gaizki bukatu dugu... Markagailuan aldea hartu dugu, baina joko aldetik ez zegoen talde sendorik". 19 eta 13ko emaitzarekin bukatu zuten lehen zatia.

## EMAITZA

SORALUCE BKE

**42-30**

FORD MUGARRI ARRASATE

**Denboraldi bukaerako nekea**

Bigarren zatiaren hasiera ere berdintsua izan zen. Arrasatearrek eutsi zioten lehenengo minutuetan Bergarakoen intentsitateari, baina nekea agertu ahala markagailuan gora egin zuten Soraluce BKEko jokalariek. Edu Orgaz Arrasatekoen entrenatzaileak horrelaxe azaldu zigun partidu bukaeran: "Guk burua beste nonbait geneukan eta eurak intentsitate handiarekin zetozen. Denboraldiko dena jokatzen zuten gaurko partiduan eta nabaritu da hori". Gaineratu zuen, "oso nekatuta iritsi gara azken partidura; 12 jokalarirekin denboraldia agoantatzea oso zaila da".

Nekea. Horixe izan zen Muniategik ere arrasatearren joko eskasari buruz esan zuena: "Fisikoki ondo zeudenean arrasatearrek ondo eusten zuten, baina gero igartzen zitzaien jaitsiera fisikoa. Hor aprobetxatu dugu gure fisikoa; ordezkoen aulki luzeagoa dugula".

Bergararrek partidua irabazi eta mailari eustea lortu zuten. Hori izan zen partiduko onena, joko aldetik ez baitzen nabarmentzeko modukorik egon. Bergarako jokalariek garaipena ospatuko zutenik ez dakigu; entrenatzaileak, behintzat, deskantsatu beharra zuela aitortu zigun, tentsio handiko astea izan baita taldeko guztientzat.



**JOSETXO MUNIATEGI**
SORALUCE BKE-KO ENTREN.

"Lehenengo zatian tentsio handia egon da, akats asko egin ditugulako; azken partiduetako akats berak izan dira. Hurrengo urtera begira oraingo taldea mantendu eta gazte batzuk sartzea da ideia".



**JOSU AGIRRE**
SORALUCE BKE-KO JOKALARIA

"Lehenengo zatian nahiko berdinduta jokatu dugu, baina bigarrenean golak sartu eta sartu aritu gara, ia ez delako egon defentsarik. Guretako emaitza ederra izan da, baina ez da partidu ona izan".



**EDU ORGAZ**
FORD MUGARRIKO ENTREN.

"Gaurko partidua ez da kontuan hartu behar. Duela bi aste sailkatu ginen eta jendea oporretan eta deskantsu faltan dago. Jokalariak zoriondu beharra dago, 12-13 jokalarirekin denboraldi oso bat agoantatzea oso zaila baita".



**KEPA ISASMENDI**
FORD MUGARRIKO JOKALARIA

"Bagenekien partidu zaila izango zela, Bergarak asko zuen jokoan. Guk ez geneukan asko jokoan, baina azkenengo partidu gisa gogo handiarekin etorri gara. Hala ere, azkenean irabazi egin digute. Zorionak bergararrei!".

ESKUBALOIA

## Aloña Mendiko neskek galdu egin zuten Usurbilgoen kontra

Joan den zapatuan jokatu zuten Aloña Mendiko neskek Atez Ate Usurbil taldearen kontra Gipuzkoako kopako lehen partidua, Usurbilgo Oiardo kiroldegian. Etxekoak oñatiarrak baino gehiago izan ziren eta 27 eta 17ko emaitzarekin bukatu zen partidua. Lau taldek jokatzen dute oñatiarren taldean eta laugarren postuan dira momentuz kopa lortzeko bidean. Hurrengo partidua Aste Santutik bueltan jokatuko dute, maiatzaren 8an.

ESKUBALOIA

## Aloña Mendiko mutilek zarauztarrak mendean hartu zituzten

Zarautzen jokatu zuten Gipuzkoako kopako laugarren jardunaldiko partidua, joan den zapatuan, Amenabar B-ZKE-k eta Izarraitz Taberna Aloña Mendik. 27 eta 31ko emaitzarekin oñatiarrak izan ziren nagusi zarauztarren kantxan. Lau puntu dituzte orain oñatiarrek eta beraien taldeko laugarren postuan daude. Hurrengo kopako partidua, 5. jardunaldikoa, Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatuko dute maiatzaren 7-8ko aste bukaeran, Pasaiako Donibane Majestiken kontra.

ARETO-FUTBOLA

## Euskal Ligako eskoriatzarrek irabazi egin zuten Gernikan

Gernika Lagunak-Naturgas Energiaren aurka jokatu zuten Eskoriatza K.E.-ko mutilek zapatu arratsaldean. Gernikarrak sailkapeneko azken postuetan daude eta 3 eta 4ko emaitzarekin gailendu ziren eskoriatzarrak kanpoko kantxan. 30 punturekin daude orain Eskoriatza K.E.-koak, Euskal Ligako sailkapenean bederatzigarren postuan. Aste Santuan jai izango dute eta hurrengo partidua, 28. jardunaldikoa, maiatzaren 7an jokatuko dute etxean, Aurrera de Vitoriaren aurka.

TXIRRINDULARITZA

## Ibarreko hiru talde izan ziren Gipuzkoako klasikako lasterketan

Gipuzkoako klasika jokatu zen zapatuan Zumaian. Gazte mailako txirrindulariek parte hartu zuten, tartean Debagoieneko ordezkariek: Sumofic Lokatzakoak, Aloña-Mendikoak eta Dorletako Amakoak. Espainiako koparako puntuak lortzeko lasterketa izan zen. Espainiako Autonomietako selekzioek ere parte hartu zuten eta horientzat izan ziren posturik onenak. Debagoienekoak saririk gabe baina egun ederra pasata etorri ziren bueltan.

LEHEN NAZIONAL MAILA

# Iturripen irabazita, mailari eutsiko dio

## Mondragon Unibertsitateak lehen nazional mailan jokatuko du

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

Kategoriari eusteko partidu garrantzitsua zuten Mondragon Unibertsitateko jokalariek zapatukoa, eta lortu zuten helburua; izan ere, 73-57 irabazi zion MUk Mikeldiri. Hala, lehen nazional mailan jokatuko du datorren urtean ere Arrasateko taldeak. Izan ere, hiru jardunaldi falta dira denboraldia bukatzeko eta hirurak galduta ere, puntu diferentziari begiratuta, mailari eutsiko lioke.

Partidu tirabiratsua izan zen zapatuan Iturripen MUk eta Mikeldik jokatu zutena. Partidu lasaia zirudiena, korapilatu egin zen bukaerarako, eta ez emaitza jokoan zegoelako; izan ere, uneoro izan ziren nagusi arrasatearrak. Defentsan oso lan ona egin zuten eta kontraerasoan azkartasunez jokatu zuten; bai defentsan eta baita kontraerasoan ere bikain ibili izanak ekarri zuen hasiera hasieratik MUk partidua bereganatzea. Galtzeko arriskurik ez zuten izan Mondragon Unibertsitatekoek, beraz. Atsedenaldia iritsi zenerako, hamairu puntuko aldea aterea zion Mikeldiri.

### Bost kaleratu

Baina, esan bezala, partiduan tentsio uneak bizi izan zituzten. Zaleen esanetan, epaileak ez ziren fin ibili eta istilurako arrazoirik ez zegoen partidu bat, konplikatu egin zuten. Hala, azken laurdenean, liskarrak izan ziren bi taldetako jokalarien artean, eta denera, lau jokalari eta entrenatzaile bat kaleratu zituen epaileak; Mikeldiko entrenatzailea eta bi jokalari, eta MUko beste bi; Paul Isasa eta Gorka Kintana, hain justu.

Norgehiagoka garrantzitsua zelako-edo, inoiz baino zale gehiago joan zen zapatuan Iturripera. Animo oihuen artean egin zuen partiduak aurrera eta giro aparta sortu zen, are gehiago, euren taldeak mailari eustea lortu zuela ikusita.

Datorren denboraldian, beraz, lehen maila nazionalean jokatzen jarraituko du MUk. Ea aurten baino hobeto aritzen diren!



MUko jokalaria kontraerasoan, gogor. | JOSETXO ARANTZABAL

LEHEN NAZIONAL MAILA

# Partidu bat irabazita EBAn legoke Aloña

## Fincas Bilboren kontra 86-68 irabazi zuen Aloñak Zubikoan

**MIREN ARREGI** | OÑATI

"Bagenekien talde esperientziaduna eta gogorra genuela aurrean eta helburua eustea eta haiei konfidantzarik ez ematea izan da" adierazi zigun Xabi Igartuak. Eta lortu zuten gainera. Lehen zatia bi puntuko abantailarekin amaitu zuten Xabi Igartuaren mutilek, eta bigarrenean, etxeko zaleen laguntzaz partidua bereganatzea lortu zuten. "Jokalariak oso kontzentratuta ikusi ditut; nahiz eta hasieran markagailuan alde txikia izan, kontzentrazio maila horrek lagundu digu hirugarren eta laugarren laurdenetan erakutsi dugun mailara iristen", zioen pozik, Igartuak. Hirugarren laurdena izan zen klabea, izan ere, markagailuan justu-justu ibiltzetik, arnasa lasai hartzera pasatu ziren Sustrai Aloñakoak. Laugarren laurdenerako, abantaila handiarekin, lasai errematatu zuten partidua oñatiarrek. Emaitza; 86-68.

EBA ligarako igoera fasean dago Sustrai Aloña. Aurtengoan, lehenengo maila nazionalean jokatu duen lehen denboraldi honetan, maila altuko taldea dela erakutsi du Sustrai Aloñak eta orain, hiru jardunaldiren faltan, kategoriaz igotzeko puntu-puntuan dago. Asteburu honetan ez du EBA ligan egoteko txartelik eskuratu, baina, gelditzen diren hiru jardunaldietako bakarra irabazita, lortuko luke kategoriaz igotzea. Pentsa liteke lortuko duela; izan ere, denboraldi guztian soilik hiru partidu galduta, gelditzen diren hiru jardunaldiak galtzea oso zorte txarra litzateke. Gainera, hiru urte daramatzate Sustrai Aloña Mendiko mutilek etxean galdu barik, eta gelditzen diren hiru jardunaldietako bat Zubikoan jokatuko dute.

### Hurrengoa Azpeitiaren kontra

Datorren jardunaldian Azpeitiaren kontra egingo dute Igartuaren mutilek; oso gertu duten talde baten kontra. Oso lehiakorra da Azpeitia; nahiz eta azken bi partiduak galdu, denboraldi ona egin duena eta Sustrai Aloñari Zubikoan estualdiak ere pasarazi dizkiona. Dena den, Igartuak konfiantza du taldearengan.



Zubikoa lepo bete zen Sustrai Aloñari animoak emateko. | MIREN ARREGI

**XABI IGARTUA** | ENTRENTZAILEA

## "Kategoria honetan ere hasiberriak izanik, EBAra igotzekotan egotea bikaina da"

EBA ligarako txartela eskuratzeko puntuan dago Sustrai Aloña Mendi Saskibaloi taldea. Xabi Igartua oñatiarra da entrenatzailea.



Xabi Igartua. | GOIENKARIA

**Igoko zarete?**

Gustatuko litzaiguke, hori bai. Lan handia egin dugu orain arte eta hiru partiduren faltan, bat irabazita igoko ginateke kategoriaz.

**Ospakizunetan pentsatzen hasita zaudete?**

Egia esan ezer gutxi dakit horretaz; horiek zuzendaritzaren lanak dira. Guri tokatzen zaigu gure lana egitea eta kontzentratuta jarraitzea, bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere.

**Nola bizi izan duzu denboraldia eta igoera fasea pertsonalki?**

Oso polita da, bai. EBA –ra igoera hau nik bizi izan nuen Arrasaten, bigarren entrenatzaile nintzela, baina hau desberdina da. Etxean izatea, etxeko jokalariekin, entrenatzaile gisa eta etxeko zaletu laguntzaz, ikaragarria da; gehienbat maila honetan ere hasiberriak izanik.

SASKIBALOIA

# Asko sufrituta irabazi dute Eskoriatzako senior neskek

**ENEKO AZKARATE** | ESKORIATZA

Garaipen garrantzitsua (34-36) lortu zuten zapatuan Eskoriatzako neskek, Donostian, Internacionalen aurka. Partidua irabazita, hirugarren postuari eutsiko diote eta hurrengo jardunaldian etxean Beasain gailenduz gero, lauko finalerako txartela lortuko dute, hirugarren sailkatuta.

Partidua txarto hasi zuten eskoriatzarrek. Defentsan ahul eta aurrean asmatu ezinda. Lehen laurdena 13-2ko partzialarekin amaitu zuten. Bigarren laurdenean partzial ona egin zuten, eta 20-18 iritsi ziren atsedenaldira. Hirugarrena 9 puntu aurretik amaitu zuten. Azkenekoa desastrea izan zen. Hiruko saskiratze batekin 12 aurretik jarri baziren ere, hortik amaierara arte ez zuten bakarra lortu, baina aurkariek ere ez zuten asmatu eta heldu ziren azkeneko minutu eta erdira, zortzi gainetik. Eta hor deskalabrua: hiru baloi galdu eta bi puntura jarri ziren aurkariak. Azkenean, asko sufrituta, lortu zuten eustea eta bi puntuko aldearekin irabazi zuten.

LASTERKETA

# Berdintxiketa lasterketa mistoak, arrakasta

▶ 75 korrikalari izan ziren; 31 bikote eta 13 bakarlari

▶ Maider Gaztañaga eta Mitxel Cuadrado, irabazle

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Guztira 75 lagun animatu ziren Oñatin ospatu zen Berdintxiketan lehenengo lasterketa mistoan atxintxika egitera, egubakoitzean. Denetariko bikoteak hartu zuten parte: aita-alabak, lagunak, senar-emazteak, lankideak… baita Oñatiko saskibaloiko nesken taldeko hamabi lagunek ere.

Emakume eta gizonezkoen artean berdintasuna bultzatu nahian eta kirolean emakumearen presentzia areagotu nahian, Oñatiko Enpresagintza fakultateko ikasle talde batek antolatutako lasterketa da, unibertsitateko bi taldeetako -berdintasun eta kiroletako- arduradunekin batera.

Antolatzaileak oso pozik gelditu ziren lasterketak izandako arrakastarekin, halaxe esan zigun Ainhoa Unamunok, Unibertsitateko Kirol Zerbitzuetako arduradunak: "Oso pozik gaude herritarren parte hartzearekin. Izan ere, guretzako sorpresa izan da 75 pertsonak izena ematea; lasterketaren balorazio oso positiboa egiten dugu. Zailena egin dugu eta lehenengo urteko lasterketa pasata, errazagoa izango zaigu datorren urtekoa antolatzea".

**Irabazleak**

Maider Gaztañagak eta Mitxel Cuadradok osatutako bikoteak irabazi zuen lasterketa eta ordainetan Zelai Zabal jatetxean afari bat irabazi zuten; lore sorta bat ere eman zieten. Helmugara iristen bigarrenak Nerea Etxeberria eta bere bikotea izan ziren eta eurek Soraluzen afari bat irabazi zuten. Hirugarren postuan, berriz, Estela Biain eta Jon Mikel Larrañaga iritsi ziren eta Forum dendan gastatzeko bonoa eskuratu zuten. Saskibakoiko nesken taldekideei, berriz, sari berezi bat eman zieten; Zubikoa Kiroldegian afari-merienda parte hartu zutenendako.

Bestelako parte hartzaileendako ere hainbat sari zozketatu zituzten lasterketaren ondoren.



Korrikalari talde bat, lasterketan. | JOSETXO ARANZABAL



**IDOIA ETA MIKEL**
OÑATI

"Ia egunero entrenatzen dugu bazkal ostean, eta Idoiak animatuta pentsatu dugu lasterketan parte hartzea. Berdintasunaren aldekoak gara biok eta parte hartzeko eta ondo pasatzeko gogoz etorri gara".



**GERMAN ETA MIREN**
OÑATI

"Aita–alabak gara eta urtean zehar korrika asko egiten dugunez, Oñatiko karrera honetan parte hartu behar genuen. Iniziatiba oso polita da jakinda enpresagintzatik sortutakoa dela, berdintasunaren alde. Disfrutatzea da gure asmoa".



**IÑAKI ETA ANE**
OÑATI

"Batez ere ekimenagatik hartu dugu parte; berdintasunaren alde delako eta lasterketa hau zerbait herrikoia bihurtzeko asmoan sinisten dugulako. Karrera herrikoia da eta korrika sarri egiten ez dugunez, animatu egin gara".

## FUTBOLA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Roteta-Berio | 0-1 |
| Trintxerpe-Zumaiako | 0-1 |
| Hondarribia-Oiartzun | 1-3 |
| **Aloña Mendi-Bergara** | 1-1 |
| **Mondragon-**Tolosa | 1-1 |
| Real Union-**Aretxabaleta** | 2-0 |
| Anaitasuna-Idiazabal | 3-0 |
| Aurrera-Pasajes | 1-1 |
| Ordizia-Hernani | 0-2 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Real Union | 70 | 30 |
| 2 | Hernani | 68 | 30 |
| 3 | Pasaia | 61 | 30 |
| 4 | Anaitasuna | 55 | 30 |
| 5 | **Aretxabaleta** | 50 | 30 |
| 6 | Oiartzun | 48 | 30 |
| 7 | **Bergara** | 43 | 30 |
| 8 | Tolosa | 43 | 30 |
| 9 | Aurrera | 42 | 30 |
| 10 | **Mondragon** | 36 | 30 |
| 11 | **Aloña Mendi** | 36 | 30 |
| 12 | Trintxerpe | 35 | 30 |
| 13 | Berio | 35 | 30 |
| 14 | Hondarribia | 34 | 30 |
| 15 | Zumaiako | 26 | 30 |
| 16 | Roteta | 25 | 30 |
| 17 | Idiazabal | 24 | 30 |
| 18 | Ordizia | 19 | 30 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Zumaiako-Roteta
Oiartzun-Trintxerpe
Bergara-Hondarribia
Tolosa -**Aloña Mendi**
**Aretxabaleta-Mondragon**
Idiazabal-Real Union
Pasajes-Anaitasuna
Hernani-Aurrera
Berio-Ordizia

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta B-Mondragon B | 4-1 |
| Antzuola-Getaria | 0-0 |

**ERREGIONALA- IGOERA**

| | |
|---|---|
| Landetxa-Bergara B | 0-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Ordizia | 4-2 |
| Oiartzun-Mondra | 6-2 |

**GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Beti Ona-Arizmendi | 4-1 |

**OHOREZKO KADETEAK KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Hondarribia | 1-0 |

**KADETEAK KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi B-Ilintxa | 0-1 |
| Aretxabaleta B-Arizmendi UDA | 5-0 |
| Bergara B-Eibartarrak B | 0-2 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Hondarribia | 4-0 |
| Touring-Mondragon | 0-10 |

## ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Ford Mugarri | 42-30 |

**TERRITORIALEKO KOPA**

| | |
|---|---|
| Amenabar-Izarraitz Aloña | 27-31 |

**FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Bergara-Urola | 22-34 |
| Aloña Mendi | Atsedena |

**ALDUNDIA SARIA, KAD. MUTIL**

| | |
|---|---|
| Arrate-Berezao Aloña Mendi | 32-26 |
| Chapime Arrasate-Irun | 29-22 |
| Soraluze BKE-Hondarribia | 24-36 |

**ALDUNDIA SARIA, GAZTE NESK**

| | |
|---|---|
| Usurbil-Aloña Mendi | 27-17 |

**ALDUNDIA SARIA, KAD. NESKA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi A-Aiala B | 18-21 |
| Ordizia Irurena-Aloña Mendi B | 31-20 |

## ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| Gernika-Eskoriatza | 3-4 |

**GIPUZKOAKO 2. MAILA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Laskorain | 7-3 |

## SASKIBALOIA

**LEHEN MAILA IGOERA**

| | |
|---|---|
| Sustrai Aloña-Seky | 77-72 |

**LEHEN MAILA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| MU-Mikeldi | 73-57 |

**BIGARREN MAILAKO SENIOR.**

| | |
|---|---|
| Sustrai Aloña-Kostkas | 75-67 |

**SENIOR EMAKUMEAK**

| | |
|---|---|
| Internacional-Eskoriatza | 34-36 |

**GAZTE MUTILAK PARTAIDETZA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-BKL | 48-71 |

**EMAKUME GAZTEAK PARTAID.**

| | |
|---|---|
| Bera Bera-Aloña Mendi | 52-46 |

**KADETE MUTILAK PARTAIDET.**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Bide Bide Take | 58-56 |
| Soraluce Bergara-Cafes Aitona | 42-50 |
| MU B-Antigua B | 47-57 |

GU
RE
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena“

PARAPENTEA

**Iñigo Diaz** | Debagoieneko Amillena aire kirol taldeko kidea

# "Aloñako igoera antolatzeko arrazoi bat hegan egiteko dauden tokiak ezagutaraztea da"

- Maiatzaren 8an egingo duten Aloñako igoera lasterketan parapenteak ere egongo dira
- Debagoieneko Amillena aire kirol taldea dabil parapente lasterketaz arduratzen



Iñigo Diaz Santa Lutzian, atzean Aloñako mendilerroa duela; ondoan, parapentea. | A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Iñigo Diaz gasteiztarra da jaiotzez, baina Oñatin bizi da azkeneko hamarkadan. Badira 20 urte parapentean ibiltzen hasi zela. Hala, maiatzaren 8ko Aloñako igoerarako antolakuntza lanetan buru belarri dihardu.

**Nola bururatu zaizue Aloñako igoera parapentean antolatzea?**

Horrelako ekimenak antolatzeko hainbat arrazoi daude. Alde batetik, Aloñako igoerako antolakuntza taldeak zerbait berria egitea gura zuen. Betikoari aire berri bat eman gura zioten. Alpetan, adibidez, parapentea eta mendia uztartzen dituen lasterketa asko egiten dira. Mendira oinez igo eta gero hegan jaitsi.

Beste arrazoi bat da Euskal Herrian hegan egiteko dauden tokiak ezagutaraztea. Aloñako hegaldia, Urduñakoarekin batera, hemen dagoen onenetakoa izango da. Era berean, aldarrikatu gura dugu lur hartzeko zelai publikoak; izan ere, Santa Lutzia inguruan dauden zelai guztiak pribatuak dira eta arazoak izaten ditugu hemen ibiltzeko. Instituzioei egin gura diegu aldarria.

Esan behar da mendi lasterketak antolatzen dituzten beste elkarte batzuk dagoeneko jakinaren gainean daudela eta galdezka ibili direla. Berrikuntza da horrelako lasterketa bat; Jaenen egiten da horrelako bat, Cazorla mendilerroan.

**Nola antolatuko duzue lasterketa?**

Korrikalariak plazan hasiko dira; eta, parapentean doazenak Urtiagainen. Parapentean doazenak, baina, motxilarekin joan beharko dute, bederatzi bat kilo. Horiek ekipo arinak dira; orain arte erabili izan direnek 20 kilo inguru dituzte-eta.

Korrikalariek ordubete inguru beharko dute Aloñako puntaraino, eta guk ere Urtiagainetik antzera beharko dugu. Hori izan da helburua, lasterketa parekatua izatea. Goitik behera guk 10 minutu beharko ditugu hegaz, baina motxila prestatzen 5 bat minutu eta jasotzen beste horrenbeste. Hortaz, plazara nahiko antzera iritsiko gara.

**Aireratzeko zela moldatuko zarete Aloñako puntan?**

Arantzazura begira aireratuko gara; eta, gero airean emango dugu buelta. Iparraldeko haizea baldin badago, ostera, Aloñako puntatik berriro ere Belarrera jaitsi beharko dugu korrika eta gero han aireratu. Horrek esan gura du beste 15 minutu beharko ditugula Aloñatik Belarrera korrika. Lur hartzen dugun tokitik plazara ere motxilarekin joan beharko dugu.

**Orain arte zenbat lagunek eman dute izena parapentean aritzeko?**

Gure asmoa 30 lagun inguru izatea zen; dagoeneko 27 lagunek eman dute izena eta uste dugu 40 lagun inguru izatera iritsiko garela. Gainera, alde guztietatik etorriko da jendea: Bilbo, Gasteiz, Albacete, Segovia, Burgos, Madril... Ez dira ohiko lasterketak izaten, hortaz jendea gustura animatu da Aloñako igoeran parte hartzeko.

**Horrenbeste parapente batera nola moldatuko zarete?**

Aireratzerako orduan ez dugu arazorik izango; lekua handia da-eta. Lurreratzerako orduan, baina, kontuz ibili beharko dugu. Bi edo hiru batera ibili gaitezke, baina 20 ez. Gora korrika igo behar denez jendea sakabanatuta iritsiko da; eta, hartu dugun neurrietako bat da aireratzerako orduan parapenteen artean 30 segundoko tartea uztea. Hala hobeto moldatuko gara.

**Eguraldiak nola baldintzatuko du lasterketa?**

Eguraldiak asko baldintza dezake. Adibidez, euria egiten badu ezingo da hegan egin. Behe lainoa ere oso baxu baldin badago ezingo da egin, eta haize gogorra baldin badago ezta.

**Ze leku izango dira onenak parapenteak ikusteko?**

Aloñako punta leku ona izango da, 40 lagun aireratuko direlako. Iparraldeko haizearekin, Belarretik irtengo lirateke. Bestalde, Santa Lutziako zelaietan jaitsiko dira, eta plazatik ere oso ondo ikusiko da dena.

**Orain dela urte batzuk parapente asko ikusten ziren Aloña inguruan. Gainbeheran dago parapentea?**

Ez, nik uste dut orain ere asko egiten dela hegan, lehen beste edo gehiago. Gertatzen dena da lehen jaitsi bakarrik egiten zela –Aloñatik Santa Lutziara– eta orain hegaldi luzeak egiten direla. 1.600 metroko altuera hartzen dugu eta Kurtzebarrira edo Aizkorri ingurura joaten gara hegan.

**Parapentean hastea gura duenak zer egin behar du?**

Lehenengo ikastaro bat egin behar da, ofiziala, lau aste bukaerakoa. Gero, baina, praktika hartzeko bi urte inguru behar dira. Komenigarria da lagunekin ibiltzea.

**"Aldarrikatu gura dugu lur hartzeko zelai publikoak egotea"**

**"Aloñako hegaldia Euskal Herrian dagoen onenetarikoa da"**

**"Aloñako gurutzera pareko iritsiko dira ohiko korrikalariak eta besteak"**

**"Eguraldiak asko baldintza lezake proba; euriarekin ez da egingo"**

## Pirinioak hegan zeharkatzeko ahalegina

Orain dela bi urte Iñigok Diazek beste lagun batekin batera Pirinioak hegan zehartzeko ahalegina egin zuen. Orduan, baina, eguraldiak ez zien lagundu: "Aste bete genuen, eta justu aste horretan ez zigun eguraldi ona egin". Horrelako zeharkaldiak egiteko beharrezko jana, edana eta beharrezko arropak eramaten dituzte, izan ere oinez 4-5 ordu egiten dute egunero. Sei egunetan egin daitekeen zeharkaldia dela dio. Hala, aurten ere berriro egingo dute ahalegina. Lau laguneko taldetxoa elkartu dira, eta uztaila inguruan egingo dute zeharkaldia. "Ekaina izaten da garai onena hegan egiteko. Egun luzeak izaten dira eta airea beroa izaten da, hegan egiteko beharrezkoa", dio.

# "Poliki, lasai eta maitasun handiz hasiko gara jaki berriak sartzen"

## Amaia Diaz de Monasteriogurenek elikadura oinarri bat proposatzen digu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Emozioak eta janaria oso erlazionatuta daudela azpimarratu gura du Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak *Guraso.com* atarian argitaratutako azken artikuluan. "Jaki berriak banaka-banaka sartuko ditugu eta hasieran hiruzpalau koilaratxo nahikoa izango dira. Haurrak jan nahi ez badu, ez du axolarik". Jaki berriak sartzeko umea pozik eta eroso dagoen unea aukeratzeko gomendatzen du, eta aste berean bi produktu berri ez sartzeko.

### Lehenengo 4-6 hilabeteak

Diaz de Monasteriogurenek amaren esnea hobesten du etapa horretan. "Haurrak likidoak irensteko ahalmena besterik ez du", dio.

### 6-8 hilabete

Esnea izango da umearen elikaduraren oinarria, baina ez du esnearekin nahikoa izango. Likidoak ez diren jakiak sartzen hasiko gara; zerealak (glutenik gabekoak) eta fruta egosia (sagar egosia edo madari-konpota).

Zazpi hilabeterekin barazkiak sartuko ditugu: azenarioa eta patata lehenengo; kalabazina, porrua eta lekak jarraian. Zortzi hilabeterekin haragi zuria (oilaskoa edo untxia) zati txikietan nahastuko dugu barazki kremarekin. Barazki berriak ere eskainiko dizkiogu; espinakak, letxuga hostoak...

### 10-12 hilabete

Lehenengo hortzak agertzen direnean arroz aleak, artoa eta patata zatiak sartuko ditugu. Ilarrak, baba handiak, lentejak, arraina eta arrautza osoa ere bai.




Ume txikia, mangoa jaten. | SEAN DREILINGER

# Erantzukizuna bultzatzeko, arauak finkatu eta betearazi egin behar dira

## Helburu horrekin zigorrak ezartzearen egokitasuna ezbaian dago gaur egun

L.Z. | ARRASATE

Autonomia oso lotuta dago erantzukizunarekin, eta alderdi hori erabakigarria izango da helduaroan pertsona hori bere ekintzen jabe izan dadin, bere bitartekoen bidez konponduz. Erabakigarria da, halaber, haurrak ikas dezan moldatu egin behar duela arauak dauden lekuetara. Erantzukizunaren alderdia sustatzeak esan nahi du lehenik etxeko arauak finkatu behar direla.

### Zigorrak

Autore batzuek neurrian ipinitako zigorrak ezinbestekoak direla diote. Horrela eginez gero seme-alabek konpromiso handiagoarekin beteko ei dituzte arauak eta ondo jakingo dute zer ondorio jasango dituzten hitzarmena bete ezean. Beste aditu batzuek diote helduak eredu ona izatea nahikoa dela umeek erantzukizunez jokatzen ikasteko, eta zigorrak ipintzearen aurka azaltzen dira.



Umeak zigortuta. | JARDININFANTIL

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com

JAKINGAI

# Dementziak eta deshidratazioa

**Txomin Heriz**
Arizmendiko irakaslea

Artikulu hau dementziaren bat pairatzen duen pertsonaren zaintzaileari zuzenduta dago; izan ere, gaixoek ezin dituzte euren beharrak ondo adierazi, eta, horregatik, zaintzaileak arretaz zaindu behar ditu behar horiek; batez ere, ondorioren bat gertatu baino lehen. Horietako bat deshidratazioa da.

### Zer da deshidratazioa?

Ehunetan eta zeluletan ur eta gatz mineral kantitatearen murrizketa da deshidratazioa. Bereziki, kloroaren, sodioaren eta potasioaren murrizketa. Kanporatzen den ur kantitatea sartzen dena baino handiagoa denean gertatzen da deshidratazioa.

Zeluletan eta ehunetan, behar baino ur kantitate txikiagoa baldin badugu –gizakiok %60 ura gara– prozesu metabolikoak ez dira behar bezala gertatzen, eta, ondorioz ehunak, organoak eta abar sufritzen hasten dira. Erremediorik jartzen ez bazaio, egoera horrek gorputz osoan eragingo du; gaixoaren sistema osoan eragin txarra izango du, eta, prozesuak etenik izan ezean, heriotza ere ekar dezake.

Adibidez, kalkuluen arabera, Europan 2003ko bero boladan 52.000 pertsona inguru hil ei ziren Frantzian, Espainian, Italian eta Portugalen. Datuok sakon aztertu gabe, baiezta dezakegu hildako horietako asko pertsona nagusiak izango zirela eta deshidratazioak, zalantzarik gabe, eragin handia izan zuela gertaera hartan.

Besteak beste, honako arrazoi hauek eramaten gaituzte hori ziurtatzera: zaharrengan, umeengan bezalaxe, deshidratazioa azkar gertatzen da, eta, esan bezala, deshidratazioa hilkorra izan daiteke; hirugarren adinean patologia aniztasuna ohikoa da eta deshidratazioak, faktore negatibo bat izanez, ondorio txarrak eragiten ditu aldi berean sistema baten baino gehiagotan.

Horregatik, heriotzaren kausa zuzena izan gabe, deshidratazioak okertu egiten ditu aurretik dauden beste gaixotasun batzuk: diabetesa, biriketako gaixotasunak, bihotzekoak, giltzurrunekoak, gibelekoak... Hirugarren adinekoen artean ohikoak direnak, hain zuzen ere.

### Nola saihestu deshidratazioa?

Deshidratazioa saihestea, teorian, erraza da. Nahikoa da gaixoak behar beste ur hartzea eta esandako gatzak metabolismoan sartzea. Orduan, zer dela -eta arestian aipatutako datuak?

Hurrengo artikuluetan erantzungo diogu galdera horri; hots, dementzietan deshidratazioaren berezko ezaugarriak aztertuko ditugu.



Pitxerra ura. | LARRAITZ ZEBERIO

### Deshidratazioaren arriskua

Ahulenak umeak, zaharrak eta autonomia galdu duten pertsonak dira. Kontuz ibili behar dugu oroimen arazoak dituzten pertsonekin, dementziaren bat dutenekin, alkoholaren eta drogen kontsumoarekin, parkinsona, diabetesa, loditasuna edo bihotz–, giltzurrun–, arnas– zein gutxitasun baskularrak dituztenekin. Botika batzuekin ere kontuz ibili beharra dago; hipertentsioaren aurkakoak, diuretikoak, depresioaren aurkakoak, lasaigarriak eta psikotropoak. Funtzio psikologikoetan eragina dute eta dementzietan asko erabiltzen dira. Beherakoekin, gorakoekin eta izerdi gehiegi botatzearekin ere kontuz ibili behar da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

# KULTURA




Oñatiko Musika Eskolako Akordeoi taldea kontzertuan; *The Lion King* filmeko abesti bat eskaini zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

## Debagoieneko musika ikasle gaztetxoak bikain, Oñatin

- Debagoieneko musika eskoletako gazteek eskaini zuten kontzertua
- Bailara mailako topaketaren zortzigarren edizioa izan da aurtengoa

**MIREN ARREGI** | OÑATI

Debagoieneko musika eskolek kontzertua eskaini zuten egubakoitzean Oñatiko Santa Ana Antzokian. Kontzertu honen zortzigarren edizioa izan zen egubakoitzekoa, eta Oñatin egin den bigarrena. Oñatikoez gain, Arrasate Musikalekoak eta Bergarako, Eskoriatzako eta Soraluzeko musika eskoletakoak aritu ziren.

Arrasate Musikaleko ikasleek eman zioten hasiera kontzertuari; Harizko taldeak, biolin eta biolontxeloz osatutakoak, lau pieza eskaini zituen, tartean Ennio Morriconeren *Ave Maria Guarani* deiturikoa. Bergarako musika eskolatik gitarra elektrikoz, baxuaz, bateriaz eta ahotsez osatutako taldetxoak, Green Day eta Ramones taldeen kantu bana eskaini zituzten. Soraluzeko musika eskolak ildo beretik egin zuen, gitarraz, flautaz eta bateriaz, Metallicaren *Nothing Else Matter* eta Cold Playren *Fix You* eskaini baitzituzten. Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolaren txanda etorri zen gero; akordeoi orkestrak, bi pieza eskaini zituen; *Europaren Ereserkia* batetik, eta Luis Elizalderen *Ama* abesti ezaguna bestetik.

### Oñatikoek, ukitu berezia

*The Lion King* filmeko abesti ezaguna eskaini zuen Oñatiko musika eskolako akordeoi taldeak, pantaila baten, filmeko irudiak ikusten ziren bitartean. Gainera, dantzaz ere atondu zuten euren ikuskizuna; Zeno Brechtigerren *Uh! Cha-cha-cha* abestia eskaini zuen akordeoi orkestrak, Marian Barragan dantza eskolako sei dantzarik dantza egiten zuten bitartean. Guztiak herrikoak, bai akordeoi jotzaileak eta baita dantzariak ere, txalo zaparrada itzela jaso zuten emanaldiaren bukaeran.

Gustura gelditu ziren emanaldiarekin bai parte-hartzaileak eta baita antolatzaileak ere; hori adierazi zigun Aitor Madinak, Oñatiko musika eskolako zuzendariak.



**MARINA ELORZA ETA ARANTZAZU JAUREGIALTZO**
AKORDEOI JOTZAILEAK

"Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako akordeoi Orkestra taldekoak gara. El Rey Leon pelikulako musika banda jo dugu. Debagoieneko musika eskolen kontzertuan parte hartzen dugun lehen aldia da; hasieran lotsa ederra pasatu dugu baina azkenerako esan genezake gustora jo dugula. Hiruhilabete osoa daramagu gaurkoa entseatzen eta gustura gelditu gara egin dugunarekin".



**AITOR ETA LEIRE GURIDI**
IKUSLEAK

"Hilobak akordeoia jotzen du eta horregatik etorri gara. Urte osoko lana erakusteko aukera ona da eta ondo dago Debagoiena osoko musikariak ikustea, kanpokoen lana ikustea interesgarria da–eta".



**NEREA ABAD**
IKUSLEA

"Eskoriatzako musika eskolan ikasten diharduen lehengusina ikustera etorri gara. Asko gustatu zaigu eta esan behar da, Oñatiko Musika Eskolakoen muntaia oso ondo egon dela ".



**BITTOR POZA**
GITARRA JOTZAILEA

"Bergarako Musika Eskolatik etorri gara eta hiru abesti eskaini ditugu. Lan mordoa egin dugu eta ondo atera da. Urduri jartzen gara jende aurrean jotzen dugunean, baina gustuko dugu eta ondo atera da".

# Tradizioa, mitoak eta kondairak protagonista, ipuin kontaketetan

▸ 'Munduko kontu kontalariak' jaialdiaren barruan egin ziren kontaketak

▸ Bost ipuin kontalari izan ziren, bakoitza bere nortasun eta istorioekin

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

"Bizitza bizitzea merezi duen ipuin luze bat besterik ez da" zioten ipuin kontalariek emanaldiaren hasieran. Ikuspuntu hori oinarri, Arrasaten egubakoitzean izan ziren ipuin kontalariek erakutsi zuten, eurentzat zein garrantzitsua den ipuinen munduan murgilduta bizitzea. Biziki eta emozioz beterik kontatu zituzten ipuinak. Eta horrek, ikuslearengan eragina izan zuen; barre algaraka pasatu zuten askok eta askok emanaldia. Ipuin bat kontatzeko moduak garrantzi handia du. Are gehiago du, baina, ipuinak berak daroan mezuak edo ipuinaren edukiak berak. Bada, Arrasateko Kulturaten ostiral goizean entzun ahal izan genituenak, bitxiak, politak, misterio askokoak eta zuzenak iruditu zitzaizkigun.

Kolonbiako, Venezuelako eta Euskal Herriko ipuin kontalari bana aritu ziren. Ainara Bilbao zornotzarrak, esaterako, *Cuentos en su salsa* deritzon emanaldia eskaini zuen; amonak sutondoan kontatzen zizkion ipuinez eta Erdi Aroan kokatutako beste batzuez osatu zuen saioa, musikaz lagunduta: "Inoiz zirrara eragin didaten ipuinak dira eta jendearekin konpartitu gura ditudanak". Ondoren etorri zen Jhon Ardila kolonbiarraren saioa. Barre algara ederrak egin zituzten aretoan bildu ziren ikusleek. Kolonbiako ipuin tradizionalak kontatu zituen batetik eta berak sortutako beste batzuk ere bai. *De allá* deituriko ipuin saioan, Kolonbiako ipuinak kontatu zituen. Hango musika, gastronomia, geografia, ohiturak eta tradizioa hizpide zituzten ipuinak, betiere umorez kontatuak. *Cuentos extravagantes sobre huecos corporales* izan zen bere bigarren eta azken ipuin saioa; ahoa, sudurra, belarriak eta bestelako gorputz atalak oinarri, ipuin originalak kontatu zituen. Hauek ziren berak sortutako ipuinak, eta gainera, jendeari asko gustatu zitzaizkionak. Fanny Fuquet zuen izena hirugarren eta azken ipuin kontalariak; Venezuelakoa bera, hango mito eta kondaira ugari ekarri zituen Kulturatera.

Arratsaldean ere egon zen ipuin kontalarien emanaldirik. Argentinatik etorritako Victoria Siedleckik eta Lucas B. Napóles kubatarra ibili zire kontu kontari. Guztiak ere, *Munduko kontu kontalariak* jaialdiaren barruan egin zuten.



Jhon Ardilak saio bereziki umoretsua egin zuen. | MIREN ARREGI



Venezuelako Fanny Fuquet emanaldian. | MIREN ARREGI

# Sariak, euskarazko idazle eta sortzaile gazte onenendako

Arrasate Lehiaketen 24. edizioko sariak eman zituzten egubakoitzean




Saridunen talde argazkia, Miren Agur Meabe idazlearekin. | LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Miren Agur Meabe idazlearen ipuin kontaketak ireki zuen 24. Arrasate Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia, egubakoitzean Kulturaten. Haren ahots goxoaren ostetik, Ubane Maderak eta Jon Berezibarrek deitu zituzten banan-banan aurtengo saridunak: ipuinetan, LH 5 eta 6. mailetan, Maria Oses Saiz eta Alazne Zuazubiskar; DBH 1 eta 2 mailetan, Maialen Gallardo Saiz; DBH 3 eta 4an, Garazi Romero; eta 17 urtetik gorakoetan, Maddi Labaien. Poesian, DBH 3 eta 4 mailetan, Garazi Romerok irabazi zuen; eta 17 urtetik gorakoetan, Jon Iraola. Komikien kategorian, DBH 1 eta 2 mailetan, Aitor Gonzalez izan zen sariduna; eta 17 urtetik gorakoetan, Aritz Irigoien. Bertso paperetan, LH 5 eta 6 mailetan, Jone Perez Moreno eta Marixe Ruiz de Austri izan ziren saridunak; DBH 1 eta 2 mailan, Ane Zuazubiskar eta Arantzazu Letona Elizburu; DBH 3 eta 4 mailetan, Asier Delgado Gartzia. Denei euskarazko produktuak eta, batzuei, txekeak ere eman zizkieten.

### Ikastetxeen laguntza

70 lan aurkeztu dira. AEDk eskerrak eman zizkien ikastetxeei euren laguntzagatik. Alde txarrean, esan dute adin tarte batzuetan ez dela lanik aurkeztu; alde onean, berriz, helduen mailan handitu egin dela parte-hartzea. Kategoriaka, ipuinetan 20 lan aurkeztu dira; poesian, 15; komikian, bi; eta, azkenik, bertso paperetan, 33.


Batzuk kantuan eta beste batzuk buruari eragiten. | JOSETXO ARANTZABAL

# Erramu Zapatuko jai giroa, katxondeoa eta momentu hunkigarriak bertso saioan

## Egañak, Sarriegi, Irazuk, Enbeitak eta Barrosok pozik utzi zuten entzulegoa

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Umore onean eta gero eta giro beroagoan eta babestuagoan joan zen egubakoitz gaueko bertso saioa, Erramu Zapatu bezperan urtero egiten duten moduan. Kartela goi mailakoa zen: Andoni Egaña, Igor Sarriegi, Jexux Mari Irazu, Onintza Enbeita eta Odei Barroso; eta gai-jartzaile, Irati Agirreazaldegi. Bada, pilotalekura joan ziren zaleei irribarrea, algara eta, momentu batzuetan, negar-malkoa ateratzeko gai izan ziren.

**Txorimalo itxurarekin**

Bai kalitatea eta bai giroa, biak handitzen joan ziren saioak aurrera egin ahala. Hasiera ere berezia izan zen, Bergarako bertso eskolako ikasleek aurkeztu zituztelako bertsolariak, banan-banan.

Emanaldian zehar, denetariko gaiak proposatu zizkien Irati Agirreazaldegi elgoibartarrak; dena dela, jai bezpera bati dagokion moduan, gehienak umoretsuak eta arinak izan ziren. Hala, kasu baten, Enbeitak beste bati "ze txorimalo itxura" hartzen zion abestu behar izan zuen. Eta ikus-entzuleak barrezka jarri zituzten jolas batekin: Enbeitak, Egañak eta Irazuk bertsoa egin behar zuten, baina bukaerako errima norbere ondokoak bota behar zuen.

Une hunkigarria izan zen Andoni Egañak Jose Luis Elkororen paperean abestu zuenean, giza-eskubideen urraketa gaitzat hartuta.

Algara, malko eta txalo artean, agudo pasa zen saioaren ordu eta erdia.

# Stoltz-Freres zoragarriari agurrik ez zioten esan, gero arte baizik

L.K. | BERGARA

Bergarako San Pedro parrokiako Stoltz-Freres 1889 organoa edozein organo-jotzaileren ametsa da, eta faltan igarriko dute Bergarako organo eskolakoek eta, bereziki, haien irakasle eta San Pedro elizako organo-jotzaile titular Aitor Oleak. Eliza eraberritu egin behar dute, eta egubakoitzean itxi zuten. Organoa prezintatu eta babestu egin behar dute eraberritze lanak egiten hasteko, eta horregatik, gutxienez bi urtean, mutu eta isilik geratu beharko da.

Horregatik, egubakoitz iluntzean despedida egin nahi izan zioten. Aitor Olearen ikasleek eta beste bi lagunek ikasturtean zehar ikasitako pieza bana jotzeko aukera izan zuten, eta bukaeran, Aitor Oleak inprobisazio bi ere jo zituen. Kontzertua baino gehiago, "lagun arteko" kontu bat izan zela diosku Oleak.

**Babestea**

Elizak lehenbailehen behar ditu eraberritze lanok. Luze joko dute. Lehenengo fase baten, teilatua, paretak eta dorrea konpondu behar dituzte, eta oraingoz horrekin pentsatzen dabiltza arduradunak. Asmoa da organoa bera ere eraberritze lanen barruan sartzea etorkizun baten, baina oraingoz, ziurtatu behar da babestuta egon dadila, Stoltz etxeko organo handiena delako, eta egin zutenetik, 1889an, ez dutelako aldatu.


Emanaldiaren momentu bat; bigarren planoan, Aitor Olea. | JOSETXO ARANTZABAL



# Jatetxe Gida



## Arantzazuko Santutegia

*Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI*
*943 78 13 13*
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**
- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegiko menua.

**Egunero zabalik**



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Plldain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

**Eskaintza**
- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

**Astelehenetan itxita**



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79
*www.soraluzeostatua.es*
*info@soraluzeostatua.es*

**Eskaintza**
- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

**Domeka gauean itxita**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

GURE MUSIKA TALDEAK

MALATU



Malatu taldea, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan eskaini zuten zuzenekoan. | MALATU

# "Konplexurik gabeko diskoa da; abesti batetik bestera sorpresak daude"

- Cabo Verde, New Orleans, Cadiz eta Lekeitiora garamatza diskoak
- Inprobisazioz betetako zuzenekoak eskaintzen dituzte

MAIDER ARREGI | LEINTZ GATZAGA

Malatu ibilbide luzeko musikariz osatutako taldea da. 2005ean jaio zen, Gasteiz eta Leintz Gatzaga artean. Itoitz, Ruper Ordorika, Potato eta Mikel Laboarekin ibilitako eskarmentudun musikariek osatzen dute taldea.

**12 abesti oso ezberdinek osatzen dute lana.**

Gure musikak ez dauka estilo finkorik. Mikel Gartziak konposatzen ditu abesti gehienak eta gustuko duen musikan oinarritzen gara doinuak egiterakoan: Brasilgo melodiak, Europa ekialdekoak, flamenko ukituko doinuak, jazza… fusioa egiten dugu. Konplexurik gabeko diskoa da. Abesti batetik bestera sorpresak sartu ditugu. Diskoak, baina, badauka gidatzen zaituen haria.

***Gaur ere patioan* eta *Take Five* kantuen erritmo aldaketa entzun besterik ez dago.**

Bai, sekulako erritmo aldaketa dute! *Gaur ere patioan* abestian, Inazio eta haren gitarraren melodia bakarrik entzun daiteke. *Take Five* entzuterakoan, berriz, Malaturen esentzia nabaria da. Doinuak ezagun egiten du taldea.

**Diskoak Cabo Verde, New Orleans, Habana, Cadiz eta Lekeitiora garamatza.**

Musikari batendako ederra da kultura horiek guztiak hartu eta bateratzea. Hori da ijitoek historian zehar egin dutena: Indiatik atera eta Iberiar Penintsularaino bidaiatu dute. Toki guztietatik hartu dute zerbait; begira flamenkoan nola islatu den.

**Mikel Laboari ere omenalditxoa egiten diozue diskoan.**

Gure abeslariaren, Inazio Gabilondoren, tinbrea oso antzekoa da. Hark abesti batzuk bazeuzkan egin Malatun hasi aurretik. Konposatzeko eta kantatzeko era Laboaren antzekoa dauka, gainera. Izan ere, denok maite dugu Laboa eta haren influentzia igarri egiten da.

**Swingik badago Euskal Herrian?**

Jazzaren hizkuntza nahiko konplexua da ulertzeko. Badago zaletasuna, baina ez handirik. Musikari oso onak daude Euskal Herrian, baina jendeak ez du askorik estimatzen.

**Zuzenekoetako inprobisazioak ikuslea gustura uzten du?**

Ikusmina izaten da gure kontzertuetan. Musika ezberdina da, eta, agian, ez daude ohituta. Gure zuzenekoak hasiera lasaia dauka, baina kontzertuak eboluzionatu egiten du eta intentsitate handiz amaitzen da. Edonorendako eta adi egoteko zuzenekoak dira. Sor ditzakegun sentsazioetan oinarritu gara; izan ere, inprobisazioa zuzenekoaren parte garrantzitsua da. Gustura gaude publikoarekin izaten dugun komunikazioaz.

**Autoekoiztutako lana da.**

Plazatik plazara urte asko eman ostean, diskoa grabatzea erabaki genuen. Guk egin dugu guztia eta bi urte eman dugu horretan. Ondoren etorri zitzaigun Gaztelupeko Hotsak diskoetxekoekin lan egiteko aukera. Eurek duten filosofiarekin bat gatoz. Musika berriaren aldeko apustua egiten dute; ikuspuntu komertziala alde batera uzten dute-eta. Hemen izango duzue gure berri: *www.myspace.com/malatujazz.*

ZERTZELADA




**MALATU**

**Estiloa:** Folk, Jazz, Bossanova, Swing...
**Egilea:** Malatu.
**Argitaletxea:** Gaztelupeko Hotsak.
**Iraupena:** 53,7".

## Doinuen ijito edo kontrabandistak

Historikoki badira lapur dotoreak, ez hain dotoreak, eta baita bohemioak ere. Horien artean ijitoak dira erregeak, handik eta hemendik hartu eta euren ezaugarri jakinetara guztia egokitzen dutenak. Gasteiz eta Leintz-Gatzaga artean kokatutako talde "aske" honetako kideek ere antzera egiten dute. Tarteka jazz lengoaia erabiltzen badute ere, herrialde eta tendentzia desberdinetatik testurak hartu eta kide bakoitzak berea emanda, nahasketa bitxi bezain beroa egiten dute, kontrastez betetakoa: Laboaren abesteko eraren antzekotasuna duten euskarazko piezatan, bada Ekialdeko ijitoen girorik, Afrikar zein latindar erritmoak edo swinga, besteak askoren artean.

IKER BARANDIARAN

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro eraikiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 64 67 38

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zarugalden. Hiru logela, bi komun eta egongela handia. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 618 19 10 95, 646 97 36 79

**Azkoitia.** Etxebizitza salgai Azkoitian. Berritzeko. Aizkibel 6-4. 91m2. 618 10 31 62

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 179.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 71 53 53

**Eskoriatza.** Gaztainadui 27an logela bakarreko apartamentua salgai. Erdi jantzia. Garaje itxia aukeran. Interesatuek deitu zenbaki hauetara: 650 95 56 44 edo 943 08 14 90

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 80 02

**Oñati.** Kalebarria 37an 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna, guztiz hornituak. Patio erabilgarria eta ganbara. Garaje itxia aukeran. Prezio ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 71 77 98

**Oñati.** 60 metroko etxebizitza salgai SanLorentzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Guztiz hornitua. Prezio negoziagarria. Mesedez, gauetan deitu zenbaki honetara: 699 78 47 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Ainsa (Huesca).** 50 m2ko. Atiko berria alokagai udaran. Bi gela , komuna, sukaldea eta egongela. Oso polita. Kanpora begira. Asteburu, aste edo hile osorako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 67 48 64

**Arrasate.** Kontzeziño kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun, igogailua, berokuntzarekin... Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 58 31 17

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Malvinetan. Hiru logela eta bi komun dauzka. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 70 07 edo 687 60 51 24

**Berriz.** Pisu bat alokagai Berrizen (abalarekin). 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Herri erdian kokatua. 688 68 54 29.

**Conil (Cadiz).** Conilen etxea alokagai aste santurako edota udarako. 3 logela eta garajea. 653 73 34 57

**Ramales (Kantabria).** Kantabriako Ramales herrian txaleta alokagai Aste Santurako edota udarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 73 34 57

**Zaldibar.** Zaldibarren apartamentu bat alokatzen da bikote batentzako aproposa interesik izanez gero deitu arratsaldeko 8:00 tik aurrera telefono honetara 946 82 73 69

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara edo Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 12 61 44

**Iurreta.** Iurretan, 2 gelako etxea alokatu nahi dut. Igogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 70 22 03 (Idoia).

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Bainugela duen logela ematen da errentan. Etxe berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 682 70 32 17

**Aretxabaleta.** Logela daukat errentan emateko, neska ikasle batentzat. Ni ere neska naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 21 60 95

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 86 05 49

**Arrasate.** Arrasaten pertsona euskalduna behar da erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Jone. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 05 36 18

**Arrasate.** Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 00 08 28

**Bergara.** Herri erdialdean hiru logelako etxe bat betetzeko pertsona bat behar da. Aitor eta Jon. Deitu 608 42 23 51 edo 628 45 10 37 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Logela bat ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

**Durango.** Pisukide atsegin baten bila nabil. Tabira auzoan kokatuta dagoen duplex-a da. Etxea berria eta erosoa da. Logela bikoitza eta handia da eta terraza dauka. Maiatza hasieratik erabilgarri. 310 euro hilabetea. Etorri ikustera! telefonoa: 699 50 12 90/ 635 26 62 51

**Donostia.** Gela bat ematen da errentan Intxaurrondo zaharrean. Berritua. Berogailu zentrala du. Argitsua, gela guztiek kanpora ematen dute. Trena bertan du eta autobusak ere bai. Grosetik 20 minututara oinez. 685 71 81 58 Maialen.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garajeairekia salgai Loramendi kalean. 4,76 x 2,50 metro kuadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 93 77

**Bergara.** Ibargarai kalean (Torrekua erretegiaren ondoan) garaje itxia salgai. Prezioa 7.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 57 33

**Berriz.** Berrizen garaje bat salgai. 42 m2ko garaje itxia. Argiaren eta uraren instalazioa ihaz eginda. Komuna eta txoko txiki bat dauka, sukaldeagaz. 3 kotxerentzako lekua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 75 21 36

**Elorrio.** Garaje itxia alokagai elorrion, kotxe bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto urkizu kalean dago. Deitu 660 45 87 56 telefonora

**Durango.** Garaje itxia salgai durangoko tronperri kalean. 628 78 78 35

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

**Durango.** Garajea salgai. Durangoko erdialdean kokatua dagoen, Tronperri kalean garaje itxia salgai. Saltzeko premia dut. Prezio negoziagarria. Deitu 686 73 44 51 telefono zenbakira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** Garaje itxia alokagai elorrion, kotxe bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto urkizu kalean dago. Deitu 660 45 87 56 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Berriz.** Garaje itxi bat behar da berrizen kotxe bat eta txakur txiki bat izateko. 94 622 57 24 edo 680 50 9532. Izaskun eta Jose Mari.

**Eskoriatza.** Erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan. Deitu 943 79 01 07 telefonora eta Arantxarengatik galdetu edo 669 90 73 77 telefonoan (Fran)


**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Sanantonabat, 75 $m^2$, oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 $m^2$, eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 $m^2$. Berria. Garajearekin.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



**KOROSTI INMOBILIARIA**

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 $m^2$. Terrenoarekin.
- Artekale 40 $m^2$. Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 $m^2$. Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 $m^2$. Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin.
- Burdiñate 53 $m^2$. 162.273 €.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761€.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319€.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Herri Lagunak 52 $m^2$. Prezio ona.
- Zubiaurre 51 $m^2$. Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 $m^2$. Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 $m^2$. Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 $m^2$. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan eta San Lorentzon. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Sagasti 88 $m^2$. Garajearekin. 270.455 euro.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.


## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Bergara.** Lokal komertziala erosiko genuke. Bestela, lehenengo edo beheko solairuan dagoen etxebizitza. Ahal bada, San Lorentzo edo Matxiategi aldean. 656 74 74 78 / 605 76 32 72

### 303. ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** 350 m2-ko pabilioia salgai edo alokagai, 60 m2-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 45 72 01

### 304. ERRENTAN HARTU

**Oñatin.** Negozio berri bat jartzeko 60 metro koadro inguruko lokal bat hartuko nuke errentan. 943 53 28 15

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Ile-apaintzailea behar da.
943 79 79 65

**Alegia.** Neska euskalduna behar dugu, umea zaintzeko, goizeko 05:00etatik 09:00ak arte Alegian. Interesatuek, deitu 686 38 18 94 telefono zenbakira.

**Bergara.** Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko, 17:00etatik 20:00etara. Deitu 679637391 edo 679 63 73 91 telefono zenbakietara.

**Berriz.** Berrizko andre euskalduna behar da ume bi zaintzeko. Ordu bat goizetan eta bi ordu eta erdi arratsaldetan. Deitu 626 84 18 70 arratsaldez.

**Getxo.** Pertsona euskalduna behar da arratsaldez umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 94 430 56 50 gauez deitu.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Arrasateko neska euskalduna etxeak garbitzeko prest, esperientzia handikoa. 618 41 24 79

**Arrasate.** Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634 84 41 94

**Arrasate.** Emakumea gertu lanerako. Garbiketak egiten edota etxean bertanbizi izaten. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

**Arrasate.** Bergara edo Arrasaten. Neska gertu etxeko lanak egin, nagusi zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten, gauetan edo asteburuetan ere lan egingo nuke. Deitu 616 60 23 78 telefonora

**Arrasate.** Bertako emakume euskalduna, 52 urtekoa, lanerako prest. Nagusiak zaintzen aritua naiz. Deitu 943 79 60 89 telefono zenbakira

**Arrasate.** Bertako neska gertu orduka garbiketa lanak edo umeak zaintzen jarduteko. 943 77 00 26

**Arrasate.** Neska gertu etxean lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu zein garbiketa lanetarako. Egunez edo etxean bertan bizi izaten ere bai. Deitu 638 89 98 60 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Hemengo neska etxeko lanak, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko gauetan edo asteburuetan. Eskarmentuduna. 618 00 08 28

**Bergara edo Arrasate.** Umeak zaintzen lan egingo nuke. 696 84 19 51

**Bergara.** Bergaran edo inguruetan, emakumea lan bila. Garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Maite. 650 17 74 87, 943 53 27 11

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Rakel. 665 70 37 83

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu sukaldari lanak egiteko. Euskal sukaldaritza ezagutzen dut eta menua eta karta egiten dakit. Miguel. 634 40 66 47 / 943 79 74 13

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasaten. Garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko gertu, 15:30etik 21:30era. 677 81 10 00

**Debagoiena.** Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainketarako. 619 23 37 30

**Debagoiena.** 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere beharrean bainago. 689 68 56 81/ 606 74 42 37

**Debagoiena.** Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdetzeko lasai asko. Paretak garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30 / 648 68 24 30

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, heziketa onekoa eta ikasketak dituena edonolako lanak egiteko eskaintzen da. Pertsona nagusien zaintzan esperientziaduna. Ordutegi moldagarria. Victor. 660 59 77 20

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. 669 64 7628

**Debagoiena.** Arrasate edo bergara. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. 699 54 17 27

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. 697 54 28 76 / 682 35 90 60

**Debagoiena.** 25 urteko neska sukalde laguntzaile lanerako gertu. Elikagaien manipulazio baimena eta sukaldaritza ikastaroa egindakoa. 634 29 24 45

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu lanerako: umeak zaindu, nagusiak, garbiketa lanak eta abar. Yasna. 617 28 08 07

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldetan lan egiteko. Garbiketak, nagusi zein umeak zaindu eta abar. Malena. 663 15 39 92

**Debagoiena.** Neska arduratsuak lan egingo luke nagusiak zaintzen edo egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Bost urteko eskarmentua. Garbiketa lanetarako ere gertu nengoke. 629 80 77 73

# Spotify-ren doako kontuak hileko 10 orduko muga izango du

## Doako harpidedunak ordainpekora alda daitezela gura dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Musika zerbitzu ezagunak gaur egun 11 milioi erabiltzailetik gora ditu eta gehienak ordainpeko harpidedun izatera aldatzea gura dute Spotifykoek. Horretarako, doako zerbitzuan murrizketa ezarri berri dute, bai denborari dagokionez, zein entzun daitezkeen abestiei dagokienez; 200 abestiko mugarekin..

Zabalkunde nabarmena izan du Spotifyk azken bi urteetan munduan zehar baina oraindik ez du Estatu Batuetako aduana pasatu. Asmoa da urte amaierarako ere bertan erabili ahal izatea baina negozioazio gogorrak dabiltza izaten diskoetxeekin eta ez da erraza izango merkatu berriaren konkista..

Era berean, dagoeneko erabilgarri dagoen herrialdeetan ere etekinak handitu guran dabiltza eta, horrela, doako zerbitzuari muga ipini diote. Orain arte doako zerbitzuaren eta ordainpekoaren arteko alde ia bakarra doakoan txertatzen zuten publizitatea zen. Ordainpeko harpidedunek ez daukate iragarkirik baina, osterantzean, katalagorako sarbideta bi kontu motetan ia berdina da – abesti edo eskaintza berezi esklusibo batzuk gora behera–.

### Denboran eta abestietan

Hilean 10 orduz entzun daiteke musika muga barik eta, abesti kopuruari dagokionez, 200 da limitea. Gainera, abesti bera, bost aldiz besterik ezin da entzun. Spotifytik bertatik diote muga zabala dela hori, kalkuluak aterata 20 disko entzun daitezkeela hilean euren 13 milioi kantutik gorako katalogotik..

### Diskoetxeak pozik

Begi onez hartu dute diskoetxe handiek doako zerbitzuaren muga hori eta zenbait hedabidetan azaldu dutenez, aldaketa horren atzean leudeke Sony Music, EMI, Warner Music eta Universal Music Group handikiak, hain zuzen, Estatu Batuetan indar gehien dutenak eta Spotifyren zabalkundean eragozpen gehien jartzen dabiltzan eragileak. The Guardian ingelesak etxe horietako bateko zuzendari nagusietako baten adierazpenak jaso ditu, nor den esan barik, eta zehazki adierazitakoa da "diskoetxeak nekatuta" daudela Spotifyko doako erabiltzaileak ordainpeko zerbitzura noiz aldatuko zain egotearekin eta "presioa egiten dabiltzala berandu baino lehenago eskaintza librea gehiago murrizteko".

### Sei alternatiba Spotifyren antzeko zerbitzua eskaintzen dutenak

- Grooveshark: HTML5arekin guztiz diseinatutako gunea da eta iragarkiak erabat bisualak dira, soinuzkoak barik. Eskaintzen duten datu basea ere nahiko zabala da. Groovesharkek gainera erabiltzaileari bere musika plataformara igotzen uzten dio. Diskoetxe nagusi askoren babesik ez dauka eta hori da eragozpen handienetako bat katalogoaren aberastasunaren aldetik. Ordainpeko zerbitzua zertxobait garestiagoa da.
- Musicuo: Groovesharken bertsio espainiarra da, ezaugarri nahiko antzerakoekin. Webgunetik bertatik entzun daiteke musika bai Grooveshark zein Musicuoren kasuetan, aplikazioen beharrik gabe.
- YesFM eta Napster: Biek ala biek daukate Spotifyren filosofia berdina baina lehenek iragarkidun doako kontuak eskaintzen ditu eta bigarrenak ordainpekoak besterik ez, baina Spotifyk eskaintzen dituen prezioen antzekoak dira. Napster garestitxoagoa da abestiak eskuko telefonoan entzun nahi izanez gero.
- Gatunes: Groovesharken oso antzerakoa baina katalogoa Youtubeko abestidun bideoetan oinarritzen da. Kalitatea gora behera, eta katalogo bitxi horrekin, zerrendak egin eta lagunekin partekatu eta harpidetzeko aukera ematen du–
- Audiogalaxy: Erabiltzaileen artean musika partekatzeko sistema aitzindaria izatetik, orain, legea beteta, musika eskaintzen duen plataforma da Audiogalaxy. Zerbitzuak duen indarguneeetako bat da erabiltzaileari abestiak euren zerbitzarira igotzen uzten diola eta hark gura duen gailuan entzuten utzi. Muga 200.000 abestitan dago. Katalogoa eskaini baino zerbitzariak uzten ditu plataforma honek erabiltzaileak abestiak igo ditzaten. Esamesek diote horixe izango dela Applek iTunesekin erabiliko duen sistema berria.


Spotifyren fundatzaileak. | GOIENA


Spotifyren aplikazioa. | GOIENA

# Google Video guneko eduki guztiak ezabatuko dituzte

## Zerbitzua bertan behera utziko du betirako Googlek, Youtuben jabe ere badenak

J.B. | ARRASATE

Bertan behera geratuko da Google Video zerbitzua hemendik gutxira eta dagoeneko erabiltzaileek jaso dute oharra azalduz hara igotako bideo eta edukiak ezabatu egingo dituztela erabat..

Espero zitekeen erabakia da 2006an Googlek Youtube plataforma erosi zueneteik. Aurretik Google Video zen Googlen bideo plataforma, '.gvi' berezko luzapena eta guzti zuena, baina Youtube ezagunaren erosketaren ostean zegoen bezala utzi dute Googleekoek. 2009ra arte igo ahal izan ziren hara bidoak eta ordutik honak soilik aurrez gordeta zeuden bideoak ikus zitezkeen bakarrik. Orain zerbitzu osoa utziko dute bertan behera eta apirilaren 29a izango da muga eguna erabiltzaileek erek igotako bideoa deskargatu gura izanez gero. Youtube zerbitzua eurena izanda ere, ez dago modurik zuzenean aldaketa egiteko..

### Youtube zuzenean

Aurretik zenbait proba eta egin eta gero, zuzeneko emisio zerbitzua hasi da eskaintzen gaur Youtube. Momentuaz kate batzuri bakarrik utziko diete streaminga egiten baina asmoa da datozen hilebeteetan milaka erabiltzaileri aukera ematea. Zerbitzuak YoutubeLive dauka izena eta , gehien bat, kirola eta dokumentalak hasi dira emititzen. Gainera emisioen egutegi batera harpidetu eta ekitaldien berri jasotzeko aukera ere badago.

# Sinde Legea urte amaieran sartuko da indarrean

## Prozedurarengatik, lau hilabeteko atzerapenarekin etorriko dira webguneak ixteko lehen epaiak

J.B. | ARRASATE

Onartua bai baina ezarpenerako orduan eragozpenak izaten dabil *Sinde Lege* polemikoa. Kontuak kontu, badirudi legealdi amaieran sartuko dela indarrean, hau da, urte bukaerarako. Horrek ekarriko lukeena da, legez kanpokotzat jotako webguneen epaiak azaro edo abenduan hasiko liratekeela ematen.

### Prozeduran eragozpena

Atzerapen honen arrazoia legea bera martxan jartzeko zailtasunean dago. Legea ez da urgentziazkoa eta horregatik garapen luzeagoa eskatzen du. Gainera behin legea onartu eta abian jarrita, oraindik ere Jabetza Intelektualaren Batzordea eratzeko dago eta izendapenak egin beharko lituzkete lehenik.

### Batzorderik ez oraindik

Horren inguruko albisterik ez da egon oraindik. Legearen arabera batzorde horrek hartuko du prozeduraren zati handi baten ardura eta legearen gako garrantzitsuenetako bat da. Izan ere, legearen arabera, honako hau izango litzateke garapena: Egile eskubideen titularrak Jabetza Intelektualaren Batzordeko Bigarren Sekzioan salatuko luke bere obra baimenik gabe estekatzen duen webgunea. Une horretan sartuko litzateke legeak eskatzen duen epailearen lana ze aipatutako batzordeak epaile horren baimena beharko du webgunearen identifikazio datuak jakiteko. Estekak ez badira erretiratzen, hiru egunetako epean etorriko da epaia eta prozesuak 15 eta 17 egun bitartean iraungo du.

### Landa eremuetarako teknologia berrien ikastaroa Bedoñan

Informazio eta komunikazio teknologiak txertatzeko, Dinamiza-TIC-en barruan ikastaroa antolatu dute Bedoña auzoan. Hastapen ikastaroa izango da, 60 ordukoa, eta ordenagailuaren oinarrizko ezagupena, interneten nabigatzea eta Word aplikazioa erabiltzen ikastea izango dira oinarriak. Izena maiatzaren 4a baino lehen eman behar da.

### Mugikorra euskaraz erabiltzeko eskubidea onartu dute

Bilboko Auzitegiak atera berri du epaia. Vodafoneren zerbitzua euskaraz erabiltzeko aukera ez izateagatik kontratua baliogabetu nahi zuen erabiltzaileari arrazoia eman dio epaitegiak. "Lehen aldiz onartu da euskaldunok arlo pribatuan euskara erabiltzeko dugun eskubidea", dio Patxi Garcia Abascalek.

## TELE-BEGI

AINHOA VITORIA

# Eta postrerako... kontzertu bat

Argi dago, telebista etorkizunaren sukalde bihurtzen ari da. Eta Internet da telebista horren jatetxea. Edukiei, kasu honetan, *plater* deituko diegu. Orain arte, asteko menuarekin disfrutatzen genuen eta orain, kategoriaz aldatu dugu: karta eta guzti, aizu!

Joan den hilabetean RTVE kateak *RTVE a la carta* estreinatu zuen Interneten. Dituen telesail, programa eta albistegi guztiak nahi duzun momentuan ikusteko aukera. Jatetxe bateko lehen platera albistegi bat, bigarren platera aukeratzerakotan telesail bat eta postrerako kontzertu onenak utziko ditugu.

Eskaintza hori ematen digu *Conciertos Radio 3* programak. Kontzertu onenak edozein momentutan ikusteko aukera: Anni B Sweet eta Arizona Baby, besteak beste. Baina euskaldunak ere bai. Oreka TX eta Berri Txarrak, tartean.

Hemendik aurrera, kontzertu bat ikusteko pijama bat eta palomitak beharko ditugu. Internetek eskaintzen duen *karta* honek bapo bazkaldu dugula sentitzearen plazerera eramango gaitu. Orain ez dago aitzakiarik. Orain, etorkizuneko *karta* honi esker, kontzertuak postrerik onenak.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 18



**Bergara vs Aloña derbia ikusgai**

20:45

Aloña Mendik eta Bergarak derbia jokatu dute asteburuan eta bertan jasotakoak erakutsiko ditugu *Harmailatik* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:10** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:15** Trikitixa jaialdia
**15:45** Ikusmira
**16:10** Gipuzkoa kultura
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:40** Nere herrie
**18:15** Ikusmira
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura
**23:45** Magazinea

MARTITZENA, 19



**Sukaldaritza kontuak**

14:00

Errezeta berriak ikasteko aukera aproposa daukazue *Onein* saioarekin. Sukaldaritza kontuak izango ditugu, beraz, eguerdian.

**13:00** Marrazki bizidunak
**13:30** Kantari
**14:00** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Erreportajea
**16:30** 28.Klip
**17:00** Berriak
**17:30** Marrazki bizidunak
**17:50** Harmailatik
**18:25** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Erremeixuak
**21:15** Magazinea
**22:30** Hamaika.bit
**23:00** Magazinea

EGUAZTENA, 20



**'Tertulia' saioa ikusgai**

21:30

Tertulian jardungo dute eguaztenean Debagoieneko hainbat gonbidatuk Larraitz Zeberioren gidaritzapean.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:15** Onein
**15:55** Hamaika.bit
**16:30** Leku txiki bat
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Bertso saioa
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Hamaika.bit
**21:30** Tertulia
**22:30** Korrika 17
**23:35** Magazinea

EGUENA, 21



**'Iparraldea bertan' saioa**

22:55

Attuli Barkoxtarraren *Xahakoa* izeneko pastorala eskainiko dugu Goiena telebistan. Koldo Mitxelenan eman zuten saioa.

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:45** Ipupomamua
**10:15** Leku txiki bat
**10:45** Korrika 17
**11:45** Dokumentala: Zenbait gazte ausart
**12:50** Trikitixa jaialdia
**13:25** Kantari
**14:30** Onein
**15:25** Hamaika.bit
**16:00** Ikusmira
**16:40** Trikitixa jaialdia
**17:05** Marrazki bizidunak
**18:00** Ipupomamua
**18:30** Leku txiki bat
**19:45** Erreportajea
**19:15** Kantari
**19:45** Tertulia
**20:45** Hamaika.bit
**21:20** Bertso saioa
**22:15** Pilota: Soraluce Saria
**23:55** Iparraldea bertan

EGUBAKOITZA, 22



**'Leku txiki bat', umeentzako**

09:00

Magia eta Korrika landuko dituzte bi pailazoek aste honetako *Leku txiki bat* haur eta gaztetxoendako saioan.

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:00** Leku txiki bat
**09:30** Ipupomamua
**10:00** Marrazki bizidunak
**11:00** Kantari
**12:00** 28.Klip
**12:30** Bertso saioa
**13:20** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**15:00** Berbetan
**15:30** Ur eta lur
**16:00** Leku txiki bat
**16:30** Erremeixuak
**17:00** Ikusmira
**17:40** Marrazki bizidunak
**18:15** Gipuzkoa kultura
**18:45** Ipupomamua
**19:15** Nere herrie
**20:05** Kantari
**20:35** Erreportajea
**21:00** Gipuzkoa kultura
**21:30** Erremeixuak
**22:00** Bertso saioa
**23:00** Tertulia

### ARRASATE IRRATIA

**Disko pack bat eta Korrikako materiala zozketatuko ditugu**

Disko pack bat eta Korrikako materiala zozkatuko ditugu Arrasate Irratian eguazkenean, *Igo autobusera!* irratsaioan. Zozketan parte hartzeko bideak betikoak dira: 943 25 05 05 telefono zenbakira deituta edo *irratia@goiena.com* helbidera mezua bidalita. Animatu eta parte hartu!

**Elizak Aste Santurako duen egitarauaz hitz egingo dugu**

Elizak Aste Santurako duen egitarauaz jardungo dugu Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan aste honetan. Horretarako, Horazio Argarate Arrasateko parrokoa elkarrizketatuko dugu eta hark kontatuko digu Elizak nola ospatuko dituen Aste Santuko egunak.

**Aste Santuan musika ugari entzun ahal izango da 107.7an**

Aste Santuko oporrak hartuko ditugu Arrasate Irratian eguaztenean, apirilaren 20an, eta maiatzaren 2an bueltatuko gara zuzeneko emanaldietara eta egunerokotasunera. Hala ere, bitartean, izango da zertaz gozatu: euskal musika entzun ahal izango da betiko sintonian, 107.7an, Arrasate Irratian.

## TELE-ALBISTEAK

# 'Gipuzkoa kultura' eta 'Iparraldea bertan'

Pazko astean kulturak leku zabala hartuko du Goiena telebistan

A.T. | ARRASATE

*Gipuzkoa kultura* saioa eskaintzen jarraituko dugu Pazko astean. Eta Donostiako Koldo Mitxelenan egindako *Iparraldea bertan* zikloaren bi emanaldi ere emango ditugu.

*Gipuzkoa kultura* saioa eguenean, hilak 28, ikusi ahal izango dugu. Bertan, eskainiko dugu Beasainen dagoen Igartza Erdi Aroko multzoa. Horrez gain, Gipuzkoako dantza elkarteak antolatutako umeendako jardunaldiak ere izango ditugu hizpide.

**'Iparraldea bertan'**

*Iparraldea bertan* iparraldea gertuagotik ezagutzeko zikloa ere emango dugu telebistan.



Beasaingo Igartza. | WIKIPEDIA

Attuliren *Xahakoa* pastorala eta *Kalakan* Thierry Biscary, Paxkal Indo eta Jamixel Bereau hirukotearen kontzertua ere ikusi eta entzun ahalko dugu Pazko astean.

# 'Goiena.net'-ek errekorra lortu du Korrikaren jarraipenarekin

A.T. | ARRASATE

Goiena telebistako kamerek Korrika 17k Debagoienean eman duen guztia jaso dute aurten ere. Langile ugari aritu dira lanean Korrika 17k gurean ematen zuena jasotzeko eta ikus-entzuleei eta irakurleei material hori eskaintzeko.

Goienako kameralariak Korrikaren furgonetan igota ibili ziren, eta kazetariak eta argazkilariak ere han-hemenka ibili ziren, gurean gertatzen ari zena jasotzen.

Horrela, gure bailaratik Korrikak zeharkatu dituen 74 kilometroetan gertatutakoaren berri eman genuen telebistan eguenean *Magazinea* saioan eta egubakoitzean Korrika 17ri bereziki eskainitako saioan.

**'Goiena.net'-ek errekorra**

*Goiena.net*-ek inoiz izan duen orri bisitatu kopuru handiena eta bisitari kopuru handiena izan zuen eguenean: 37.170 web orri bisitatu ziren eta 5.205 bisitari bakar izan genituen; hau da, 5.205 pertsona ezberdin sartu ziren *Goiena.net*-era Korrika Debagoienetik pasa zen egunean. Datuak Google Analytics-ek emanak dira. Erabiltzaileen babesa jaso du Goienak. Eskerrik asko!



Goienakoak, lekukoarekin. | MONEDERO

# Albistegiak eskainiko ditugu Pazko astean Goiena telebistan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Pazko astean *Berriak* saioa eskaintzen jarraituko dugu, gure ikus-entzule guztiei Debagoieneko albisteen berri emateko.

Goiatz Arana aurkezlearen eskutik jasoko dugu gure bailarako albisteen berri. Beraz, inguruko herrietan zer gertatzen ari den jakin nahi baduzue, *Berriak* albistegiarekin izango duzue horretarako aukera. Eta, horrela, Debagoienean zer pasatzen den jakingo duzue.

Bestalde, normalean astelehenetik egubakoitzera 19:45ean eskaintzen dugun *Magazinea* saiorik ez da egongo Pazko astean.

Ohiko programaziora maiatzaren 2an, astelehena, itzuliko gara.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Itxaro Artola**
Apirilaren 28an, urtebetetzea. Zorionak! Aurten opor egunetan izenda, ederto ospatuko dou zure eguna. Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
**Elene Carrillo Etxabe**
Apirilaren 26an, 11 urte. Zorionak, Elene! Urte askotarako, printzesa! Asko maite zaitugu. Muxu handi bat amama Alicia eta tia Leireren partetik.



OÑATI
**Xabi Jausoro**
Apirilaren 25ean, urtebete. Zorionak, Xabi! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzia eta patxo handi-handi bat.



OÑATI
**Maren Altube Cid**
Apirilaren 24an, urtebete. Zorionak, *txikitina*! Gure etxeko txikiñenari mila patxito eta jarraittu horren xalada eta kuxkuxera izaten.Muxu handi bat Aimar eta tia Eliren partetik. Pa!



OÑATI
**Eneritz Gereñu Arregi**
Apirilaren 24an, 3 urte. Zorionak gure etxeko printzesatxoari.Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Ekain Rodriguez De Zerio**
Apirilaren 24an, urtebete. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat etxekuen eta batez be Ibairen partetik.



ARRASATE
**Unax Sanchez Oncala**
Apirilaren 23an, 9 urte. Zorionak, Unax! Oso ondo pasatu zure egunean! Familiaren partetik muxurik erraldoiena!



ARETXABALETA
**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak pirata! Ondo-ondo pasatu zure hirugarren urtebetetzean. Muxu potolo-potolo bat etxekoen partetik!



BERGARA
**Antxon Santamaria**
Apirilaren 22an, 7 urte. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik.



BERGARA
**Oihan Etxebarria**
Apirilaren 22an, 7 urte. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik.



ARRASATE
**Ibai Zulueta**
Apirilaren 22an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Etxeko guztien partetik muxu potolo bat. Muaka.



BERGARA
**Erik Lete Moñux**
Apirilaren 22an, urtebete. Zorionak, pototo! Familixa guztian partetik patxo bat, batez be Oierren partetik.



OÑATI
**Ander Murillo Astigarraga, Josu eta Jokin Moreno Astigarraga**
Josu eta Jokinek, apirilaren 21ean, 13 urte. Anderrek, apirilaren 22an, 10 urte.
Zorionak eta urte askotarako "*wapisimos*"! Ondo pasatu zuen egunean eta mila patxo etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
**Alaitz Salaberria Beitia**
Apirilaren 21ean, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu handi bat familiaren partetik.



OÑATI
**Iraia Arregi Orueta**
Apirilaren 21ean, 3 urte. Zorionak, potxoli! Ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat aitatxo, amatxo eta Aiantzeren partetik. Mua!



BERGARA
**Mireia Larrañaga**
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Aurten, lanera, Bergarako rellenuak biharrian, Elgetako San Blas tortak ekarri bihar dittuzu? Zorionak eta gora Elgeta!



ARRASATE
**Asier Agiriano Bermejo**
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak gure txapeldunari! Ondo,-ondo pasatu zure eguna eta txokolatezko musu potoloak bereziki Irati eta Markelen partetik !



BERGARA
**Iban Da Silva**
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako aitatxo! Espero dugu egun ona pasatzea! Muxu handi bat etxekoak, Uxue eta bereziki Kenarren partetik!



OÑATI
**Unax Altube Ayesta**
Apirilaren 21ean, 3 urte. Zorionak, potxolo! Belarritik hiru tirakada.Oso ondo pasatu zure egunean familia guztiaren partetik eta bereziki Markel. Musu handi-handia.



ARRASATE
**Imanol Soriano**
Apirilaren 20an. Beti besteena ipintzen eta libratu egingo zinela pentsatzen zenuen? Ezta pentsau be! Zorionak, *morenazo*! Atxabaltako zure neska fan taldea.



ANTZUOLA
**Unai Eraña Belategi**
Apirilaren 20an, 3 urte. Zorionak, *enano*! Muxu handi-handi bat Aretxabaletako zure familiaren partetik.



OÑATI
**Sara Urzelai Eguren**
Apirilaren 20an, urtebete. Zorionak! Ondo pasatu lehengo urtebetetze egunian. Patxo handi bat aitatxo, amatxo eta etxeko danan partetik. Pa!



BERGARA
**Alaine Egizabal Zabaleta**
Apirilaren 20an, 7 urte. Zorionak eta urte berrion!



ARETXABALETA
**Elene eta Paule Mendieta Gastañaga**
Apirilaren 19an, 4 urte. Zorionak, printsesak! Ondo-ondo pasatu. Muxu handi-handi bat! Irati, aitatxo eta amatxo.



OÑATI
**Beñat Murguzur Lizarralde**
Apirilaren 19an, 4 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat etxekoen eta bereziki Aitorren partetik.



BERGARA
**Oihan Ruiz de Egino Rodriguez**
Apirilaren 19an, 2 urte. Zorionak ,sagutxo! Azkenean iritsi da eguna! Muxu goxo-goxo bat eta bi belarri tirakada familikoen partetik!



ARETXABALETA
**Jon Ugalde Aranzabal**
Apirilaren 19an, 7 urte. Zorionak, Jon! Oso ondo pasatu zure eguna. Izeba, osaba eta bereziki Maitaneren partetik.



OÑATI
**Arnaitz Kortajarena Sainz**
Apirilaren 19an, 2 urte. Zorionak, *bitxito*! Muxu handi bat etxeko guztion eta bereziki amatxo eta aitatxoren partetik.



OÑATI
**Markel Gartzia Leturiaga**
Apirilaren 19an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat!



BERGARA
**Hodei Elkorobarrutia Berezibar**
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Nahia Guridi Olalde**
Apirilaren 18an, 2 urte. Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure egunian. Bi tirakada belarritik eta patxo pila bat Danel, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Ione Moñux Aranzeta**
Apirilaren 18an, 34 urte. Zorionak, amatxo! Urte askotarako! Oier, Erik eta Igor.



ARETXABALETA
**Idoia Amallobieta Theodorou**
Apirilaren 18an, 19 urte. Zorionak, preziosa. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat familiaren partetik.



ARRASATE
**Lide Azkarate Ojanguren**
Apirilaren 18an, 5 urte. Zorionak! Amatxo, aitatxo, Garazi eta lehengusu Oihan eta Hegoi.



ARETXABALETA
**Beñat Zubizarreta Uribarren**
Apirilaren 17an, 2 urte. Gure pitxintxo, zorionak prexioxo! Beteko dittuzun bi urtiak jolasian eta zuk gustoko bezela, dantzan eta musikia entzunaz ospatuko dittugu. Mailukizko patxo potolo bat aitatxo eta amatxok.Pa!



ARRASATE
**Ander Etxabe Uribarren**
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
**Stefanos Amallobieta Theodorou**
Apirilaren 17an, 23 urte. Zorionak, gizon. Oso ondo pasatu zure eguna. Besarkada bat familiaren partetik.



BERGARA
**Oihan Leston Ezenarro**
Apirilaren 16an, 2 urte. Zorionak prexioxo etxekoen partetik.
Bereziki Marenen partetik. Muxu potolo bat!



ESKORIATZA
**Galder Isasmendi Martinez**
Apirilaren 16an, 9 urte. Zorionak eta muxu bero bat zuretzako. Etxekoak, amama, aitite eta Goizeder. Zoriontsu izan!

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Itziar Bengoa Muxika**
Apirilaren 16an, 4 urte. Zorionak, *pitusa*. Eskoitza eta Arrasateko etxeko guztien partetik muxu piloa. Ondo pasatu!



OÑATI
**Julen Vizcaíno Oliva**
Apirilaren 15ean, 9 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu pila bat familia guztien partetik.



ARETXABALETA
**Egoitz Ibabe Santamaria**
Apirilaren 15ean, urtebete. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasa zure lehen urtebetetzean. Musu handi-handi bat etxekoen eta bereziki amama Anita eta Uxueren partetik. Ondo pasatu!



BERGARA
**Ainhoa Gallastegi**
Apirilaren 14an, 6 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
**Jurgi Larrinaga Aranburu**
Apirilaren 14an, 3 urte. Zorionak, Jurgi. Jadanik hiru urte! Zeinen handi egin zaren! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu pila Jokin, Ainhitz, aitatxo eta amatxok.



ARRASATE
**Maialen Velez de Mendizabal Otero**
Apirilaren 13an, 3 urte. Zorionak ,Maialen! 3 urtetxo! Ondo pasatu zure urteguneko merendolan. Patxo potolo bat Mickey, Minnie, Daysi, Pluto, Donald eta etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Itziar Arrieta Elorza**
Apirilaren 13an, 27 urte. Zorionak, Itzi! Urtiak pasau arren, zu beti bezalako zoro! Zorionak Arrasateko eta munduko beste puntan dauen lagunen partetik!



OÑATI
**Edurne Aranburu**
Apirilaren 13an, urtebetetzea. Amama, urte askotarako zorionak! Ea prestatzen duzun bazkari goxoa; postrea ebai.



ARETXABALETA
**Aner Sanchez Borrego**
Apirilaren 12an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean. Sorpresa mordoa eukiko duzu. Musu handi bat etxekoen partetil!



ARETXABALETA
**Eider Cabero**
Apirilaren 12an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure bigarren urtebetetzia, pastel handi-handi bat jangou... Patxito asko!

### Zorionak!

**Internet**
Sar zaitez *goiena.net* atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.
**Posta**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

## ESKER ONA

### M. Isabel Gallastegui Jauregui



Oñatin hil zen 2011ko apirilaren 11n, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Oñatin, 2011ko apirilaren 18an.**

**GOIENAN ESKELA JARTZEKO**
**DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.**
**EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.**



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
**Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

## JAIOTAKOAK



### Txaber Berriozabalgoitita

Garai 2,120 kilo. Apirilaren 9a. Gurasoak: Ainhoa eta Gorka. Argazkian, umea gurasoekin.



### Isolde Beristain Laskurain

Bergara 2,650 kilo. Apirilaren 9a. Gurasoak: Nora eta Lander. Argazkian, ume amarekin.



### Izadi Bragado Alvarez

Arrasate 3,720 kilo. Apirilaren 12a. Gurasoak: Monica eta Andoni. Argazkian, umea gurasoekin.



### Elaia Regaño Guevara

Arrasate 3,650 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Sandra Mariela eta Antonio. Argazkian, umea gurasoekin.



### Asier Markez Gil

Bergara 2,680 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Rosa eta Jesus. Argazkian, umea gurasoekin.



### Leire Carvalho Gongora

Arrasate 3,840 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Tatiana eta Alejandro. Argazkian, Leire, neba Unai eta amarekin.



### Ibai Melgar Merino

Aretxabaleta 3,380 kilo. Apirilaren 13a. Gurasoak: Eneritz eta Natan. Argazkian, ume amarekin.



### Nahia San Vicente Aizpiri

Bergara 3,150 kilo. Apirilaren 13a. Gurasoak: Maite eta Gorka. Argazkian, ume amarekin.



### Uxue Serrano Olea

Arrasate 3,450 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Amaia eta Jose Mari. Argazkian, ume amarekin.



### Ander Aranguren Velasco

Antzuola. Apirilaren 13a. Gurasoak: Rakel eta Josu Xabier. Argazkian, ume amarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



### Julen Giraldo Nieto

Oñati 3,300 kilo. Apirilaren 11. Gurasoak: Ana eta Emi. Argazkian, umea gurasoekin.

## AI, ENE!

### Matrioska hezitzailea



Nork ez ditu ezagutzen matrioskak? Kasu honetan, baina, panpina txikiagoa beharrean, panpinaren barrenak ikusten dira.

**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Norbait gogoko ez dudanean, nire antzerakoa delako izaten da"

**ANGEL GABILONDO** | HEZKUNTZA MINISTROA

Ez da ohikoa izaten politikarien artean horrelako zintzotasuna aurkitzea. Baina akaso izango da esaldi hori bere azken liburua, *Sin Fin* izenekoa, promozionatzeko eskainitako elkarrizketa baten esan duelako, eta ez Madrilgo Kongresuan.

**www.20minutos.com**

## EGURALDIA



**Max.** 24º

**Min.** 9º

Hego ukituko haizea harrotu eta tenperaturak beste koska bat egingo du gora.

**euskalmet.net**


ASTELEHENEKOA

# goiena"

2011-04-18

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM


## HAMARREKOA

**Pedro Subijana** Euskal sukaldari mediatikoetenakoa da donostiarra, baita prestigio handien duenetakoa ere: Akelarre haren jatetxeak hiru Michelin izar ditu. | TXOMIN MADINA

# "Hiru izarrek duten pisu bakarra da kentzeko beldurra"

**1. Zein zaporetakoa gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**
Zaporea eta usaina oso batera doazen bi gauza dira. Zentzu horretan, uda hasiera markatzen zuten piper egosien usaina gogoratzen dut.

**2. Mediku izatea zen zure asmoa. Non okertu zen bidea?**
Ez dakit okertu edo zuzendu egin zen. Gaztetan, lagunekin etorkizunari buruz berbetan, lagun batek komentatu zidan sukaldea hainbeste gustatuta Madrilen sukaldaritza eskola bat zegoela. Iritzia aldatuta joan nintzen etxera eta ia bihotzekoak eman zien!

**3. Euskal sukaldaritza berriaren sustatzaileetako bat izan zinen. Berria izaten jarraitzen du?**
Orduko eta oraingo sukaldaritzak ez dute zerikusirik. Baina berria izaten jarraitzen du espiritu bera dugulako; ikasteko, berritzeko gogoarekin jarraitzen dugulako.

**4. Euskal sukaldariak ikusita, badirudi lagun koadrila bat zaretela.**
Lagunak gara, baina eztabaida handiak ere baditugu. Adiskidetasuna gailentzen da, eta hori da transmititu dugun balio handiena: elkarrekin elkarren kontra baino gehiago lortzen dela.

**5. Inoiz jan duzu McDonald'sen?**
Kasu berezi baten, ezkutuan joan nintzen, eta, hemendik 800 kilometrora egon arren, mostradore ostekoak ezagutu egin ninduen; donostiarra zen! Tarteka joateko ez dago gaizki.



JON POZO

**6. Sukaldari batzuei entzunda, badirudi ingeniaritza espazialaz dabiltzala. Beharrezkoa da hainbeste konplikatzea?**
Beharrezkoa ez da ezer, baina egia da norberak zerbait egin behar duela bere lanbidean etorkizuna egiten joateko.

**7. Ehunka errezeta erakutsi dituzu telebistan. Hainbeste plater egin ditzake norberak etxean?**
Horiek eta gehiago! Behar dena da gustatzea eta bere balio eskalan gastronomia lehen postuetan egotea.

**8. Zenbat pisatzen dute hiru izarrek?**
Gauza bakarrak pisatzen du: kentzeko beldurrak. Nik ez dut ezer berezirik egin eman zizkidatenetik. Argiñanok esan zidan: "Ez aldatu ezer, eman badizkizute egin duzunagatik izan da-eta!".

**9. Akelarren bezeroek aukera dute platerak nola prestatzen dituzuen ikusteko. Hori ez da magoak bere trukuak erakustea?**
Ez, guztiz kontrakoa; nik uste dut askoz gehiago estimatzen dela. Ikusten da trukurik ez baina atzetik sekulako lana dagoela. Eta, azkenean, jendeak ikusi ez balu baino askoz gehiago estimatzen du.

**10. Etxean nor da sukaldari nagusia, zu ala emazte Ada?**
Ospakizunetan nik markatzen ditut pautak eta neu aritzen naiz sukaldean. Egunerokoan, emaztea.

### LEHENDAKARIA BANINTZ

## "Denekin egingo nuke berba"

"Deabruarekin ere berba egingo nuke gure etorkizuna goranzko etorkizuna izan dadin; etorkizun adeitsua, non mundu guztia sartu ahalko den eta non harreman ona eta giro ona egongo diren".

## BIHARAMUNA

**MARIA AGIRRE**



## Elkarriren aletxoak

Akordatzen naiz kanpineko mahaiak hartu eta elkarrizketa eta akordioaren aldeko sinadurak eskatzera kalera ateratzen ginen garai hartaz. Oker ez banago, 1994. urtea zen. Sinadura kanpaina handi batean murgilduta zebilen Elkarri taldea. Gogoan dut elkarrizketa hitza gutxi entzuten zela orduan politikarien ahotik, eta sinadura eskatzerakoan, kontzeptu horren azalpena eskatzen zuen jendeak. "Guk nahi duguna da alderdi guztiak batu, hitz egin eta akordio bat lor dezatela", labur eta sakontasun handirik gabe ematen genituen azalpenak.

Joan den astean, Donostian, Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohiak hitzaldia egin zuen Irlandako bake prozesuaz. Amaieran egindako adierazpenetan, entzutera joan ziren alderdi abertzaleetako politikari guztiek esan zuten elkarrizketa dela bidea. Segituan, kanpineko mahaiekin akordatu nintzen. Batzuetan gogo gutxirekin, beste batzuetan erdi lotsatuta kalera ateratzen ginen garai hura. Sinadurak batu genituen, baina aurpegi txarrak ere makina bat ikusi. Ondo pasa genuen, eta, beharbada, zerbaiterako balio izan du.





SVMS SERVIMASA

*Sukaldeko altzariak eta osagarriak*

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO